

**NON ZER****Kultura**

Euskara eta euskal kultura Gasteizko elizbarrutiaren aldizkarian (1862-1900), <i>Cesar Gallastegi</i> .....	3
Jean etxepare medikua Darwin-en urteurrenetan, <i>Iñaki Sarriugarte Irigoien</i> .....	16
Mendebalde Kultur Elkartearen jardunaldiak. Transmisinoa eta erabilerea. 2009-V-8/9, <i>Patxi Uribarren</i> .....	25
Eliza eleanitzean euskararik bai? Argaia Donostiako Gotzainaren Vatikanoko II.eko egunkaria dela eta (1962-1965), <i>Joseba Intxausti</i> .....	42

**Gizartea**

Luis Baraiazarra Txertudi, idazle jakituna, ekintzaile aurrelaria 45 urtez, <i>Juan Luis Goikoetxea Arrieta</i> . .....	64
---	----

**Eliza**

Kristaufobia, <i>Andoni Olea</i> .....	117
--	-----

**Iritziak**

Milloitik mundura (Hausnarketa bat), <i>Angel Ugarteburu</i> .....	120
Abortuaz, <i>Jenaro Garate</i> .....	124
Historiaren filosofia 2, <i>Roman Garmendia</i> .....	128

**Literatura****Kontu-Kontari**

Kukuak kantatzen duenean..., <i>F. Javier Arrieta Idiakez</i> .....	131
Donibane gaua eta udako solstizioa, <i>Joseba Aurkenerena Barandiaran</i> .....	134

**Olerkiak**

Bihozkadak, <i>Jolanda Arrieta</i> .....	140
Orhiko xoria ote izana?, <i>Etxahun Aurkenerena</i> .....	142

# KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

**Zuzendaria:** Julen Urkiza (Markina)

**Idazle kontseilua:** Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,  
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

**Helbidea:** Karmeldarrak - Markina  
48270 Markina - Bizkaia (Tel. 94-616 6019)  
karmelaldiz@telefonica.net  
www.karmelaldizkaria.com

**Harpidetza:** Urteko harpidetza: 13 €.  
(Europa: 18 dolar; Amerika: 25 dolar)

*Jarri, mesedez,  
argi eta garbi zeure helbidea,  
guk ipinitakoa ondo ez balego.*

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

*Diruz lagundutako aldizkaria:*



Kultura Saila

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak  
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA GASTEIZKO  
ELIZBARRUTIAREN ALDIZKARIAN (1862-1900)****1. SARRERA**

Irakurleak esku artean duen artikulu honek jarraipena eman nahi dio aurretik argitaratutako «Euskara eta euskal kultura Gasteizko Elizbarrutiaren aldizkarian (1901-1950)» izeneko testuari<sup>1</sup>. Orduantxe esaten genuenez, gure asmoa Julen Urkizarren lana omentzea zen (hogeitabost urte betetzen baitzituen aldizkariaren zuzendari modura) eta horretarako euskal eliza eta kulturaren inguruko gai bat jorratu nahi genuen.

Orduko testuan Gasteizko Elizbarrutiaren agerkari ofizialaren aldi bat ikertu (hau da, 1901etik 1950era doana) eta bertan agertzen ziren euskararen eta euskal kulturaren inguruko aipamen garrantzitsuenak laburbildu genituen. Oraingo honetan, berriz, aldizkari ofizialaren lehen urteak jorratuko dira, XIX. mendeari dagozkionak. Beharbada, bi artikuluok interesgarriak izango dira orduko kontuak ezagutu nahi dituztenentzako edota lagungarriak ordukoak ikertzen ari direnentzako.

Jakina, aurreko artikuluan esandakoak ez ditugu errepikatu (adib. aldizkariaren inguruko datu orokorrak<sup>2</sup>) eta irakur-

---

<sup>1</sup> Karmel, 262. zk., 2008, 108-120 or.

<sup>2</sup> Ikertu gabe gelditu dira zenbaki batzuk: 1867 (44. zk.), 1873 (2, 3, 4, 5, 6, 12, 13, 14, 16, 17, 18, 19, 32, 33, 34, 36 eta 46. zk.ak) eta 1892 (7. zk.).

leak orduan esandakoak kontuan hartu beharko ditu. Dena dela, gaien aldetik badago desberdintasunik hogeigarren mendeko eta hemeretzigarren mendeko aleen artean.

Azterketari ekiteko, Gasteizko Elizbarrutiaren sorrera gogoratu behar dugu. Euskal lurretan kokatutako elizaren barruti berria 1851. urtean Espainiako Gobernuaren eta Erromaren arteko Konkordatu edo Hitzarmenean aurreikusi zen. Hala ere, 1862. urtera arte ez zen gauzatu elizaren euskal barruti hori, hori bai, batzuen atsekaberako. Esaterako, ezaguna da Justo Barbagero Santo Domingo de la Calzadako abadearen gonezina<sup>3</sup>.

Justo Barbagero abadea euskal barruti berriaren beldur zen eta, hori dela eta, gutun bat idatzi zion Madrilgo Justizia ministroari, egitasmoa zapuzteko; hona hemen 1861ko abuztuaren 5eko data duen *Memoria o consideraciones sobre la reunión de las tres provincias Vascongadas en un solo obispado, con la silla episcopal en Vitoria* izenekoaren pasarte bat: «Teniendo los vascongados obispos de su habla, cabildos y párrocos de su habla, pastorales, sermones, libros en su habla, se aferrarán más y más en ella, tratarán de extenderla por los límites de las tres provincias, ganando el terreno perdido y haciendo de ella una lengua nacional; y si a esto se agrega la mayor afición que cobrarán a sus costumbres, tradiciones y fueros, que en cierto modo se autorizan y sancionan, se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta y una base de separación política para los que más adelante quisieren invocar el principio de las nacionalidades». Euskararen kontra egin behar zen, Barbageroren ustez: «limitar el uso de la lengua vascongada, mandando que en todas las escuelas se enseñe por libros castellanos y empleando otros medios para generalizar el uso de este idioma, a cuya adopción en el país no ha contribuido poco el clero, por la necesidad de ejecutarlo en sus relaciones con las capitales de la diócesis y comunicación con sus prelados».

<sup>3</sup> Francisco Rodríguez de Coro: *País Vasco, Iglesia y Revolución liberal*, Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, Gasteiz, 1978, 332-340 orr.

Harira bueltatuz, gu hurrengo lerroetan Gasteizko Elizbarrutiaren aldizkariaren azterketara mugatuko gara, politika edo bestelako kontu orokorrak alde batera utzita (ondoriorik ere ez dugu aterako<sup>4</sup>), baina garbi dago Barbageroren euskararen inguruan usteak ez zirela bete, gure ikergaia den aldizkaria kontuan hartuta, behintzat<sup>5</sup>.

## 2. GAI NAGUSIAK XIX. MENDEAN: 1862-1900

### 2.1. Euskararen erabilpena elizkizunetan

#### 2.1.1. *Sarrera*

Aurreko artikuluan (hots, «Euskara eta euskal kultura Gasteizko Elizbarrutiaren aldizkarian (1901-1950)» izenekoa) gai hori alde batera utzi genuen, izan ere, maiz errepikatzen ziren horri buruzko aipamenak Gotzaindegiko *Boletín Eclesiástico del Obispado de Vitoria* aldizkarian; artikulua honetarako, aldiz, topatutako aipamenak jaso ditugu, beste gai batzuen faltan. Jakina, euskararen erabilpena elizkizunetan ezin dugu mugatu beherago aipatutako kasuetara, hau da, euskara askoz gehiagotan erabiliko zen, baina hurrengoak dira aldizkariko orrialdeetan euskarari edo hizkuntzari buruz beren beregi idatzitakoak.

<sup>4</sup> Ikuspegi orokorra izateko, ikusi Euskaltzaindiaren VIII. Jagon Jardunaldiak: «Eliza eta euskara Gasteizko Elizbarrutian» (*Euskera*, 49. liburukia, 2004-2)

<sup>5</sup> Konkordatuaren arabera gotzainak euskalduna izan behar zuen (hala esaten zuen 1861eko udazkenean Erromatik etorritako ezarpen bulak); hori ez zen bete; are gehiago, hurrengo gotzainak urte askotan espainolak eta Espainiazaleak izan ziren.

Elizaren osagai euskaltzaleari dagokionez, Coro Rubio Pobesen *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* (Biblioteca Nueva argitaletxea, Madril, 2003) lanaren hirugarren zatia kontsultatzeko modukoa da. Coro Rubiok hurrengoa dio Justo Barbageroren idazkiari buruz: «los [argudioak] más interesantes eran aquellos de tipo político que hablaban de los peligros que se corría con esta novedad que potenciaba la distinción comunitaria del país. Entre esos peligros señalaba la revitalización del euskera, del idioma privativo del país, destruyendo los esfuerzos hechos por unificar la lengua en toda la Corona» (*Ibidem*, 396. or.).

### 2.1.2. *Misioak*

- Hasteko, nire herriari buruzko aipamen bat datorkigu. Aldizkariak Elorrion izandako misioen berri ematen du. Misioak jesuiten eskutik egin ziren eta erdara ere erabili zen, hain zuen ere «Guardia Civil» eta «carabineros» izenekoek eskatuta, bestela ez zuten ezer aditzen eta (1864: 18. zk. 154-157. or.). Horra hor herria erdalduntzeko bidea.

- Hurrengo urtean Nabarnizko kapilauak eskerrak ematen zituen aldizkariaren bitartez; misioetan bi hizlari euskaldun izan ziren: José Antonio de Uriarte («conocido en la república de las letras con el dictado de “*vascófilo*”») eta Manuel de Ereñozaga (1865: 26. zk. 293-295. or.).

- Misio euskaldunak Lekeition (1877: 16. zk. 124. or.).

- Misioak Mungian, «Salieron a recibirlos cantando letrillas en vascuence» (1882: 31. zk. 242. or.).

- Misioa Irunen; aipamen kurioa (edo erratua, hainbaten): «Teniendo también en cuenta que la inmensa mayoría no posee el lenguaje vascongado, se resolvió que las tres primeras funciones se dedicaran a éstos y el cuarto sermón en castellano» (1883: 1. zk. 5. or.).

- Misioak Algortan; euskararen erabilpena aipatzen da (1887: 13. zk. 115-116. or.).

- Misioa Laurgain; kapilauak aldizkarira bidalitako gutunean datu batzuk ematen ditu: hizlari euskaldunak jesuitak ziren, neskato batek “*Atoz pecataria*” abestu zuen eta «Se expresó con fácil palabra el RP Legarra en castizo vascuence» (1894: 13. zk. 348. or.).

### 2.1.2. *Erromesaldiak*

- Erromesaldia Urduñan: «El R. P. Echevarria predicaba en vascuence a los pueblos de Orozco, Ceberio y demás» (1883: 15. zk. 120. or.).

- Erromesaldia Larrean; kapilauak aldizkarira bidalitako idazkian hurrengo dio: «En la peregrinación al convento de Larrea, los peregrinos iban cantando un himno vascongado. Posteriormente ocuparon la Cátedra el P. Costancio en castellano y el P. Justo en bascuence. Más tarde volvió predicar el P. Justo en bascuence» (1896: 14. zk. 230-231. or.).

- Loiolara egindako erromesaldia; bildutakoek “*Atoz peccataria*” abestu zuten (1897: 6. zk. 116. or.).

### **2.1.3. Erromara egindako erromesaldia (1894. urtean)**

Aita Santuaren eta Elizaren hiriburura egindako erromesaldi horren inguruan datu asko daude Gotzaindegiko aldizkarian; gure gaiari dagokionez, honako aipamen hauek jaso ditugu:

- Erromesaldiaren irteera unean euskaldunek kantuka alde egin zuten; besteak beste, “*Gernikako Arbola*” abestu zuten (1894: 7. zk. 196. or.).

- Bidaian ere, kantuka ibili ziren, esaterako San Ignazioren martxa euskaraz abestu zuten (1894: 7. zk. 198. or.).

- Erromako egonaldia buruz, berriz, honakoa nabarmentzen du idazleak: «Llegados a Roma, por todas partes se oía hablar en español, pues aun los catalanes y vascongados como obedeciendo a una consigna patriótica, preferían la lengua de Castilla a las de sus regiones respectivas» (1894: 7. zk. 203. or.).

- Geroago, “*Gernikako Arbola*” kantatu zuten (1894: 7. zk. 205. or.).

- Bidaiaren ostean Gasteizko gotzainak Leon XIII.a Aita Santuari mezua bidali zion, gaztelaniaz eta euskaraz; testu hau aurrerago aipatuko dugu, 2.4. azpipuntuan.

### **2.1.4. Bestelako ekitaldiak**

Atal honetan misioak eta erromesaldiak ez diren elizkizunak aipatuko ditugu, euskararen inguruan daturen bat jasotzen badute, behinik behin.

- Gotzainaren bisitaldia Errexilera; bertakoek bandera bat jarri zuten lema honekin: *“Poztu, Errexildarrac-gaurco egunean-gu-re Obispo Jauna-emen ecustean”* (1877: 20. zk. 156. or.).

- Arantzatzuko Amaren koroatzea ospatzeko jaien egitaraua; programa horretako hainbat ekitaldi (literatura lehiaketa edota sermoiak) euskaraz gauzatuko dira, bizkaieraz edo gipuzkeraz (1885: 21. zk. 166. or.).

- Jaia Seminarioan («Velada Literaria-Musical en el Seminario Conciliar de Vitoria»); egitarauan euskarazko hainbat ekitaldi iragartzen dira (1887: 13. zk. 109-113. or.).

- San Tomas Akinokoaren omenezko jaia («actos de culto religioso y honores literarios»): hitzaldi bat euskaraz izango da (1888: 8. zk. 71-72. or.).

- San Ignazio Loiolakoa omentzeko elizkizunak: mezak euskaraz (1888: 20. zk. 192-193. or.).

- San Tomas Akinokoaren omenezko jaia Seminarioan, gogo aipatutako ekitaldia, beste ikasturte batean errepikatuta: euskaraz hainbat ekitaldi (1892: 5. zk. 106-108. or.).

- Zehaztu gabeko elizkizunak Bergaran; euskarazko predikua Aita Manuel Umerezen eskutik (1897: 2. zk. 35. or.).

- Jaialdiak Begoñako Santutegian; euskaraz: meza errezatua eta meza errezatua sermoiarekin (1900: 14. zk. 243-246. or.).

## **2.2. Predikazioaren eta kantuen inguruko arauak, hizkuntzari dagokionez**

Atal honetan aldizkarian argitaratutako pasarte pare bat jaso ditugu. Bietan euskararen zeresana elizkizunetan argitzen zaigu:

- Bertako hizkuntzan («lengua nativa») predikatzeko bete-beharra gogorarazten da (1881: 27. zk. 214. or.).

- Elizkizunetan erabilitako musikaren inguruan dauden arauak: «art. 7.º - El idioma que ha de usarse en los cánticos



durante las funciones solemnes estrictamente litúrgicas sea la lengua propia del rito» eta «art. 8.º - En las demás funciones se podrá usar la lengua vulgar, tomando las letras de composiciones devotas y aprobadas» (1894: 19. zk. 452-455. or.).

### 2.3. Euskarazko katixima idatzia

Ikertutako urteetan euskarazko katixima oso gai garrantzitsua izan zen Gipuzkoa aldean. Kontua da sasoi horretan itzulpenaren egokitasunaz eztabaidak izan zirela: gehien erabilitako testua ez zen garbizalea eta testu horren kontrako eta aldeko ahaleginak egin ziren<sup>6</sup>.

Gotzaindegiaren aldizkarian aipamen batzuk datoz gai horren gainean:

- Asteteren katixima berrargitaratu egin da; horren berri ematen da eta liburuan datorren lizentzia jasotzen da (1867: 215-216. or.).

- Euskarazko katiximaren berrargitalpena. Horren kariaz, apaiz gipuzkoar batzuk eskaera bat egiten dute; horren inguruko arazoak (1867: 47. zk. 744. or.).

- Aita Asteteren katiximaren gipuzkerazko testuaren gaineko aipamena (1867: 51. zk. 798. or.).

- Gotzainaren pastoralak. Bertan adierazten da Gipuzkoan oso zabaldua dagoela Aita Asteteren euskarazko itzulpen bat eta itzulpen hori lizentzia edo baimenik gabe argitaratzen dela. Gainera, gotzainak dio itzulpena akatsez josita dagoela. Hori guztia kontuan hartuta, gotzainak bertsio zuzendua iragarri eta aurreko argitalpen guztiak debekatu zituen (1879: 11. zk. 77. or.).

---

<sup>6</sup> Coro Rubioren hitzetan: «La más utilizada era la traducción realizada por Juan Irazusta, rector de Hernialde, de la que se hicieron sucesivas reimpressiones incluso sin solicitar la necesaria licencia del Diocesano. Pero al parecer no era una traducción al gusto de todos los clérigos, al menos de los más puristas con la lengua» (*Ibidem*, 446-448 or.).

## 2.4. Euskarazko testuak aldizkarian bertan

Aurreko artikuluan ikusi genuenez, ia ez dago euskaraz idatzitako testurik Gotzaindegiko aldizkari ofizialaren orrialdeetan, 1923tik aurrera gotzainen gutun-pastoralak eta zirkular elebidunak agertu arte<sup>7</sup>. Hauek dira hemeretzigarren gizaldiari dagozkion zenbakietan aurkitutakoak:

- Aita Santuak 1866ko abenduaren 22an ezarritako otoitza gipuzkerara itzulita<sup>8</sup>: “*Oracio Devotoa*”; aurkezpen modura hurrengoa dator: «Un ilustrado Sr. Cura Párroco de Guipúzcoa se ha dignado ocuparse de la traducción al vascuence de la *Oración* que, dictada por Su Santidad, vino a honrar las columnas de nuestro Boletín del 22 de Diciembre del año anterior, pág. 775. Vean nuestros lectores este concienzudo trabajo, que nos ha parecido muy bueno». Otoitzak ehun eguneko indulgentzia eskaintzen du. (1867: 1. zk. 7. or.). Aldizkariaren hurrengo orrialdean esaten denez (1867: 1. zk. 8. or.), otoitz hori eta beste bat orri solte batean batu dira eta orri hori salgai dago aldizkariaren inprimategian: «La oración dictada por Su Santidad y traducida al vascuence, que principia *Inguraezazu*, y la que insertamos en el presente número, se hallan de venta en la imprenta de este Boletín al ínfimo precio de dos reales el ciento».

- Aita Santuaren otoitza, bizkaieraz; aurkezpen modura hurrengoa dator: «Un ilustrado Sr. Eclesiástico de Vizcaya se ha servido remitirnos, traducida al vascuence vizcaíno, la oración

<sup>7</sup> Aurreko artikuluan bezala, Nafarroako egoera aipatuko dugu: 1862an (Gasteizkoa bezala) sortutako aldizkarian ez dago euskarazko testurik XIX. mendeko aleetan (Blanca Urmeneta: *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones: 1876-1919*, Nafarroakoa Gobernua, Iruñea, 1996, 116. orr.; Joxemiel Bidador: *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra*, Pamiela, Iruñea, 2004, 184. orr.; azken horrek dio «El *Boletín Oficial Eclesiástico del Obispado de Pamplona* fue creado en 1862 bajo el mandato de Uriz Labairu, y en sus primeros cuarenta años de vida no publicó un solo texto en euskera».

<sup>8</sup> Otoitza euskaraz, baita ere, *Seminario Católico Vasco-Navarron*, 1866ko abenduaren 8an.

que en números anteriores hemos publicado así en castellano como en vascuence guipuzcoano» (1867: 3. zk. 37. or.); hala ere, aurkezlea erratuta dago, izan ere, bizkaierazko testua ez dator bat aldizkarian aurretik agertutako testuarekin; bizkaieraz datorrena orri soltean agertutako *Inguraezazu* horren kidea da (honetara hasten da: «Inguratu eguizu...». Otoitzak berrogeita hamar eguneko indulgentzia eskaintzen du.

- Pio IX.a Aita Santuari debozio-testu elebiduna, Erromara egindako erromesaldiaren ostean; bi zutabetan dator (1894: 210-212. or.). Jarraian mezu horri egindako erantzuna jasotzen da, Aita Santuarena, gaztelania hutsez idatzita.

## 2.5. Euskarazko testuen aipamenak

Aldizkarian euskarazko testu batzuen inguruan hitz egiten da (testua bertan jaso gabe):

- *Bula Inefabilis* delako testuaren euskal itzulpenaz (1865: 4. zk. 51-54 eta 58. or.).

- *Instrucción sobre el jubileo* delako testuaz; bertan esaten denez, «El excelente escrito que sobre el mismo asunto ha compuesto en vascuence el Sr. D. Manuel Antonio de Antía, rector de Urnieta» (1865: 23. zk. 272. or.).

## 2.6. Liburuen publizitatea

Aurreko artikuluan bezala, oraingo honetan ere euskarazko liburuen publizitatea lokalizatzen saiatu gara. Orduan esaten genuen moduan, Gotzaindegiko aldizkarian maiz agertzen ziren liburuen iragarkiak. Publizitate gehiena erdarazko liburuen ingurukoa zen, baina noizean behin euskal liburuak iragartzen ziren. Hona hemen topatutako aipamenak:

- Katixima baten iragarkia: “*Cristauen dotriñaco catecismoa apaiz euzcaldun batec argitara ematen duena*”, Juan José de Galarmendi idazlearena; gipuzkeraz idatzita dago (1864: 50. zk. 408. or.).

- Liburu hau izenburuagatik jaso dugu: *“Manual vascongado: contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos según el ritual Romano, con las respectivas exhortaciones para cada uno de ellos y la práctica de ayudar a bien morir”* (1865: 32. zk. 352. or.).

- Hau ere ez da euskaraz, baina jaso egin dugu: *“Semanario Católico Vasco-Navarro; doctrinal literario, histórico, monumental, bibliográfico y de intereses generales de la Península”*, Vicente de Manterolaren zuzendaritzapean (1866: 43. zk. 660. or.); artikulu honetan, aurrerago, *Seminario* agertuko zaigu, euskal testu bat argitaratu zuen eta.

- Otoitz baten iragarkia: «Se halla a la venta la oración dictada por su Santidad y traducida al vascuence» (1867: 1. zk. 8. or.).

- *“Catecismo del P. Astete”* delakoaren edizioa, gipuzkeraz jarrita (1867: 214. zk. 215. or.).

- *“Vía crucis de San Leonardo de Porto Mauricio”*, el más tierno y lleno de unción de los que se conocen. Traducido al vascuence por el presbítero D. José Tomas de Eleizalde» (1872: 8. zk. 64. or.).

- *“Cristau Dotriñaco Catecismoa”* de D. Juan José Galarmendia eta Irubarren, Donostiac apaizac arguitara emana Vitoriaco Obispo Jaunaren baimenarequin» (1877: 23. zk. 184. or.).

- *“Cristauaren gordairua, edo arima salvatzezo sinistu ta eguin bear dan gucia hitz bitan”*; liburu honen itzulpena da: *“El tesoro cristiano”*. (1879: 10. zk. 75. or.).

- *“Salvacioco aingura”*. Esmerada traducción al vascuence del libro de P. Mach, *Ancora de Salvación*» (1884: 9. zk. 74. or.).

- Badaezpadan, lan bati buruzko informazioa jaso dugu; al-dizkariak dio: *“Mes de María de Ntra. Sra. de Lourdes”* obra de Enrique Lasserre y traducida por el Ilmo. Ramón María de Araiztegui» (1894: 7. zk. 237. or.); Araiztegi euskal idazlea izan zen baina Lasserre frantsesaren lana gaztelaniara bakarrik itzuli omen zuen.

- Hau ere ez da euskaraz, baina jaso egin dugu gure hizkuntzarekin lotura zuzena duelako: «Obra verdaderamente nueva e importantísima para los amantes de las glorias vasconavarras. “*Catálogo de obras euskaras*” o catálogo general cronológico de las obras impresas referentes a las provincias de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra, a sus hijos y a la lengua euskara o escritos en ella, formado en vista de los trabajos de los señores D. Antonio Gallardo, Brunet, Muñoz y Remero, Allende Salazar, J. Vinson y otros, con un índice de autores por orden alfabético y notas correspondientes, bibliográficas y biográficas por Don Genaro de Sorraín. El prologo a cargo de Juan Vicente de Araquistain» (1898: 21. zk. 464. or.).

## **2.7. Beste gorabehera batzuk**

Atal honetan aurrekoetan sartzen ez diren kontu pare bat bildu ditugu.

- Hasteko, testu interesgarri bat: Gipuzkoako apaiz batzuen mezua («Carta-circular»); apaiz horiek talde bat osatzen dute erlijio liburuak zabaltzeko; testuan euskarari garrantzi berezia ematen zaio (1864: 50. zk. 407-408. or.).

- Beste kontu bat: protestanteek euskarara itzulitako materialak. Gotzainaren testua dago horri buruz: gotzainak protestanteek («sociedad bíblica protestante») itzulitako liburu eta foiletan kontra egiteko agintzen die parrokoiei; material horiek batu eta suntsitzeko agindua dator, hain zuzen (1872: 14. zk. 105. or.). Horren ildokoa dugu baita ere 1885. urteko Garizumako Gotzainaren Gutuna (protestanteen euskarazko Bibliaren aurka).

## **2.8. Kontu politiko bat: Eliza eta Estatu aurrez aurre (eta euskara arazoaren erdian)**

Artikuluaren bukaerarako gai mamitsu bat itxi dugu: 1880. urtean Estatuaren eta Elizaren artean gatazka sortu zen; kontua da eztabaida horren erdian gure hizkuntza agertu zela, euskara eta politika nahasiz.

Ignacio Villotaren hitzetan, bigarren karlistaldiaren ondoren: «En el campo eclesial podemos adivinar a una inmensa mayoría del clero diocesano que, leal al carlismo vencido, acepta o se resigna por pura obediencia a reconocer a unos obispos que han recibido jubilosos a Alfonso XII. [...] Pronto ciertos sectores del clero, parece que desde el púlpito, comenzaron a atacar al nuevo régimen desde perspectivas tradicionalistas»<sup>9</sup>. Elizaren jarrera edo, hobeto esanda, Elizaren ordezkari batzuen jardueraz zuen gogoko Madrilgo gobernuak, eta auzi horretan gertaera entzutetsua izan zen gure inguruan, Lekeition, hain zuzen ere.

Dirudenez, abadeen azalpenak eta sermoiak pulpitutik ez ziren Madrilgo gobernuaren ildokoak eta Estatutuko agintariak neurriak hartu zituzten; horren adierazpena da Estatutuko aldizkari ofizialean (1880ko irailaren 30eko alea<sup>10</sup>) argitaratutako agindua, euskarazko hitzaldiak ikertzeko: «El Gobierno de S.M. ha sabido con profundo sentimiento que algunos individuos pertenecientes al clero en las provincias de Guipúzcoa, Alava y Vizcaya olvidan a veces los sagrados deberes de su ministerio, y que prevalidos de la especialidad de la lengua vascongada, en que se les consiente dirigirse á los fieles, suelen hacer desde el púlpito exhortaciones con tendencias políticas contrarias á la Constitucion del Estado y á las leyes vigentes. [...] Partiendo de estas consideraciones, S. M. el Rey (Q.D.G.) se ha dignado a

<sup>9</sup> Ignacio Villota Elejalde: *La iglesia en la sociedad española y vasca contemporaneas*, Desclee de Brouwer, Bilbo, 1985, 168. or.

<sup>10</sup> Ez da hori Espainiako aldizkari ofizialean euskara beren beregi aipatzen duen lehenengo testua (ikus beherago); bai, aldiz, euskara modu orokorrean aipatzen duen lehenengoetarikoa; pena handia da euskara defendatzeko edo ikasteko izan beharrean, gure hizkuntza mehatxupean jartzeko izatea.

Lekeitio aipatu dugunez, adibide modura herri horren inguruko testu bat eka-rriko dugu, 1823koa, euskara modu positiboan aipatzen baitu: «En la villa de Lequeitio, puerto de mar en el señorío de Vizcaya, se halla vacante la plaza de médico. [...] Los pretendientes, que deberán poseer la lengua bascongada y ser afectos al Rey Nuestro Señor, dirijirán sus memoriales al Sr. alcalde D. Francisco Zabarain para fin de Julio»; *Gaceta de Madrid* (orduko BOE edo Estatuko Aldizkari Ofiziala), 1823ko uztailaren 17koa, 41. zk., 144. or.

disponer que desplegue V.S. el mayor celo para inquirir los casos en que por parte de los eclesiásticos de esa provincia en general, y señaladamente los oradores sagrados que prediquen en vasconce, lo mismo que los que prediquen en castellano, se delinca contra la Constitución ó las leyes del Reino. A los Gobernadores de las provincias de Guipúzcoa, Alava y Vizcaya.».

Hori dela eta, gotzainik ez zegoenez, kapitulu-bikarioak protesta egin zuen «en defensa de la libertad y la independencia de la Iglesia para el ministerio de la divina palabra, cuyo ejercicio se somete por dicha Circular a la inquisición y conocimiento de la potestad secular, con menoscabo de la inmunidad eclesiástica y del buen nombre del Clero vascongado» (1880: 36. zk. 241-243. or.).

Hala ere, arazoa ez zen hor bukatu eta Lekeitioko parrokoaren kasuan arazoak goia jo zuen: Madrilgo gobernuak, haserre bizia, Lekeitioko parrokoa bota zuen. Honela azaltzen da gertatutakoa Gotzaindegiaren aldizkarian: «Vino después la denuncia del Cura de Lequeitio, suponiéndose que en el sermón que publicó el día de la fiesta del Rosario había combatido la expresada Circular, sobre cuyo hecho la autoridad eclesiástica mandó practicar una información jurídica. Resultado de ella que nada dijo el predicador contra la referida Real orden, y que antes bien recomendó a sus feligreses el respeto a las disposiciones de la autoridad, como lo declaran bajo juramento todos los testigos, y lo confirma también una manifestación dle Clero d ela villa, que va unida a la misma información, el Vicario Capitular debió dictar y dictó auto de sobreseimiento».

Madrilgo agintariak, ostera, beste iritzi bat zuten eta horren ondorioz «fue acordada en Consejo de Ministros y se expidió una Real orden mandando que el Cura Arcipreste de Lequeitio trasladase inmediatamente su residencia fuera de la Diócesis de Vitoria», Gotzaindegiaren agerkariak berak dioenez.

*Cesar Gallastegi*

## JEAN ETXEPARE MEDIKUA DARWIN-EN URTEURRENETAN

### Urteurren bi

Charles Darwin (1809-1882) naturalista eta biologo ingelesa jaio zela 200 urte betetzen dira aurton. Beraz, une egokia date-ke Kepa Altonaga biologo eta zientzia-dibulgatzaile bizkaitarrak duela urte bi aurkezturiko *Etxepare, Aldudeko medikua* liburua (2003ko CAF-Elhuyar zientzia dibulgaziorako saria) berriro letren plazara ekartzeko; izan ere, Darwin bera dugu liburuak dituen zientziatzko ataletan aipamen gehien bereganatzen dituen pentsalaria. Etxepare medikua eta Darwin biologia, loturik ikusten ditu saiakeraren egileak: “Jakingura sortu zitzaidan eta, aukera izan nuen lehenengoan, Etxepare irakurtzen hasi nintzen. Eta deskubritu nuen oso idazle interesantea zela, gainera –nire alorretik– ikusi nuelako gizon eboluzionista izan zela eta Darwinen ideiak euskararen mundura sartzen saiatu zela, kontrabandoz bezala” (*DV*, 2007-03-12).

Bide beretik, azpimarra dezagun Darwin-ek duela 150 urte, 1859an, eman zuela argitara bere libururik ezagunena: *The origin of species*. Liburuaren inguruan sorturiko eztaizak behartuko zukeen Etxepare *kontrabandoz bezala*-edo hitz egitera. Izan ere, Altonagak berak dioskunez: “*Espezieen jatorriaz* liburuaren argitarapenak polemika garratz luzea sortu zuen, maiz, arazo zientifikoak ukitu beharrean, teologiko eta politikoak eztabaidatzen zirelarik. Izan ere, hiru mende lehenago Kopernik-ek bezala, eztanda izugarria eragin zuen Charles Darwin-ek” (*Jakin*, 24, 1982).



Kepa Altonaga ezaguna da literatur genero honetan eginiko lanengatik. Aldizkari askotan (*Elbuiar, Jakin, Berba, Ekaia...*) argitaratu ditu bere artikuluak eta ikerketak; eta esku artean dugun obraz gain, 1998an *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* eta 2001ean *Armand David, pandaren aita* argitaratu zituen, bitzuak CAF-Elhuyar saria irabazi zutenak 1996an eta 1999an, hurrenez hurren. Altonagak biziki maite du genero hau: bateko, zientziaren inguruko informazio zehatza era atsegin eta ulergarrian eman daitekeelako; eta besteko, euskal mundua –literatura, kazetaritza, hizkuntza...– ere txertatu daitekeelako bertan; izan ere, gurutzatze horretatik dibulgazio lan erakargarriak sor ditzakete zientzia eta kultura maite dituztenek.

### **Zumaia gune magikoa**

Liburuaren amaieran damaigu egileak obraren sorreran dagoen ideia nagusia: “Zumaia, buruan bueltaka darabildan ideian, gune magikoa da –*magical place*–, dinosauroen suntsipena eta Etxepare medikuaren bizitza elkarrekin lotu eta saiakera zientifiko bat idazteko. Jakina, begien aurrean duzun saiakerari ekiteko” (260. or.). Izan ere, 2001. urtearen amaieran, Zumaia aldera joan zen egilea Stephen Jay Gould biologo eta idazle amerikarrarekin hango itsaslabarrak ikustera, baina eguraldi kaxkarrarengatik ezin izan zuten pentsatutakoa burutu. Edozelan ere, idazle euskalduna amerikarraren *Dinosaur in a haystack* (1995) saiakeraz gogoratuko da, liburu horretako kapitulu esanguratsu bat Zumaia eta Miarritzeko K/T (Kretazeo-Tertziario) mugei buruzkoa da-eta.

Bide beretik, Peter Douglas Ward paleontologo eta zientzia-idazle amerikarra sei alditan egon zen Zumaian lanean, eta ammoniteen gainean eginiko ikerketa sakonak eragina izango du euskaldunaren liburu-proiektuan. Baina, zientziaren inguruan ez eze, euskal kultura eta literaturaren inguruan ere, behin baino gehiagotan agertzen zaigu Zumaia Altonagaren

saiakeran: bertan idatzi zituen Txomin Agirrek bere obra nagusiak, han gertatu zen R. M. Azkue eta Txomin Agirrereren arteko enkontru probidentziala... Azpimarragarria da, era berean, saiakeraren azken kapituluak “Zumaian” duela izena, Jean Etxeparek *Beribilez* liburuan dioenez, “ditaken herririk begikoena”. 2007ko ekainean, “Zumaia Workshop Paleocene 2007” kongresuan, mundu zabaleko 30 adituk *Paleozonoko estratotipo* izendapena eman zieten Zumaiaiko itsaslabarrei; eta, oraintsu, 2009ko otsailean, Eusko Jaurlaritzak *Biotopo babestu* izendatu ditu.

Stephen Jay Gould idazlea 2001eko abenduan, Euskal Idazleen Elkarteak gonbidatuta, etorri zen Euskal Herrira, Eibarren burutu zen *Prosa Zientifikoari buruzko I. Biltzarra* izeneko to-paketan parte hartzera. Handik denbora laburrera, 2002ko maiatzaren 20an, hil zen. Nabaria da liburu honetan Altonagak zientzialari amerikarrari aitortzen dion txera berezia eta estimu handia. Stephen King idazleak Gould-i opetsitako esaldi bat bere eginez, honako hau diosku idazle bizkaitarrak: “Neu ere pozik nago nire bizitzak haren bizitza ikutu duelako, eta damudut haren argia joan dela. Orain Gould-en liburuak nire le-roarteetaraino transmutatu dira” (261. or.). Esaldi adierazkorrak, zinez.

## **Kulturaz eta zientziaz**

Baina zientziari buruzko informazioaz gain, liburuak protagonista nagusi bat dauka: Jean Etxepare Bidegorri medikua (1877-1935). Etxepare Atlantikoaren bestaldean jaio zen, Argentinako Mar Chiquita herrian, hain zuzen ere. Edozelan ere, umetxoia zelarik Ipar Euskal Herrira itzuli zen familiarekin, Lerne herria, hain zuzen ere. Medikuntza ikasi zuen Bordelen eta 1901ean doktorego tesia defendatu zuen (*Quelques remarques sur le joueur de pelote*), bertan pilotarien lesioen nondik norakoak aztertu zituela. Gaztetan hasi zen *Eskualduna* aldizkarian idazten eta artikulu sorta ederra argitaratzeaz gain, libu-

ru bi eskaini zizkion euskal irakurleari: *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931). Garaiko idazle laiko bakarrenetarikoa izan zen Jean Etxepare euskal Parnasoan

Etxeparek hogeita hamar urtez ia astero idatzi izan zuen euskaraz, aldizkarietan-eta. 1914tik 1918ra Gerla Handian mediku zegoelarik, gerra-kronikak argitaratu zituen *Eskualduna* aldizkarian. Handik denbora laburrera, 1919an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. “Euskalzaleen Biltzarra” erakundeko lehendakaria eta *Gure Herria* aldizkariaren buruorde eta idazkari nagusia izan zen. Idazle berritzailea: “Inoiz pentsatu izan dut Etxepare zuzenean guretzat idazten aritu zela” (240. or.) –diosku egileak–. Behe Nafarroako Aldude herri txikian eman zuen bere mediku-bizitza ia osoa eta Kanbon hil zen 1935ean. Piarres Xarritton idazle eta euskaltzain lapurtarrak bost tomotan –2.000 orrialde inguru– bildu ditu haren lan guztiak: *Jean Etxepare mirikuaren idazlanak* (I. Euskal gaiak; II. Mediku solas; III. Kazetaritza; IV. Kazetaritza; eta, V. Euskal Herriko bizia). Xarrittonek Etxepare medikua itzal handiko pertsonatzat ez ezik, intelektualtzat ere jotzen du: “Inguramenean, euskaltzaleen artean, errespetu handiz hartua zen eta miretsia. Nire ustez izan dugun intelektual bakarretarik izan da Etxepare. Politikan baino gehiago metafisikan. Norbait dugu, kategoria duena” (*Jakin*, 97, 1996).

Liburuko protagonista nagusiari bagagozkio, egilea ez da konformatzen ohiko biografia bat egitearekin. Aitzitik, kontuan hartuta Etxepare Argentinan jaio zela, euskal emigrazioaren gaineko sarrera interesgarri bat egingo du, pertsonaia jaio zeneko ingurua eta bertara joandako euskaldunen nondik norakoak aztertzeko. Horren guztiaren lekuko da lehenengo kapitulu osoa. Gerora, 1883an, Euskal Herrira etortzean, *Juancito* Etxeparek, *Jean* bihurtuta, aukera emango dio idazleari Ipar Euskal Herriko –Hegoaldea ere sarri aipatuko du– bizitza kulturalaren berri emateko: Larresoroko Seminarioa, *Buruxkak* liburuaren inguruko gorabeherak, 14ko Gerla eta Ipar Euskal

Herri zinezkoari buruzko hausnarketak, Euskaltzaindia, Hendaiia eta Hondarribiako kongresuak, Eskualzaleen Biltzarrak...

Pertsonaiei dagokienez, informazio zinez jakingarria agertzen da liburuan –argazki bitxi askorekin hornituta–, galeria interesgarri ere interesgarria osaturik: Mixel Garoikitx, J. M. Iparagirre, Pierre Loti, Pierres Buruzain, Albert Constantin, Armand David, Sebero Altube, R. M. Azkue, Arnaud Abadia... Hain ezagunak ez diren pertsonaia asko eta asko ere tartekatzen ditu Altonagak (Graxien Istilart, Joanes Xabaño, Luis Ligetx, Pete Agerreberri...), 1883-1935 urteetako euskal kulturaren kronika zehatza emanik.

Zientzia arloari lotzen bagatzaizkio, hainbat gai jorratzen ditu Altonagak saiakeran: Hego Ameriketako fauna, Darwin eta megafaunaren triskantza handia, landaretza, munduaren sorrera, Lord Kelvin eta Darwin, Ernst Haeckel-en eragina mende hasierako biologian, dinosauroen desagertzearen inguruko teoriak, Gubbio (Italia) eta Zumaiako estratuak eta ikerketak... Kasuon ere, orri-ertzetatik informazio osagarria lagungarria da oso: *cortaderia selloana* landarea, *eudia pavonia* tximeleta, ammoniteak... Zientzialari- eta pentsalari-zerrenda ere, azpimarragarria dugu: Emile Durkheim, Léopold de Folin, F. W. Nietzsche, Henri Bergson, Ernst Haeckel, Stanley Miller, Stephen Jay Gould, Berkeley-ko taldeko kideak (Luis Alvarez –1968an Fisika Nobel sariduna–, Walter Alvarez, Frank Asaro eta Helen Michel), Peter D. Ward...

Etxepareren inguruko Parnaso txikia eta zientzia eta ikerketaren mundu zabala etengabe gurutzatzen dira liburuan, ehundu beharreko oihalaren zuta-zeharrak bailiran. Jean Etxepareren umetako (Argentinako) oroitzapenetan agertzen diren *bizkatxak* (karraskariak) eta *zorriñoak* (mustelidoak) deskribatu eta gero (31-32. or.), Darwin-en mundura pasatuko da kontaktuzuna: “Bizkatxei buruz dihardugularik, ezin dut aipatu barik utzi Charles Darwin-ek *Beagle* belauntzian egindako periploaren liburuan kontatu zigun anekdota...” (32. or.). Geroago,

anekdotatik “Darwin eta megafaunaren triskantza handia” atalera pasatzen delarik, liburuko bigarren ardatz nagusiari, zientzia arloari, helduko dio bete-betean.

Hortik aurrera, zientzia eta euskal literatura, ikerketa eta euskal kultura ondo ere ondo bilbatuta agertuko zaizkio irakurleari. Liburuaren amaieran, megafaunaren triskantza handiaren eragile nagusia bat barik, hiru-edo izan zirela zehaztuko digute ikerlariak: “Itxuratu zaigun irudiaren arabera, ez dago kausa bakar bat espezie-desagerpen masiboa azal dezakeena” (285. or.). Irakurleak hortxe ikusiko du hipotesien mataza, zelanbait, argituta. Etxepareren kasuan, ordea, Kaliforniara joandako Pete Agerreberri zuberotar meatzari bakarti eta gogorra metaforatzat harturik, Altonagak itaun bat jartzen du Aldudeko medikuaren ezpainetan liburua amaitzeko: “Alferrik izan al da urrearen atzetik ibili behar hau?” (291. or.).

Gaurko talaiatik begiratuta ezezkoa litzateke erantzuna, Arnaud Abadia Larresoroko bere irakasleak markaturiko ildoari jarraiturik, aitzindaria izan baitzen Aldudeko medikua prosa zientifikoa, eta bide-urratzailea ere bai. Egindakoa, beraz, ez zen alferrik izan, euskal kulturaren onerako eta euskaldunon mesederako baino.

## **Euskara ekumenikoa, hibridismo dialektala**

Kepa Altonagak bere literaturan ekumenismoa praktikatzen duela esan dezakegu, generoak eta erregistroak era orekatuan erabiltzen ditu-eta. Hizkuntzari dagokionez ere, arrazoi pragmatikoak lehenetsita –Arnaud Abadiak eta Jean Etxeparek bide horixe heldu zioten–, joera hori begitantzen zaio operatiboen: “Oroz gain, nik neuk, euskara ekumenikoaren aldeko joera argia berreskuratuko nuke Etxepareren hizkuntza-eredutik” (267. or.). Izan ere, populismoa eta purismoa gaingiduta, plebifikazioa izan daiteke irteera egokia zientzia-testu ulergarri eta maila onekoak lortu ahal izateko –plebifikazioa termino kanonikoen ordain arruntak erabiltzeari deritzo–. Joera horren adierazleak dira,

hain zuzen, Altonagak gehien maite dituen zientzia-idazleak: “Alegia, eredu plebifikatzaileak malgutasun handia opesten du berez, eta, berorretatik abiatuta esku egokiek orrialde bikainak ondu dituzte ingelesez, Stephen Jay Gould-ek eta David Quammen-ek bezala, eredu plebifikatzaile hori zeinek bere erara oratzen –eta orhatzen– badu ere” (258. or.).

Aurreko liburuetako estiloa dela-eta, Bernardo Atxagak: “Altonaga biologoak ederki idatzi du euskaraz pandari buruz” (“Hitzaldi baten hondarrak”) esan bazuen ere, Iban Zaldúa, 2006ko Euskadi saria irabazitako idazlea, urrunago doa: “Edonola ere, Altonagaren idazteko modu bereziak asko zor die, egileak aitortzen duen bezala, D. Quammen eta S. Jay Gould zientzialarien dibulgazio lanei; nik Gouldenak ezagutzen ditut, eta zalantzarik gabe esan dezaket Altonagarenak ez daudela estatubatuarraren lanen mailaren azpitik” (*Egunkaria*, 2002-01-12).

Euskara batua eta euskalkiei dagokienez, Altonaga *hibridismo dialektala*-ren alde agertzen da bete-betean. Terminoa erabili zuen lehena Georges Lacombe dialektologo frantsesa izan zen, Hiriart-Urrutik erabiltzen zuen euskara *nahasia* kritikatzeko. Edozelan ere, hibridismo dialektal horixe da generoko euskal idazle aitzindariak –Arnaud Abadiak eta Jean Etxeparek berak– erabili izan zutena. Arrazoi praktikoez bultzatu zituzten idazleok eredu hibrido hori erabiltzera, eta kritikatu izan bada ere, abantaila handiak ikusten dizkio Altonagak berak ere eredu horri. Hori dela-eta, bizkaieraren ukitua ez ezik, Iparraldeko euskararen zipriztinak ere, sarri antzemango ditugu idazle bizkaitarraren euskara batu ederrean: *balandaze, uros, koiu, zernabi gisaz, beharleku, jin...*

Euskara batu pertsonal hori aipagai izan dute, zenbaitetan, idazle eta kritikoez. Ricardo Gomezek, *Folin markesa* liburuaz diharduela dioskunez, Altonagak “hiztegi ikaragarri aberatsa darabil, arina eta irakurgarria”. Hala ere, Gomezen ustetan, batzuetan “kolokialegia” begitandu dakioke irakurleari (*Hegats*, 1999-urria). Iñaki Irazabalbeitiak Gomezi beren-beregi zuzen-

dutako artikulu baten, beste komentario askoren artean, ekarpen dialektala azpimarratu zuen: "...ahalegin handia eta eskerzekerua egin baitu mendebaldeko euskararen hainbat forma eta joskera euskara batuaren korrante nagusian txertatzen" (*Hegats*, 2000-ekaina). *Armand David* liburua iruzkintzean, bide beretik joko du gorago aipatu dugun Iban Zaldia idazleak: "Euskara zehatz eta aberatsa darabil Altonagak, dotorea, literatura maila handikoa; hizkuntzari egiten dizkion ekarpenak eztabaidea ezin dira. (...) Altonagarena bezalako lanek (besteak beste) betiko adiskidetu naute mendebaldeko euskararekin".

Esan gabe doa, esku artean daukagun hirugarren liburu honetaz ere, antzeko komentarioak egin daitezkeena. Hori guztia egiteko baina, Altonagak ez du errazkeriara joko. Literatura sendoa eta artisauaren pazientziak harildutakoa da Leioako irakasleak landu ohi duena, betiere dokumentazio lan eskerga eginik.

*Etxepare, Aldudeko medikua* liburua zinez gomendagarria dugu zientzia eta euskal kultura, bitzuak, maite dituen ororentzat, saiakera honetan, Kepa Altonagak planteamendu sakon, serio, irakurgarri eta originala egiten baitu, bere generoan mugarrizko izan daitekeena. Edozelan ere, gure uste apalean, merezi baino oihartzun txikiagoa izan du liburuak kritikoen artean.

## **Liburu zaharrak, mundu berriak**

*Jean Etxepare Aldudeko medikua* liburuaren atarian agertzen den aipuan Robert Twigger idazle txekiarrek dioskunari atxikirik, zera esan dezakegu guk geuk ere: Altonagak ere biziki maite dituela bibliotekak eta artxiboak; Altonagarentzat ere luzaro ahaztuta egon diren liburu eta dokumentu horiek mundu berri baterako atea direla eta mundu berri horretan, Altonagak ere lerro arteetan edota aipu galduren baten leiho berriak aurkituko dituela, beste mundu batzuetarako sarbide berri izango direnak... Robert Twigger-ekin bat eginda, esan dezakegu Altonagak ere maite duela iraganari buruz, iraganerantz,

liburuek erakusten diguten bide magiko eta erakargarria, betiere zientziaren argiarekin hobeto antzeman eta atzeman deza-keguna.

Halandaze, liburu berrien zain geratzen gara Darwin-en jaiotzaren bigarren mendeurrena eta haren *The origin of species* liburuaren 150. urteurrena ospatzen ari garen honetan, Kepa Altonagak topatuko du-eta zientzian eta euskal kulturatan zertan sakondua eta zer dibulgatua. Irakurleok eskertu egingo diogu.

*Iñaki Sarriugarte Irigoien*



**Mendebalde Kultur Elkarteen jardunaldiak**  
**TRANSMISINOA ETA ERABILEREA**  
**2009-V-8/9**

## **0. Zenbait gogoeta**

Urteroko ohiturari jarraituz Mendebalde Kultur Elkartek jardunaldi oso interesgarriak antolatu zituen Bilbon aurtengo maiatzaren 8an eta 9an.

Euskal hizkuntzaz bere osotasunean, eta bereziki euskara batuari Euskal Herriko Mendebaldeko euskarak, bizkaiera ize-naz ezagutzen denak, eskain diezaiokeen ondarea ikertzen eta bultzatzen diharduen Kultur Elkartek honek, bere XIII. jardunaldian gaur egun pil-pilean ditugun gaiak jorratu zuen, Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzako aretoan.

Aurtengo honetan *Transmisinoa eta erabilerea* lotuz hainbat gogoeta eder eskaini zizkigun, batez ere euskararen bizitza eta gure gaur egungo gizartearen bizitza ezin direla bananduta aztertu gogora ekarriz, eta etorkizunera begira euskarak bizirik irauteko egin beharreko ibilbideari buruzko hainbat zertzelada aztertuz.

Jardunaldi horietan hor-hemenka euskara sustatzeko egiten ari diren saio eta ahaleginak, nahiz gizarte modernoaren erronkak aurrez aurre jartzerakoan, gogoeta hutsetatik praktikara

jauzi eginez, euskararen egungo egoera eta etorkizuna finkatzeko, zer nolako garrantzia duen transmisioak eta eguneroko erabilerak nabarmendu nahi izan zen batez ere.

Ikerketa soziolinguistikoeek euskaldunon kopurua lurraldez lurralde ugaritu dela eta beraren ezagupen maila hainbatean hedatu dela nabarmentzen duten une berean, euskara orain arte oso indartsu izan den Euskal Herriko zenbait eskualdetan nabarmenki atzeraka ari dela ere adierazten digute.

Eta hori ez bakarrik egoera larria bizi duen Iparraldean. Mendeetan zehar bizirik iraun duen beste hainbat tokitan ere geroago eta apalagoa da euskararen erabilera batez ere gazteen artean. Hori horrela, eta gazte horiek inoiz baino alfabetatutagoak direla kontuan izanik, -gehienak ikastoletan eta irakas-kuntza euskaraz jasotakoak edo jasotzen ari direnak-, zer bait larria jasotzen ari dela gure artean ematen digu aditzera.

Horrela, bada, euskaldun berrien kopurua eta euskaldun alfabetatuen gorantz doan arren, euskararen erabilerak hainbat lekutan atzerantz egin du. Eta hori, ez bakarrik gazteek gazte-lera aukeratzen ari direlako, nagusiek ere euskara erabiltzea albora uzten ari direlako baino. Bestalde, zoritxarrez, galdu egin dira euskarak berez-berezkoak zituen hainbat transmisio gune, gaur egungo gizarteak izan dituen aldaketen ondorioz.

Gizarte globalizatu honek daraman abiada biziak larritasuna sortu digu, euskarari dagokionez. Sarri galdetzen diegu geure buruei ea gure euskarak irauterik lortuko duen. Lehenago *'gu bizi garen artean iraungo du'* esaten genuen, nolabait euskaraganako hartua genuen gure konpromiso sendoa aditzera emanez. Gazteagoak ginen eta, euskarak urteetan zehar jasadako errepresio garai gogorrek gaititu ondoren egoera behingoa aldatzeko itxaropentxoak ere bagenuen. Orain, ostera, hankapeko lurra mugitzen hasi zaigu eta kili-kolo ikusten dugu etorkizuna, lehen euskara hutsean bizi ziren hainbat pertsonak eta eskualdek erdararantz egin duten aldaketa ikusteak egonezina eta kezka sortu digularik barnean.

Euskaltzaindiak Martxoaren 25ean Arabako Aldundiko Areto nagusian egindako ekitaldirako eskatu zidaten txostenean, neure barruan gogoeta bat egin eta ingurukoak beste hainbeste egitera ekarri nahi izan nituen. Harako ekitaldirako eginiko lantxoaren sarreran, gain-gainetik izan bazen ere, euskarak Araban izan duen bilakaera historikoaren nondik norakoei begiratu nahi izan nien, historian zehar gertatutakoa aztertzeak etorkizunerako bideak argituko dizkigulakoan. Txosten orretan, handi-handika izan arren, Bertan zer-nolako harremanak izan diren gizartearen bilakaeraren eta hizkuntzaren bizitzaren artean nabarmendu nahi izan nuen, gaur egun ere antzerako zerbait gertatzen zaigulakotan:

*Guztiok dakigu, euskararen ibilbide historikoa Euskal Herriko Herrialde desberdinetan mamitu izan dela historian zehar; hainbatean lurralde bakoitzak dituen berezitasunek baldintzatuta. Hori horrela, Arabako euskararen historia ere bertako geografiak eta bilakaera historikoak baldintzatuta ageri zaigu. Toponimiak, gehiago edo gutxiago, euskara Arabako lurralde osoan zehar presente izan zela gogora ekartzen digu, bertako euskararen oinarritutako aztarnak toponimoetan agertzen zaizkigun neurrian.*

*Arabako herrien egituraketak ere, nire ustetan, eragin handia izan du euskararen bilakaeran. Araban, mendialdeetan izan ezik, Bizkaian eta Gipuzkoan eta Nafarroako iparraldean ez bezala, egitura administratiboa herri batuetan oinarritzen da. Biztanle-gune zehatzetan, elkarren ondoan pilaturiko etxez osaturiko herrietan eratua izanik, ez zaitu etxe-sakabanaketarik ageri.*

*Horrek, zer esanik ez, nire ustetan eragin handia izan du euskararen ibilbide historikoan, frogatu baitago herri handietan askoz ere azkarrago gertatzen direla aldaketa sozio-ekonomikoak, eta immigrazio handiak gertatzen direnean bizkuntzen ordezkapenak ere bai.*

*Nire ustetan egituraketa horrek eta Lurralde ia osoa lautada zabala izateak, eta bertatik antzinatik bide nagusiak igarotzeak, hainbatean ekarri izan dute gaztelania bedatzea eta euskara ordezkatzea.*

*Eragin hori hainbatean areagotu egin zen XVII-XVIII-XIX-XX. mendeetan, immigrazioaren eraginaz gainera, gaztelaniazko irakaskuntza indarrez ezarria izan zen adinean. Irakaskuntza horrek, gaztelania hutsean izaterakoan, lebedik egoera larrian zegoen euskara heriotza bidean jarri zuen. Guzti hori gogora ekartzeak etorkizuna eraikitzeke jarraitu beharreko bideen nondik norakoak egokiago asmatzeko argia ekarriko digula uste dut.*

Zertara dator, baina, aipamen hori? Egin-eginean ere, Men-debalde Kultur Elkartek antolatutako jardunaldietan gogoratu zitzaigun bezala, euskarak gaur egun, inguru soziopolitiko zehatz baten eragin zuzenak jasaten dituelarik, mundu globalizatu berri batean egin beharko diolako aurre bere etorkizunari. Guk nahi edo nahi ez, euskarak gaurko gizarte aldakor honetan jokatu du bere etorkizuna baldintzatuko duen partida. Lurralde, eskualde eta familiako mugetatik harantzagoko muga birtualetara egingo du jautzia.

Horrek argi erakusten digu, eta hau ere islatu nahi zen jardunaldi horretan, hizkuntzaren bizitza eta gizartearena barrubarrutik elkarloturik gauzatzen direla. Gizarte aldatzeko hizkuntzak egoera berrietara egokitzeko beharrezko bideak eta baliabideak jartzen ez baditu, heriotzarako bidea hartuko du.

Eta egokitze lan neketsu horretan, euskarak beste hizkuntza guztien kasuan gertatu izan den bezala, aldaketa sakonak jasan beharko ditu, bere bizitza-gunea goitik behera aldatuko zaiolako. Oinarriak nekazaritza-arrantzan sendo errotuta izan dituen gure gizarte zeharo hiritar bilakatu zaigu, ondorioz euskarak ezinbestekoa izango duelarik hiritartu, eta bide berriak urratzea.

Gizarte modernoaren ezaugarriak behinena herrialde eta eskualdeetako mugak gainditzea dugu. Horrek herrien eta eskualdeen arteko harremanak zeharo aldatzea ekarri du. Herrien arteko joan-etorriak egiteko ditugun erraztasunek hainbatean areagotu dizkiguten harremanak, eta ahozko nahiz idatzizko komunikabide berriek (irratia, telebista, internet,

eskuko telefonoak,...) leiho ugari zabaldu dizkigute mundurantz. Lehenago, familia eta hurbileko herri-guneak baldintzatzen zuen gure bizimodua mundu zabalera irekirik ageri zaigu.

Horrek hainbatean aldatu ditu euskararen transmisio-bideak eta erabilera-guneak. Familiak, herriak eta eskualdeak geroago eta eragin txikiagoa dute, haurtzaroan bertan hasita, gure bizitzan. Txiki-txikitatik eskolara joatera behartuak izateak, eta era guztietako harremanetan murgildurik bizitzeak zeharo aldatu dizkigute sozializazio-bideak. Guzti hori aztertu zen Mendebalde Kultur Taldeak antolatutako bi egunetako XIII jardunaldi horietan.

## 1. Jardunaldien nondik norakoak

Lantxo honen asmoa, gogoetarako aukera eskaintzea denez, ezinezkoa gertatzen zait jardunaldi horietan esandako gauza guztiak hemen biltzea. 318 orrialdeko liburu polit batean bilduta eskaini zizkiguten antolatzaileek bertaratu gineno. Bertan jorratzen diren gai guztiak, zer esanik ez, oso interesgarriak ditugu.

Jardunaldietako izenburuak aditzera ematen duenez, elkarrekin zerikusi duten bi alor jorratzen dira. Batetik, gogoeta eta hausnarketa teorikoa eskaintzen da, eta, bestetik, zenbait leku-kotza praktikoa aurrez aurre jartzen. Hori dela eta, alor bakoitzari buruzko zenbait jakingarri jasoko ditut ikuspegi orokorra eta zehatza uztartzen saiatuz.

Hala ere, nori berea zor zaionez, zuzenbidezko iruditzen zait bertan alor desberdinen berri eman zuten hizlarien berri ematea. Guztien ekarpenak, esan bezala, liburu batean bilduak eskaini zizkiguten. Honako hauek izan ziren: Kaxildo Alkorta: *Aurkezpena*; Iñaki Martínez de Luna: *Zelako euskaldunak, balako kopurua...*, edo *Soziologiaren erantzuna*; Itziar Basterretxea: *Hizkuntza erabilera gizarte global eta modernoan*; Iñaki Gaminde: *Prosodiaren transmisioaz eta beronen azterketaz*; Kike Amonarri: *XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada"*; Mattin Irigoien: *Nola eutsi diogun gure euskarari?*; Estepan Plazaola Otadui: *Herriko berbeta oinarri, abozko*

*jarduna hobetzeko abaleginetan; Juanjo Zorrilla eta Alberto Mardonez: Euskararen transmisioa Zallan; Juan Manuel Etxebarria: Transmisioaren ondarea; Akaitze Kamiruaga eta Fredi Paia: Ingurumari kulturalaren garrantzia bizkuntzaren transmisioan; Estibalitz Amorrortu: Euskerearen transmisioa Euskal Herriatik kanpo. (lanak eskuratzeko honako telefono eta helbide elektronikoak dituzue: mendebalde@euskalnet.net. edota www.mendebalde.com. Tlfonoa: 944028084 / 639152787).*

## 1.1. Transmisioa

Gai honen inguruan gogoeta egiterakoan Iñaki Matinez de Luna jaunak (i.maritnezdeluna@ehu.es) transmisioa eta haurren sozializazio prozesua hainbatean bat eginda gertatzen direla gogoratu zigun. Gizakiok ez garelako gizarteko kide jaiotzen gogoratu ondoren, gizakion sozializazioa eta hizkuntzaren bila-kaera elkar loturik gauzatzen direla azaldu zigun, honako baieztapenok eginez:

- *Jaiotzean, gizakiak taldearen abegiaren eta babesaren beharra du, funtsean ezindua delako. Eta muga zein ezintasun horiek biztun izaeran ere gertatzen dira: jaioberriak ez daki inolako hizkuntzarik.*

- *Halere, espezie bezala gizakiak ikasteko gaitasuna badu. Are gebiago, ikasitakoa komunikatu eta igortzeko gaitasuna ere bai. Gizakia bazi abala bizkuntza jabetuko da, arian-arian, bizkuntza hori erabiltzeko gauza izatera iristeraino, besteak beste bizkuntza komunikazio tresna gisa erabiliz.*

- *Hortaz, gizakiak, behin jaiotzen gero, birjaiotzen segitu behar du; taldera alegia, taldekide bihurtzeko. Eta taldekide bihurtzearekin batera bizkuntza-komunitate batera (edo batzuetara) ere birjaiotzen da, bizkuntza-komunitateko kide bihurtuz.*

- *Gizakiak duen oinarritzko ahulezia era horretan saihestean du; sozializazio edo gizarteratzearen bitartez. Era berean, jaioberriak duen bizkuntza-gabezia ere bizkuntzaz jabetze-prozesuaren bitartez gainditzen du.*



Sozializazio prozesu hori modu askotan gauza daiteke; izan ere, zenbat kultura hainbat sozializazio. Era berean, jaioberria non jaio, nolako hizkuntza komunitatetan sortu, halako Lehen Hizkuntza; hortaz, zenbat hizkuntza-komunitate, hainbat Lehen Hizkuntza edo hainbat hiztun mota.

Jarraian sozializazioaren bilakaera hiru prozesu motatan garatzen dela gogoratu zigun, bakoitzaren eremuan gertatzen diren zertzeladak labur azalduz:

- **Prozesu kognitiboa:** *hizkuntzaz jabetzea ere prozesu kognitiboa da, biztun-komunitate bateko hizkuntza irakasten da: hiztegia, sintaxia edo joskera, fonetika, aditz-jokoa, hizkuntzarekiko gizarte-arauak...*

- **Identifikazio prozesua:** *hizkuntza ere esanahi horietako guztiekin edo, gutxienez, batzuekin 'kutsatua' da: nazioa, etnia, kultura, ogibidea, statusa..., hizkuntza horretaz jabetzen den biztun berria hizkuntza horrekin identifikatzeraino iritsiz (nire/gure hizkuntza); euskaldun sentitzeraino, gure kasuan.*

- **Prozesu afektiboa:** *hizkuntzarekin, beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, tankera bonetako ideiak barneratuz: gure euskera maitea, etxeo hizkuntza preziatua (euskara), versus hizkuntza arrotza (erdara), bertako jatorriko hizkuntza versus kanpoko hizkuntza inposatua...*

Guzti horri herentzia biologikoa eta norberaren eskarmen-tua gehitu behar omen zaizkio. Herentzia biologikoa agian ez, baina, norberaren eskarmen-tua argi dago oso inportantea dela hiztun baten izaeran eta bilakaeran; adibidez: hizkuntza bat erabiliz eroso sentitu ala ez, integratuta ala baztertuta sentitu, gaitasun mugatuak sortarazitako konplexua edo gaitasun osoak eragindako harrotasuna, euskara erabili nahi izateagatik sortarazitako arazoa, euskara gogoz kontra ikasi/erabiltzera behartua sentitzeagatik...

Oinarri-oinarrizko kontzeptu horiek argitu ondoren, nola gauzatzen den pertsonon sozializazioa gogoratu zigun:

**Lehen sozializazioa:** Prozesu horretan, mundua ikusteko modu oso bat barneratzen dela eta osagaia afektibo/moralen nagusitasu-



na nabarmentzen dela esan ondoren honakoa hau gogoratu zigun: *lehen hizkuntza edo ama hizkuntza etxean jasotzen da, haurtzaroko lehenengo urteetan, familiaren abotik zuzen-zuzenean. Hizkuntza hori izango da aurrerantzean funtsezkoena, barneratuena eta berezkoena biztun ororentzat. Euskaldunen artean, hemen koka daitezke lehen hizkuntza euskara dutenak, alegia, gaur egun haur eta gazte euskaldunen gutxiengoa direnak.*

**Bigarren sozializazioa:** Inguru sozialaren eraginaren bidez gauzatzen dena genuke: *familiaz aparte burutzen da, bots, hezkuntza sisteman, lagunartean eta komunikabideen bitartez. Metodikoa eta sistematikoa izan obi da, eta bereziki nola jardun gizartean irakasten du. Euskaldunak direnetatik, etxeko edo familiako (lehen) hizkuntza erdara izanik, euskara bigarren hizkuntza gisa (hizkuntza sistema edo euskaltegiaren bitartez) ikasi dutenak ditugu. Hori bera da, hain zuzen ere, egungo haur eta gazteengan gebien agertzen den euskaldun mota eta, horren ondorioz, ikasitako bigarren hizkuntza hori (euskara) erdara bezain barneraturik ez dute, kasu gebietan. Nekez izango dira elebidun euskaldunak (euskaraz erdaraz baino hobeto dakitenak) eta, aldez, erdal elebidunen multzoa osatzen dute, sarri.*

**Hirugarren sozializazioa:** helduen artean bakoitzak aukeratu ta gertatzen dena dugu. Beste kultura edo gizarte baten arau eta balioak barneratzean datzana. Hirugarren sozializazioa, beraz, transkulturazioa izango litzateke. Zer, baina, transkulturazioa?: *persona batek normalean berea baino sozio-ekonomikoki garrantuagoa dagoen beste herrialde bateko kulturaren egindako beziketa edo trebakuntza.*

Eskaini zigun txosten sakonean, Hezkuntza Sailak bildutako datu ugari aurkeztuz, guk ere gogoan izan behar ditugun beste hainbat esaldi interesgarri ere eskaini zizkigun. Hona hemen batzuk:

*Horrela, maiz jabetzen gara gurasook butsune bandi samarrak ditugula gure eguneroko jardueran eta gure diskurtsoak ez datozela askotan bat praktikan egiten dugunarekin.*

*Etxea eta eskola dira haurraren beziketarako bi zutabeak eta biek zentzu berean joan beharra daukate beziketa horrek emai-*

*tzarik emango badu. Haurrak erreferentzia bertsuak izan behar ditu batean eta bestea, nola jokatu jakiteko, bere inguruak zer baloratzen duen eta zer ez ezagutzeko... azken batean, bere nortasuna osotzen joateko...*

*Erreferentzia eta balore horiek balioa izan dezaten praktikan jartzen direla ikusi behar du haurrak. Areago, diskurtsoa ez badator praktikan lagunduta, kontrako eragina izan dezake eta haurra noraezean jartzea besterik ez da lortuko; baloretzat eman zaiona gutxiestera iritsiz.*

*Koherentzia kontuan gurasoak asko daukagu ikasteko. Eskolaren esku uzten dugu gebietan gure barren beziketa; diskurtsoa zuzenak darabilzkigu jendaurrean, baina behin etxeko atea itxita koan kosta egiten zaigu hitzari eustea...*

*Hizkuntza kontuak ez dira panorama honetatik kanpo gelditzen. Eskolaren esku uzten dugu maizegi gure barren euskalduntzea, motibazioa, euskararekiko sentsibilizazioa. Hizkuntza eskolan landu beharreko balore bat balitz bezala. Gurasoon praktika, ordea, aldentu egiten da askotan erabiltzen dugun diskurtsotik. Gurasook badugu gogoeta egiteko premia gai guzti hauekiko<sup>1</sup>.*

## 1.2. Erabilera

Zer esanik ez, gaur egun –euskara ezagutzen dutenen kopurua hainbatean ugaritu ondoren- euskaldunok eta euskarak iraupenerako duen arazorik larriena erabilera dugu. Ikerketa linguistikoek euskararen erabilerak azken urte hauetan atzera egin duela zenbait eskualde euskaldunetan adierazten digute. Hori, jakina, benetan oso arazo larria iruditzen zaigu beraren iraupenaren aldeko apustua egin dugunoi.

Euskararen erabileraren arazo larri horren inguruko gogoe-tak zenbait hizlarik aztertu zituzten. Alde teorikoa Deustuko

<sup>1</sup> Oharra: informazio gehiago: 1) Etxebarria, M. (2006) etxean zer ikusi, hura ikasi. In. Azeptitiko Euskara Patronatua: Erabil.com ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1145837009](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1145837009)). 2) Hizkuntza Politikarako Saillburuordetza (2006): Transmisio indartzeko bide berriak urratzen. In Azeptitiko Euskara Patronatua: Erabil.com ([http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1145837009](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1145837009)).

unibertsitateko irakasle den Itziar Basterretxea andereak. Ikerlari honek gizarteak azken urteotan izan duen sakoneko aldaketari buruzko hainbat gogoeta eskaini zizkigun, aldaketa horiek hizkuntzan bizitzan izan dezaketen eragina nabarmenduz. Bere lan interesgarria ‘modernitateak’ eta ‘globalizazioak’ ekarri diguten gizarte berrian oinarritu zuen.

**1.2.1. Modernitatea:** azken urte hauetan modernitate-prozesuaren ondorioz zeharo aldatu zaizkigula hiztunen bizilekua (espazioa) eta bizimodua (denbora), eta horrek zenbait lekutan egoera larrira ekarri duelarik euskararen erabilera gogoratu zigun. Sakon-sakoneko aldaketa horri dagokionez, besteak beste honako hau gogoratu zigun:

***Espazioa eta denboraren arteko banaketa.** Ikuspegi sozial batetik argi dago denbora eta espazioa gauza ezberdinak direla, baina modernitatearen aurreko gizarteetan biak (noiz eta non) agertzen ziren erabiltzen zituen komunitatearen kokapenenarekin lotuta. Egia da kultura guztietan denbora neurtzeko eta espazioa kontrolatzeko moduak (egutegiak eta mapak) landu direla, baina pertsona gehienentzat espazioa zein lekua euren eguneroko bizitzaren lekuagaz eta zereginakaz lotuta egon dira.*

*Modernitatean, aldiz, norberaren lekuarekiko lotura hori apurtu egiten da eta espazioa zein denbora ‘bustu’ egiten dira. Ondoren, hainbat modutara bete daitezke. Horren adierazle dira mundu osoko ordutegia eta munduko mapak. Gaur egun munduko biztanle guztientzat ‘lehen’ edo ‘historia’ dioguna, zelan edo balan, bat bakarra da, eta berdin gertatzen da denborarekin ere. Esaterako, XXI. mendea denontzat da esanguratsua; mundu osoko albisteak berehala heltzen zaizkigu, berdin dio ‘non’ gertatu diren; ikasi ere on ‘line egin’ dezakegu, berdin dio ‘non’ eta ‘noiz’ egin nahi dugun, eta ikasketari guztiak egon daiteke leku zein une ezberdinetan; lehen ‘iluntzean’ oheratzen ginen, orain aldiz ‘hamarretan’; lagunekin ‘bazkalostean’ gelditu beharrean ‘lauretan’ gelditzen gara,... eta horrela bada, Tarzanek ‘makiltxu bien gerizpeek bat egiten dutenerako bueltan izango naiz’ esaten zueneko sasoi urrun da, urruntasun espazio-denborazkoa.*

Modernitate horren ondorio izango dira, besteak beste, gaur egun indarrean ditugun erakunde sozialen desiltzapena (giza harremanak ‘deslekuratzea’), gizartean gertatzen den aniztasuna (moral eta ikuspegi anitzak), sekularizazioa (gizarteko eremu desberdinen autonomia) eta abar. Modernitateak hankaz gora jartzen ditu aurreko mendeetako bizitzeko moduak. Benetakoa iraultza gertatu da balioen eremuan eta bizitzaren plan-teamenduetan.

Horrek, jakina, izugarrizko aldaketak ekarri ditu, eta euskarak egoera berrietara egokitzen asmatzen a badu ez du etorkizunik izango. Gaur egun ez dute balio handirik lehenagoko errezetek, oinarri-oinarrizko aldaketa gertatu zaigulako. Badugu, beraz, zer hausnartu eta jorratu, euskararen iraupena ziurtatu nahi baldin badu

**1.2.2. Globalizazioa.** Aurrekoaren ondorioa dugu hainbatean gaur egun ahoz aho eta belarriz belarri dabilen globalizazio dontsua. Une honetan giza talde batek ezin du bere kasa bizi munduan. Gaur egun gizakion harremanak mundu zabal batean kokatzen dira eta ez bakoitza bizi den herrialdean edo eskualdean.

Mundu globalizatu horren adibiderik nabarmenena hedapen zabala eta arrakastatsua eskaintzen digun Internet dugu. Eta frogatzeko Giddens-en honako hitzok aipatu zizkigun:

*“Berriztapen ubin bakoitzean teknologia mediatikoen hedakuntza bazi egiten da. Estatu Batuetan irratia berrogei urte behar izan zituen 50 milioi entzule izateko. Ordenagailu pertsonala agertu eta hamabost urtera erabilzaille-kopuru hori bera lortu zuen. Lau urte baino ez ziren behar izan, eskuragarri egin zenetik, 50 milioi estatubatuarrek Internet erregulartasunez erabiltzeko”.*

Jarraian globalizazioa prozesu-multzo konplexua izanik askotan modu kontrajarrian garatzen dela, etorkizuna ez dagoela itxita, aldi berean prozesu kontrajarriak bizi ditugula, ondo-

riok ez daudela berdintasunez banatuta, eta beste zenbait zer aipagarri gogora ekarri zizkigun. Mundu mailako gizarte kosmopolita sortzen ari dela eta horrek arazo larriak sortuko dizkiola hizkuntzen bizitzari ere nabarmendu zuen.

Sortzen ari den gizarte berrian, taldeak barik gizaki indibidualak ari dira protagonismoa hartzen. Erabakiak pertsonalak izan ohi dira, eta gizartearen eragina ere geroago eta mugatua go gertatzen da, azken batean gizarte guztiak bateratze prozesu bortitz batean murgilduta bizi direlako. Horrela, identitate mota desberdinak sortzen ari dira, eta hizkuntza ez da gizarte baten lotura-bide bakarra.

Gizartearen gertatu den eta gertatzen ari den aldaketa bizi horrek zer-nolako eragina duen euskararen erabilera laburbiltzerara ere ausartu zen:

*“Laburbilduz, gogoratu dezagun espazio eta denboraren arteko obiko lotura apurto egin da; taldeak barik pertsonak du garrantzia, eta honekin lotuta, taldearen arteko betebeharen ordeztu pertsonaren eskubideak azpimarratzen dira; iraganak baino, etorkizunak eratzen du gure bizitza; bizitzaren zentzua norberak erabaki behar du, dauden aukeren artean aukeratua edota berriak sortuz...”*

*Orain arte euskeraz esparru guztietara eraman gura izan dugu eta euskeraz bizitzeko eskubidearen alde agertu izan gara. Honekin lotuta euskal biztunen kopurua handitzearen alde agertu gara. Gure mugak eta indarrak kontuan izanda, etorkizunean bideragarriak dira asmo hauek? Elebitasuna elebakartasun biren arteko aldi baterako tartea da benetan? Gure etorkizuna elebakarra izatea gura dugu? Eta elebakarra ez bada, zelan lotzen da elaniztasuna (barkatu hitz-asmakizuna) ‘esparruguztitanarekin?’ Birpentsatu beharko genuke (erreflexibitate) diglosia kontzeptua? Birpentsatu beharko genuke zein den erabilera iraunkorragorako behar dugun hiztuna?*

Galdera asko eta gogoeta sakonegiak, behar bada, lerro labur batzuetan biltzeko. Dena dela, hor ditugu Itziar Basterretxea andereak hausnartzeko mahai gainean jarrita, egin-eginean oso ga-

rrantzi handikoa delako gizarte moderno eta globalizatu batean nola indartu dezakegun eta iraunarazteko bidean jarri lurraldez hain eremu txikikoa dugun gure euskara argitzeko.

### 1.2.3. Adibide praktikoak:

Arlo teoriko horri erantzutera etorri ziren, nonbait, jardunal-di horretan aurkeztu ziren zenbait adibide praktiko. Esaterako Mattin Irigoien jaunak, bizi-bizi eta gozo-gozo, *nola eutsi diogu gure euskarari?* galderari emandako erantzuna.

Multzo horretan kokatuko nituzke, baita ere, Kike Amonariz jaunak jariatutasun handiz *XII. mendeko euskaldunak: 'Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada'* izenburua zuela aurkeztu zigan txostena. Euskararen erabileran gertatzen ari diren aldaketa sakonak abiapuntutzat hartu, eta zenbait adibide aipatu ondoren, aldaketa sakoneko garaiak ditugula gogoratu zigan:

*“Hizkuntza komunitateen bilakaera, faktore askoren eragin-pean dago. Hizkuntza komunitateen indartzea, abultzea edo galera esplikaten duten era askotako arrazoiak eta kausak aurkituko ditu gizateriaren historian: inbasioak, gaixotasunak, arrazoi ekonomikoak, hazkunde edo murrizte demografikoak, migrazioak, erlijio arazoak... Hizkuntza komunitateen bizi-indarra etengabe aldatzen da; ez da inoiz bera. Are gutxiago, mundua gero eta txikiagoa, gero eta bateratuagoa den mende hasi berri honetan. Globalizazioa, iraultza teknologikoa, krisi ekonomikoa, deslokazioa, migrazioak, digitalizazioa, eleaniztasuna, laikotasuna edo familia eredu aldaketa bezalako kontzeptuek eragin zuzena dute pertsona, herri eta estatuen antolaketa eta harremanetan, eta beraz, baita hizkuntza komunitateen eta hizkuntzen artekoetan, hizkuntzen erabileran eta berauekiko pertzepzio sozialetan eta jarreretan.*

*Aldaketa sakoneko garaiak bizi ditugula esan obi da. Nola-nahi ere, sakoneko aldaketarik gabeko garairik izan ote den galdetu beharko genioke gure buruari...’*

Jarraian *‘dabilen barriari goroldiorik’* ez esapide zaharra gogora ekarriz honako hauek gogoratu zizkigun:

*Hizkuntza guztiak aldakorrek eta heterogeneoak dira, eta biztun guztiok eraldatzen dugu hizkuntza gure bizitzan, egokieren arabera modu desberdinetan erabiltzen dugularik. Are gehiago, ez dago hizkuntza isolaturik; denek eragiten dute gutxi edo gehiago beste hizkuntzaren batean edo batzuetan; eta alderantziz. Eragin horiek, baina, oso jute eta indar desberdinekoak dira, hizkuntza eta egoera desberdinei dagokienez(...).*

*Esan genezake hizkuntza bakoitzaren garapena bi indar desberdinen eraginpean dagoela: barne-eboluzioa batetik (indar bateratzaileen eta banatzaileen arteko borrokak, Saussurek aipatzen zuen bezala) eta hizkuntza ukipenaren ondorioz, kanpotik eragindako aldaketak bestetik. Euskarak ere, bi indar horien eraginpean eboluzionatu du, aldatu da eta ari da aldatzen. Indar horien nondik norakoak azaltzeko, ordea, ezinbestekoa da hizkuntza komunitateen historia politiko eta sozio-ekonomikoa aztertzea.*

Gero, 'egoera berri baten sarrera' eta ondorioz 'izaera berrien sarrera' gertatu dela esan ondoren euskalkien garrantziaz mintzatu zitzaigun. Gaia aztertzerakoan honako hau esanez hasi zen:

*Estibaliz Amorrorturen tesiak bereziki interesgarriak egin zitzaizkidan. Guztiz bat nator berarekin, honako hauek esaten dituenean: 'Hizkuntzak erabiltzen ez diralako galtzen dira et ez beste batzuekin ukipenean eta aurreko egoeratik aldatuta dagozalako (...). Kalitate eta erderaren eraginaren auzian jarrera preskribatzaileak leuntzea komeni daula uste dot (...) erregistro aldaketaren garrantzia eta funtzioak kontuan hartu behar doguz.*

Euskalkien arazoa ere aipatu zuen, zeintzuk diren gazteek euskalkien alde egiteko zioak ere aurkeztuz. Euskalkian hurbiltasuna, kolokialtasuna, benetakotasuna, intimitatea eta jator-tasuna bilatzen omen dituzte gazteek. Alor honetan gertatzen ari diren aldaketa nagusien artean hurrengo hauek omen dira, labur esanda, nabarmenenak:

*- Euskaldun elebakarrik ez dagoen moduan, jada ez dago, bere euskalkia bakarrik dakien haur edo gazterik: gutxi edo gehiago denek ezagutzen dute batua.*

- *Norberarenak ez diren euskalkien presentzia ere, obikoa biburtu da euskaldunen inguruan, batez ere bedabideei, Interneti, kulturari ekoizpenei (musika...) eta barreman gero eta ugariagoei esker.*

- *Gero eta euskaldun gehiago da, euskalkia bizirik ez dagoen inguru erdaldunduetan.*

- *Haur eta gazteen euskalkiaren ezagupena, mugatua da zaharren aldean.*

- *Batuaren bainbat forma eta adiera komun, guztiz txertatu dira euskalkietan.*

- *Aitzitik, euskalkiek gero eta prestigio handiago dute gazteen artean.*

- *Euskal kulturaren ekoizpen-gune nagusiak Donostialdean kokatu izanak (ETB1, Euskadi Irratia, Gaztea irratia, Martin Ugalde, Argia, Gaztezulo, Elbuyar...), are gehiago makurtu du estandarren balantza gipuzkeraren alde.*

Azkenik, aurrera begira nola jokatu ere proposatu zigan, besteak beste, honako hauek behar ditugula gogoratzu:

- *Euskarak lege-babesa izatea Euskal Herri osoan.*

- *Euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzea.*

- *Motibazioa lantzea eta 'egokitasuna' esaten genuen haren aldeko giroa sustatzea.*

- *Hezkuntza sistemaren helburua eta ikasbideak egokitasunaren ikuspuntura moldatzea: gramatikaltasunetik komunikaziorako jauzia ematea, alegia.*

- *Hedabideetako programa edo sailak diseinatzerakoan, dagozkien hizkerak erabakitzea, bereziki landuz haur eta gazteei zuzendurikoak.*

- *Teknologia eta hedabide berrietan euskarazko produktua et zerbitzuak eskuragarri eta erakargarri egitea.*

- *Euskal Herriko haur eta gazteen barremanak bideak ugaltzea.*

- *Eskolorduz kanpoko jardueren euskalduntze programei ekitea*



Oso gogoko izan nuen Estepan Plazaola Otadui jaunak ‘*Herriko berbeta oinarri, abozko jarduna hobetzeko abaleginetan*’ izenpean eskainitako lan sakona. Bergaran euskararen erabilera bultzatzeko egiten ari diren lan ugariaren berri ematen saiatu zen. Hileta-hotsak maiz entzuten ditugun garai hauetan, hor-hemenka horrelako lanak egiten ari direla jakiteak, indar berriak sortzen dizkigu bihotzean. Mendebalde Kultur Elkarteak argitaratutako liburuan informazioa zabala jaso ahal izango du nahi duenak. Bergarako udalaren Web orrian ere berri ugari dutela jendearen esku jarrita esan zigun.

Oso interesgarriak izan ziren goian aipatu ditudan beste zenbait txosten ere. Ezin denak hemen bildu. Bildutakoak, ostera, transmisioaren eta erabileraren lekukotza emateaz gainera gogoetarako bide ere izan ditzakegulako ekarri ditut.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

**ELIZA ELEANITZEAN EUSKARARIK BAI?**  
**ARGAIA DONOSTIAKO GOTZAINAREN**  
**VATIKANO ILEKO EGUNKARIA DELA ETA (1962-1965)**

Eliza Jerusalemen jaio zenetik bertatik, ezagutu du kristautasunak herri ezberdinen artean hainbat hizkuntza erabili beharra, eta hori lehenengoz nola gertatu zen Apostoluen Eginak liburuak gogorazten digu Biblian, Mentekoste eguneko hizkuntzen miraria aurkeztean<sup>1</sup>.

Vatikano II.ak (1962-1965) kultur arazo pastoral hori berriro jarri zuen mahai gainean, eta eztabaidagaia izan zen Kontzilio horretan, aurrekoetan ez bezala, Elizaren eta hiztunen arteko harreman-portaerak nolakoak izan behar zuen. Munduko hiz-

---

<sup>1</sup> Apost. Eginak 2, 1 eta 5-12: "Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. [...] Egun haietan judu jainkozale asko ziren Jerusalemen, eguzkiaren azpian diren nazio guztietatik etorriak. Burrumba hura entzutean, hara bildu zen jendea samaldan, eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien. Zur eta lur honela zioten: «Mintzo direnok, ez ote dira denak galilearrak? Nola daiteke, bada, guretako bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzan horiei entzutea? Baditugu gurekin partiar, mediar nahiz elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean nahiz Kapadozian, Ponton nahiz Asian bizi direnak ere; badira gure artean Frigia nahiz Panfilia-koak, Egipto nahiz Zirene inguruko Libia aldekoak, baita erromatarrak ere; eta denok, judu eta juduberri, kretar eta arabiar, Jainkoaren egintza miragarriak geure hizkuntzetan aipatzen entzuten diegu». Harriturik eta zer pentsa ez zekitelako, «Zer da hau?» galdezka ari ziren elkarren artean. Beste batzuek, al-diz, honela zioten isekaz: «Edanak daude»".

kuntzen historia eta bizi-iraupenerako munta handiko zerbait bilakatu da hori gero. Eliz hizkuntzaren honi ostera heltzeko, orrialde hauetan aurkeztu nahi dudan liburu batek emango digu bide.

Argitara berria da, eta irakurri berria dut Vaticano II.enean izandako Gotzain baten *Diario*-a, Jazinto Argaia-rena (Bera, 1903-Valentzia, 1993)<sup>2</sup>. Gogora dezadan Mondoñedon zegoela orduan Gotzain euskaldun hau; laster izendatuko zuen, ordea, Erromak Donostiako Gotzain (1968), eta ondoren, erretiroa hartu arte gobernatu zuen diozesi donostiarra (1979). Azken urteetan Valentzian bizi izan zen, eta han hil zen 1993an.

Eskuartean dugun *Diario del Concilio* hau, testu luze mardula da, gertakari txiki eta handiagoen lekuko pertsonala, Kontzilioa arazo nagusiak eta gatazka bizi eta liskartsuak ere ematen dizkiguna. Ez du izan nahi apenas eztabaida teologikoen azalpen teknikoa, eta gehiago lerratzen da bilera-giro hartan Gotzain batek egin zezakeen “kazetaritza pertsonala” esango genukeen azalpenetara, datua eta iruzkina batera eskaintzen dituela.

## 1. Vatikanoko II.a, gertakari handia

1962ko urriaren 11n Erromako San Pedro elizan hasitako Kontzilioa mundu kristau osoarentzat eta ez kristaurentzat ikus-entzunezko ikuskizuna bilakatu zen, aurreko beste Kontzilioak ez bezala. Gertakari mediatiko izugarria izan zen, eguneroko Prentsan eta telebista-albistegietan behin eta berriz agertu zena. Gure artean, beharbada, J. L. Martín Descalzo-ren kronikekin, *La Gaceta del Norte* bilbotarra egokitu zen Erromako egunerokotasun hori hobekien isplitatu ziguna.

Kontzilioak, egia esan, hiru errealitate elkar osagarri izan zituen bere baitan: bata Kontzilioa erakunde-makinerian zihar-

<sup>2</sup> ARGAYA, JACINTO (2008): *Diario del Concilio*. Donosita: Idatz Argitalpenak. (Xavier Basurko eta Jose Maria Zunzunegi-k paratutako edizioa).

dutenena, bigarrena Kontzilio lanen inguruko Hedabideena, eta, azkenik, herritar ikusle eta entzule arruntena, kristau eta ez kristauena.

1) Hasteko, datu azpimarragarria da Kontzilioeko Guraso boto-emaileen kopuruari dagokiona: Laterango V. Kontzilioan 150en bat Guraso izan ziren (1512-1517), eta Trenton, lehenengo aldia amaitzean 58 (1549)<sup>3</sup>. Hortaz, Trento eta Vatikanoko II. eko Kontzilioek elkarrekin antz gutxi dute, alde askotatik, eta, hasteko, Gotzainen zenbatekoan dira oso desberdinak. Aurreko Kontzilioetan Europa eta Mediterraneo inguruko herrietatik bildutakoak ziren ia bakarrik Gurasoak; oraingo horretan europar eta amerikarrak ez ezik, Asia eta Afrika bete-betean egon dira presente. Kontinente guztien ahotsa entzun ahal izan zen Vatikanoko II. ean. Irekierako ekitaldian 2.500dik gora ziren hitza hartu eta botoa eman zezaketenak.

Gotzain Gurasoekin batera, Erromako Kuria egon zen, Kontzilio-aurreko lana eraman eta baldintzatu nahi izan zuena: nazioartetik italiarrek zuten pisurik handiena bertan. Kuriako Kongregazio/Ministerio horietako agintari eta funtzionarioek erabakimen ziuurrik izan ez bazuten ere, baldintzapen ziuurra ezarri zuten Kontzilioaren hastapenean, harik eta kontziliotarrekin berek irizpide eta norabide berriak ezarri zituzten arte.

Aditu ofizialek, Erromatik bertatik aukeratutakoek bezala Gotzainek eraman zituztenek, aniztasun zabalagoa erakutsi eta ekarri zuten Kontzilia, lehenik Gotzain bakoitzari emandako laguntzagatik, batzuetan Gotzain-talde ezberdinen gidari zirela, eta sarritan Prentsa-erakunde harremanengatik ez eze han edo hemen eta une jakinetan emandako hitzaldiengatik ere. Teologo, pentsalari eta kazetari katolikoek inoiz gutxitan sumatutako askatasun-giroan lan egin ahal izan zuten. Kristau sentiera biziak aukera erosoagoz baliatu ahal izan ziren orduan Erroman: horren oihartzunak eta fruituak Prentsa katoliko gehienez nabariak izan ziren.

<sup>3</sup> MINNERATH, R. (1996): *Histoire des Conciles*. Paris: PUF. 76, 80.

2) Kontzilioko bigarren protagonista handia, berezkoa ez zena noski, Hedabideena izan zen, Kontzilioaz egunez egun ari zena, batzuetan etenik gabe emandako kroniken bidez, Gotzainen batekin edo besterekin izandako elkarrizketak bilduz, adituen iritzi ezberdin eta kontrajarriak argitara ekarritz, inoiz edo beste iritzi-artikuluak ez ezik idazki editorrialak emanez.

Kontzilio-hilabeteetan, munduko Prentsak hitz egiteko aukera izan zuen (ez zen falta izan Erroman atzerritarren Prentsa-bulegorik) eta Kontzilioko Prentsa-bulego ofizialaren parean beren gisara lan egin ahal izan zuten besteek ere. Horrek munduko Eliza ezberdinen ahotsa Erroman bertan entzuteko parada eman zuen. Eta alderantziz, Kontzilioko gorabeherak berarizko ahots eta kolorez hedatu ziren mundura.

Eta ageriko beste ekarpen bat egin zuen Hedabideen presentziak: goi-mailako eztabaida teologiko edo eklesiologiko urrun eta ilunak, kazeta-komunikazio arruntaren beharrez, nahitaez kaleko herritar arruntaren hizkeran emanak agertu ziren, hizkuntza ezberdinetan emanak. Eta hori guztia ez zen gertatu bakarrik Kontziliotik kanpoko irakurleen mesedetan, baizik eta zenbait kazetarik irakurlerik preziatuenak Kontzilioan bertan izan zituen, Gotzain Gurasoen artean alegia.

Vatikano II.a, Kontzilio horretara arte ez bezala, herritarren intereseko zerbaite izan zen, Erljio-Erakunde, Eliza eta Gobernuen interesekoa ez ezik herritar askoren ardura jaso zuena. Ez zen izan Kontzilio isolatua, aginte-interesetara makurtua eta munduko premiei entzungor aritu zena. Horretan Hedabideek beren lekua izan zuten.

3) Kontzilio bat herritarra izan daitekeen neurrian, ez dago zalantzarik Vatikano II.ak gizarte zibil “paisanoarekiko” irekitasun nabaria erakutsi zuela, gainerako Eliza kristauekiko begirarena, mundu ez-kristauekiko balioespen berri bat, herrien kulturekiko ikusmolde berritua.

Kristau elizkoi eta eliztar anitzentzat ez-usteko handia ekarri zuen Kontzilioak: Trento-ondoko eliz zurruntasun egonkorren ostean, ideiak mugitzen hasi ziren, eliz egitura instituzionala bezala, eta ideiekin batera baita kristau biziera eta morala ere; Elizako aginteak bestelako jarrera malguagorik ere izan zezakeela uste izan zen, zinez herritarrago ere izan zitekeela. Mezak entzun ahalko ziren, ez nahitaez apaizak herriari sorbalda emanaz eta latin misterioetsuan, baizik eta apaiza herritarrei begira, herria apaizari begira, eta guztien herriko hizkuntza berean.

Keinu sinboliko-praktikoak gorabehera, ideien berrikuntza eta eliz zerbitzuen herritartzea egingarri gertatu ziren Kontzilioaren ondorioz. Jarrera horrek Elizatik urrundutako hainbatengan itxaropena piztu zuen, eta zenbait agnostikoarengan arreta-puntta bat behintzat, agian geroago azken urteetan oso itzali dena.

## 2. Kontzilioaren lekukoak: euskaldunak

Orain, XXI. mende hasiera honetan beteko da mende-erdia Kontzilioaren lehen oihartzunak jaso genituenetik, eta Euskal Herriko Elizaren baitan ere urak mugitzen hasi zirenetik. Berrikitan, garai hartako lekukoaren balioespen pertsonalak ere egun argitara datoz, batzutan Gotzainen egunkariak dira, bestetan, ostera, adituenak; ez dira falta, noski, historia orokor ederrak, historialarien eskutik datozenak (Alberigo eta lankideek burututako lana, adibidez)<sup>4</sup>. Kontzilioa jada gertakari *historikoa* da, iragan ulergarri batean ageri zaiguna, eta beste adiera batean ere bai: historiografia orokorrak ere dagoeneko bere aztergaien artean duena.

Vatikano II.aren historia ikertzeko, Kontzilioko paper ofizialak ez ezik (dozenaka liburuki handi), mundu oso bat dago bestelako baliabideetan (Prentsako oihartzunak, han jardundako aditu eta gotzainen idazkiak, eta abar), eta hemen espresu-

<sup>4</sup> ALBERIGO, G. (ed.) (1999...): *Historia del Concilio Vaticano II*. Salamanca: Ed. Sígueme.

ki aipatu nahi ditudan egunkariak, hau da, egunez egun bertan egonik jasotako albiste eta sentierak ispiilatzen dituzten eguneroko idazki pertsonalak.

Lekuko gaurkotu bezala aipatuko ditugu hauek, hain zuzen garaiko norbaiten lekukotasuna ekarriz, oraintsu argitaratzen ari diren lekuko zaharrak direlako, eta edizio paratzaileen eskuetatik, ohar berriz horniturik datozelako. Maiz, edizio hauek lan handia eskatu dute, premiazko sarrerak ematen, milaka aipu zehatz argitzen, aurkibidez hornitzen, etab. Oro har, testu luzeak dira eta jatorriz ez beti ongi landuak, lekukoek uanean uneko oroitzapenak korrika batean idatzi behar izaten baitziztuzten.

Kontzilioetako idazki lekukorik osoena “egunkari” direlakoak ditugu. Hori gertatzen da, esate baterako Trentoko Kontzilioarekin (1545-1563). H. Severoli edo A. Massarelli-ren *Egunkariak* ezin baztertuak gertatu direla historialarientzat, Kontzilio hartako eguneroko ibilera eta barruko joan-etorriak ezagutzeko.

Vatikano II.era etorkizunean klasikoak izango ditugu segur aski teologo aditu batzuen *Egunkariak*; esate baterako, M. D. Chenu<sup>5</sup>, Y. Congar<sup>6</sup>, H. Küng<sup>7</sup> edo H. De Lubac<sup>8</sup> teologoenak. Oro har, harrobi aberatsak dira, eta kasu zenbaitetan askatasun handiz idatziak, zentzu kritiko biziz emanak. Egunkariok ez dute gutxi balio, gainera, Kontzilioen aldian aldikotasun historikoak ezarritako baldintzez jabetzeko.

Besteak beste (eta beste horietako anitz esanahi handiko aldeak izan daitezke Kontzilio batean), Kontzilioak gertakari politiko sozialak ere badira, gizarte kristau osoari begira, eta aldi berean garaian garaiko botere-antolaera instituzinalari

<sup>5</sup> CHENU, M. D. (1995) : *Notes quotidiennes au Concile*. Paris : Cerf. Eta bertan: MELLONI, A. (1995): «Les journaux privés dans l'histoire du Vatican II».

<sup>6</sup> CONGAR, Y. (2002) : *Mon journal du Concile*. Paris: Cerf.

<sup>7</sup> KÜNG, H. (2003): *Libertad conquistada. Memorias*. Madrid: Trotta.

<sup>8</sup> LUBAC, H. DE (2007): *Carnets du Concile*. Paris: Cerf.

begira. Vatikanoko II.a izan da, beharbada, alde horretatik Kontziliorik “libreenetakoa”, botere zibilek hainbeste baldintzatu ez dutena, nahiz eta ezagunak diren, adibidez, garaiko Gobernu espainiarraren ezinegonak eta zeharbidezko edo zuzeneko hertsamenak<sup>9</sup>.

Kontzilioko lanetan aritutako Euskal Herrikoak ez ziren gutxi izan. Lehenik, noski, bertako Gotzainak, Baiona (Gouyon), Bilbo (Gurpide), Donostia (Bereziartua), Gasteiz (Peralta) eta Iruñekoa (Delgado Gómez). Dena den, orduan eta gero, ez zitzaizkigun suertatu horiek nahitaez gertukoena, eta Kontzilioko antolamenduan eraginkorrenak. Aitzitik, Arkadio Larraona kardinal nafarra izan zen une erabakigarri batean Liturgiako Prefektu izendatua.

Gogoratzekoak dira urte haietan Espainiako diozesietan Gotzain ziren euskal herritarrak: A. Añoveros Cádiz-en zegoen orduan, J. García Goldaratz Valladolid-en, M. Olaetxea Valentzian, A. Ona de Etxabe Lugon, A. Pildain Kanarietan, J. O. Zarrantz Plasentzian, etab.

Horrela, jaiotzez nahiz atxikimenduz Euskal Herriarekin zerikusirik izandako Gotzain dezente egon zen Vatikanoko II.ean: 18ren bat ziren Espainian nahiz Frantzian diozesi-buru ziren euskal herritarrak, 10en bat Misiotako hemengo semeak, ia denak erlijiosoak: Amerika, Txina, India eta abarretan aurkituko ditugu F. Otxoa agustindarra, L. Olano edo Larrañaga kaputxinoa, K. Anasagasti frantziskotarra, Abasolo karmeldarra, eta beste. Bestalde, Gotzain izan gabe, ahots jasoagoa izandakorik ere egon zen: Aita Pedro Arrupe jesulagun bilbotarra.

Jakina denez, Hierarkiaren ondoko laguntzaile gisara jardundako adituak ere gogoratu behar dira. Zeregin horrekin, *Universitas Gregoriana*-ko zenbait irakasle jesulagun euskaldunek hartu zuen parte Kontzilioan: M. Zalba, eta R. Bidagor-ek,

<sup>9</sup> RAGUER, H. (2006): *Réquiem por la cristiandad. El Vaticano II y su impacto en España*. Barcelona: Península.



adibidez. Laguntza bera eskatu zitzaion euskal diozesietako zenbait adituri: Urbina, T. Jiménez Urresti, I. Oñatibia.

Dena den, *Diario*-an ez da ageri inon Euskal Herriaz eta beronen eliz nortasunaz hitz egin eta zerbait kudeatu zenik; ditudan albiste lausoetatik sumatzen dudanaren arabera Aita Bidaigor donostiarra izan zen hemengo interesetatik hurbilena ibilitakoa. Gotzainen artean tarteka egondako harremanetan bizirik ageri da urte haietan (1962-1965) Donostiako Seminarioko gatazka, baina Gotzain-lagunarteko solasgai bezala bakarrik.

Madril eta Erromatik lan eginez, apaiz euskaldun batek, Jesus Iribarren-ek, Kontzilioaz gordetako oroitzapenak utzi zizkigun liburu batean bilduta, “La sorpresa del Concilio Vaticano II” deritzan kapitulu argigarrian<sup>10</sup>. Argaiaren *Diario*-ko albistek hobeki ulertzeko ere balio du horrek, Xabier Basurkok eman dion sarrerarekin batera<sup>11</sup>.

### 3. Euskal Gotzain baten egunkaria

Gotzain eta aditu euskal herritarretako inork ez digu eskaini, gaur arte, egunkari oso bat, egunez egun doana, Kontzilio-Aretoa hutsik egin gabe egondako batena, eta inguruko kontziliokideen lagunartea ere erakusten diguna. Argaiak ez zion barkatu bere buruari, eta idazketa-lan hori bere gain hartu zuen, betiere Aretoko egunerokoaz eta Erroman bildutakoan joan-etorriez albistek idatziz emate aldera<sup>12</sup>. Ia 600 orrialdeko idazketa-lana burutu zuen Kontzilioan zehar.

Alde askotatik da interesgarria Argaiaren egunkarian bildutako albistegia. Espainiako Konkordatu-sistemaren barruan Gotzain hautatutako nafar baten mundu pertsonal eta eliztarra

<sup>10</sup> IRIBARREN, J. (1992): *Papeles y memorias. Medio siglo de relaciones Iglesia-Estado en España (1936-1986)*. Madrid: BAC. 223-277.

<sup>11</sup> BASURKO, X. (2008): “Presentación”, in: Argaya 2008: 7-24

<sup>12</sup> “[He] asistido, sin faltar a una, a las 168 Congregaciones Generales, tomando parte en las 544 votaciones y en las diez sesiones públicas”, dio Argaiak (588).

ageri da bertan. Beste euskal Gotzainekin hurbiltasun berezia sentitu zuen Argaiak, betiere Espainiako politikaz eta Espainiako Elizaz kezkatu zebilena; soma daiteke, gainera, urte haietan Galizian bizi arren, bere etorkizuna Euskal Herrian eta bereziki Donostian aurreikusten zuela (472)<sup>13</sup>. Kontzilio-barneko tirabiran sentiera kontserbadore irekia nabari zaio; ez zen Teologiko ur handietan sartu, baina adi-adi entzun zuen, artean Espainian ezezagunak ziren ekarpen berriez jabetzeko.

Munduko Gotzaineriaren barruan Espainia eta Frantziakoen arteko zubi-lana egin zuen Argaiak, harremanak sustatuz eta horretarako bileratan parte hartuz; Hispanoamerika arretaz begiratzen zuen, eta Penintsulan, Mondoñedoko diozesiaz ez ezik Galizia osoko pastoralaz ere arduratu zen, eta behin baino gehiagotan ageri dira *Diario*-an Euskal Herriko arazoak: politika mugitzen hasita omen dago, Bereziartua Gotzainak arazo gogorak dituela Donostiako diozesian, etab. Hemengo “etxe-ko” gauzak direla eta, Olaetxea, Beitia eta abarrekin sentiera minagoa ikusten zaio Argaiari.

Orain egin ezin dudan alderatzeak erakutsiko lizkiguke Argaiaren jarrera eta sentiera nola banatu ziren Kontzilio-ko arazo ezberdinen eta sentigarrienen artean (Liturgiaren erreforma, eliz botereen banaketa, Errebelazio eta Bibliari buruzko eztabaida, etab.). Era berean, begiratzekoa da zer pentsatu eta sentitu zuen Kontzilio-ko hainbat Guraso eta adituren proposamenek: Ottaviani, Pizzardo, Agagianian, edo Lercaro, Alfrink, Suenens, De Smedt, Döpfner, Léger, Maximos IV.a nahiz Arrupek ez zuten balio bera izan Argaiarentzat. Liburuko izen-aurkibidetik ikus daiteke Argaiak nola begiratu zituen Kontzilio-ko protagonista haiek eta beste.

Era bertsuan, Kontzilio-ko eztabaidak eta aztergaiak ikuskitun aberatsa eta bizia izan ziren, kazetari eta irakurleentzat ez ezik, lehenik eta behin Kontzilio-lagun eta teologoentzat. Oro har, Espainiako Gotzainek txunditurik ikusi ahal izan zuten Eli-

<sup>13</sup> Parentesi arteko zenbakiok *Diario*-ko orrialdeen erreferentzia dira.

za Katolikoaren batasun anitza, ziur eta finkatuak uste ziren aski gai zalantzan jarri zuena.

Hasteko, Eliza barneko botere-banaketaren arazoa agerian agertu zen: agintea Erroman bakarrik ala denen arteko botere partekatua behar zen? Teologia Erroman egin behar zen ala mundu katoliko osoan? Zein leku aitortu behar zitzaion Erromako Kuriari Kontzilioa gidatzean? Ez ote zen zuzenago Kontzilioa bere baitatik askatasun osoan eramatea. Galderak bazuen funtsik, zeren Kuriatik Kontziliotarrak maneiatu nahia lehen saioetan agertu baitzen, Iribarrenek idatzi zuenaren arabera<sup>14</sup>:

Fueron impresionantes los esfuerzos de algunos elementos curiales por prevenir desde fuera del Concilio probables decisiones de éste y por teledirigir dentro de él algunas corrientes, impidiendo la expresión de otras. [...] De paso, señalé *siempre* la actitud de la profunda fe de Juan XXIII en que el Espíritu Santo se manifestaba en la libertad

Ikuskizun horren aurrean Joan XXIII.ena fedezko segurtasun aske bat bizitzen ikusi genuen: edozer zetorrela ere, “Espirituaren askatasunak” urratuko zuela, bai, bere bidea, eta ez zegoela zergatik urduri jarri.

Zer pentsatu ote zuen Aita Santu hark Kuriatik “ezarri” zioten *Veterum sapientia* hartaz. Izan ere, Kontzilioko atariko azken orduetan, gutxien espero zen unean agertu zen Konstituzio Apostoliko hura, irekiera baino hilabete batzuk lehenago (1962ko martxoaren 31ean). Ez zen hori jazo gertakarien eraginik gabe: aurreko hilabeteetan inkesta bat egina zen Erromatik mundura, eta mundu osotik Kuriara bidalitako inkesta-erantzunek izutu egin zuten Kuria: Jasotako erantzunen arabera, latina arriskuan zegoen! *Veterum sapientia*-k hesiak jarri nahi izan zizkion uholdeari, beti ere latinaren bikaintasunak goraiapatuz eta nonahi ere eliz hizkuntza horri eutsi beharra aldarrikatuz, bere bakartasunean eliz batasuna segurtatzen zuela argudiatuz.

<sup>14</sup> Iribarren, op. cit., 230.

Hilabete gutxi geroago, nahiz eta Kontzilioan latinez hitz egin zen (salbuespen txikiren bat tarteko), hutsean geratu zen latinaren aldeko aldarrikapen hura. Funtsezkoagoak ziren arazoan artean adibide txiki baina emankorra gertatu zen, azkeanean, latinarena. Merezi du gaiak begiraturen bat ematea.

#### 4. Hizkuntza-hautapena: latinetik norantz?

Argaiaren egunkari honetan gutxienez 85 aldiz agertzen da hizkuntzen arazoa, batzuetan Eliza barruko nazioarteko harremanetarako eleaniztasunak duen garrantzia azpimarratzeko, edo Gotzainen arteko latin-gaitasun ahula azpimarratzeko. Espainiako Gotzainen hizkuntza-ezagutza eskasa behin eta berriz salatuko du Argaiak: ez ziren gai frantsesez mintzatzeko ere, eta ingelesa are urrunago geratzen zitzaien, gainera.

*El hecho de que los obispos españoles, como ya lo advertí en alguna ocasión, no podemos ordinariamente utilizar ningún otro idioma más que el español, nos aísla del Episcopado anglo-sajón y de las grandes zonas de influencia dominadas por el inglés y el francés (422). Durante la cena, y una vez más, saco la consecuencia de que los obispos españoles tenemos la desventaja de no dominar idiomas. Esto nos sitúa en un plano de aislamiento y de encierro en nosotros mismos, que nos perjudica no poco en estos tiempos de intercomunicación (516).*

Bestelako mirespena azaltzen du Argaiak eleanitz eta hitzun onen aurrean, eta berezikiago Alfrink kardinal nederlandarrari eta Arruperi buruz bi lekukotasun hauek utzi dizkigu (496, 493):

*En el Ufficio Stampa asisto a una conferencia sobre la paz y la guerra, dada por el cardenal Alfrink. Es hombre profundo y políglota. Habla perfectamente el latín, el holandés, italiano, francés, alemán, inglés.*

*Acudo al Ufficio Stampa de Via Conciliazione para escuchar la conferencia pública del padre Arrupe, prepósito general de la Compañía de Jesús. [...]. Hermosa conferen-*

*cia. El salón aparecía repleto de periodistas de todos los colores. Ha sido vivazmente interpelado por oyentes españoles, franceses e ingleses. A todos ha respondido, en sus respectivos idiomas, con respuestas breves y directas.*

Esan bezala, latina izan zen Kontzilioko Bilera-Aretoan erabilitako hizkuntza ia bakarra (Libanotik zetorren Maximos IV.a izan zen frantsesez mintzatu zena, beti frantsesez, gainera)<sup>15</sup>. Kontzilio-aurreko inkesta egin zenean erantzunak latinez bidaltzeko eskatu zitzaizen Gotzainei, eta halaxe egin zuten hauek, argitalpen ofizialean ikusten dugunez. Kontzilio-prestakuntzarako Batzordeetan, ordea, ez zen beti latinaren arau hori erabat gorde ahal izan, bildutako batzuen gaitasun-ezagatik batik bat.

Kontzilioko hizkuntza-hautapenaren hau, hala ere, bigarren edo hirugarren mailako zerbait gertatu zen. Kuriarako garrantzizkoa zen, noski, Erromako eliz gobernuko ohiko estatus linguistikoa hasieratik bertatik zalantzan ez jartzeko, eta, ahal baldin bazen, betikoari eusteko.

Baina Kontziliora zetozenetako milaka Gurasok (Goztainedek) nahiko ahula zuen bere latina, harreman berri bizietarako, adituekin eroso lan egiteko, handik eta hemendik etorriko zitzaizkien proposamen eta iradokizunak nazioarteko giro berrian lantzeko. Kontzilio-tresna izateko.

Laster, ordea, gutxi-asko luzatuko ziren Kontzilioko hilabeteek ez zuten agortzen munduko Eliza Katolikoaren hizkuntzen hautapen-arazoa. Kontzilio aurretik jasotako erantzunak bateratu eta argitaratzean (1962) garbi geratu zen hizkuntzen honek bere bidea egin beharko zuela Eliza osoaren zerbitzuko irizpide eta erabakietan.

<sup>15</sup> Ezin da utzi aipatu gabe Kontzilio-itxierakoa: Zazpi Kardinalak mezu bana irakurri zuten, denek frantsesez bakarrik. “Ningún cardenal español intervino en la proclamación de estos mensajes; ningún español ha sido llamado, excepto un niño, a la Comunión. El idioma único en los mensajes ha sido el francés. Esto ha dolido a algunos hispano.americanos” (593).

Badirudi laster ulertu zutela denek, hizkuntzaren hau botere-lehia ere bazela, harremanak sakonetik alda zitzakeen zer bait, eta era berean fededun herritarrei Elizan presentzia modu berriak eman ziezaiekeena.

Eztabaidak egun argitara ekarri zituen, berriro ere, Erroma eta periferiaren arteko urruntasun kulturalak. Horren adibide zinez esanahitsua izan ziren hizkuntzekiko jarrerak, erabakiak eta trataera. Liturgiaren inguruko eztabaidak ekarri zuen argitara hizkuntzen eliz garrantzia, Elizaren mezua ulergarri izan zedin, alde batetik, eta herritarrekiko Liturgia bidezko harremanak beste hedapen bat izan zezan.

Xabier Basurkok laburtu zituen bere garaian Vatikanoko II.aren hizkuntzekiko pentsamendu eta politika, aldi berean Liturgian sortutako urruntasun historikoa salatuz<sup>16</sup>:

*La lengua vernácula ha sido, sin duda alguna, el tema clave de la renovación litúrgica. La liturgia celebrada de un modo vivo y participativo, había sido durante siglos la forma más importante de la pastoral. Pero cuando la lengua litúrgica se hizo ininteligible, se interpuso un “muro de niebla” [J. A. Jungmann] entre el altar y los fieles.*

Eta, hala ere eta horregatik, Mezako hizkuntza latinoak sekula eta inon baino balio “sakratuagoa” zuen eliztarren artean... Eta, jakina, hori bera ere behera etortzean, latinaren ukiezintasuna jausi egin zen, baita kontziliotarren aurrean ere, Kontzilioan bertan eta gero.

Vatikanoko II.ak, garapen dogmatikoak baino areago mezu eta irizpide pastoralak eman nahi izan zituen, eta, hori bai, horretarako landu beharreko oinarri teologikoak ez zituen ahaztu nahi izan (adibidez, ordurarte egin gabeko Liturgiari buruzko gogoeta teologiko berritzailea da horren lekuko ona). Garbi egon zen, gainera, bere baitan eta ingurura ireki beharra zekala, lehenengo Eliza barnean hierarkia/herritarren arteko el-

<sup>16</sup> BASURKO, X. (2006): *Historia de la liturgia*. Barcelona: Centre de Pastoral Litúrgica. 475, 475-481.

kar-lan erosoia segurtatu eta herriarteko eliz kultur aniztasunari aukera berriak eskainiz, eta gero, erlijio ezberdinetarako elkar-rikizketa sustatuz, kristauarte orokorrean elkar-ulerpena eta lan-kidetza lagunduz (ekumenismoa) eta, zer esanik ez, mundu modernoaren balioak aintzakotzat hartu eta elkarriketarako bideak samurtuz.

Trentok segurtasun dogmatikoa bilatu zuen, eta Trento-on-doko urteek dogma teologikoari segurtasun sozio-politikoak ere bilatu zizkioten, ia erabat Europako gatazka erlijiosoz arduratuta. Kontzilio hark zirrikitu hertsia utzi zien herri-hizkuntzei, eta batez ere Kontrarreforma izan zen horretan gogorra (Ameriketako misio-hizkuntzek, ostera, erabilera-bide berriak urratzen zituzten garai berean).

Vatikano II.a, aitzitik, aurreko Kontzilioak ez bezala, biltzar planetarioa izan zen, ehundaka herri, kultura eta hizkuntzetako eliz agintariak bildu zituena. Horrek, beste gabe, hizkuntzen topaleku informal ere bihurtu zituen Bilera-Aretoa (Erromako San Pedro Basilika) ez ezik Kontzilio zereginetan lanean ziharduten Batzorde, Azpi-batzorde eta mota guztietako bilerak, nahiz eta hizkuntza bereko eliztarrek beren gisako eta hizkuntzetako bilerak egiteko ere joera izan zuten.

Kontzilio eta Kontzilio-ondokoa mundu osoan inoiz eta hain denbora laburrean (1956-1975) egindako birmoldaketa soziolinguistiko handienetakoa izan da: Liturgiako erreforma-egitarau orokorra proposatu zen, horretarako erakunde arduradunak sortu, mundu osoan testuak itzuli eta Erroman onartu, prozesua arautu eta praktikara eraman, eta gero balioetsi ere bai. Horretan irizpide ofizial orokorrek beren izen eta urteak dituzte: *Inter oecumenici* (1964), *Tres abhinc annos* (1967), *Liturgicae instaurationes* (1970), *Varietates legitimae* (1994), *Liturgiam authenticam* (2001); horiekin batera Joan Paulo II. aren *Vicesimus quartus annus* (1988) aipatu behar da, gainera.

Horrek guztiak hizkuntzen iraulketa ekarri zuen Elizara, eta Eliza Katolikoarekin harremanetan dauden herri kristauetara,

1979ko berri-emate orokor ofizialak erakutsi zuen bezala<sup>17</sup>. Aipatutako agiriek, Eliza katoliko latinoan sekula ez bezala, herrien hizkuntzekiko trataera berria ekarri du (neurri batean Misioetarako lehendik ezagunak ziren irizpideez baliatuz<sup>18</sup>, baina inoiz ez bezala aldi laburrean lanketa erraldoia burutzeko).

Hau dena, noski, Kontzilioaren ondoren etorri da, eta Argaia ez zuen orduan ezagutu ahal izan; baina Kontzilioko oinarrizko eztabaidaren testigu zuzena izan zen, eta horren oihartzunik jaso ere egin zuen bere *Diario*-an, izan ere Liturgiaz *Sacrosanctum Concilium* agiria eztabaidatzean han bertan baitzen Argaia. Eztabaida luze baten emaitza eta ondoko hamarkadetarako oinarri orokorra ondoko testua gertatu zen orduan (S. C. 36. art.)<sup>19</sup>:

*Latina gordeko da erritu latindarretan, eskubide berezia duten kasuetan izan ezik.*

*Hala ere, sarritan ama-hizkuntzaren erabilera oso ongi etor liteke herriarentzat. Horregatik, bai mezatan eta bai sakramentuak ematerakoan eta liturgiako beste arlo batzuetan, toki handiagoa eman dakioko, batez ere trakurgai eta oharpenetan, otoitz batzuetan eta kantuetan, ondorengo kapituluetan gai honetaz ezartzen diren kasuan kasuko arauak diotenez.*

*Arau hauek betez, 22. artikuluko 2. §an aipatzen den lekuko eliz agintariari dagokio, ama-hizkuntza erabiliko den eta zer neurritan erabiliko den zehaztea, behar izanez gero, hizkuntza bereko inguruneko apezpikuei abolkua eskatuz, behin Aulki Apostolikoak erabaki hauek onetsi eta baietsi ondoren.*

<sup>17</sup> *Notitiae*. 15, 1979, 385-520: "Le lingue nella liturgia dopo il Concilio Vaticano II".

<sup>18</sup> Hain zuzen, gogoratzekoa da nola Euskal Herriko elizgizonek, gerra-aureretik hasi eta gero, hizkuntzekiko Misio-tradizio hori aipatu izan zuten euskararekiko trataera hobea eskatzeko.

<sup>19</sup> URKIZA, J. (zuz.): *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea. (Itzulpena: L. Baraiazarra).



*Latinezko testutik liturgian erabiliko den ama-bizkuntzarako itzulpenak, lehenago aipaturiko lekuko eliz agintariak onetsia izan beharko du.*

Agerian dago latinaren lehentasunaren aldeko korrontekak bere araua ezarri zuela, batez ere arau teoriko gertatuko zena, zeren, aitzitik, balio pastoralen aldeko korronteari leihoa irekitzen diote ondoko pasarteek: liturgian herritarren parte hartzea lagundu nahi zuen Kontzilioak, eta testuen ulermena erraztu. Bestalde, Lege horrek hizkuntza-erreformarekiko ekimena eta ardura (azken agintea ez: kontuz, gero!) Erromatik tokian tokiko Apezpiku eta nazioetako Gotzain-Batzarren eskuetara pasatu zituen. Liturgia erromatarraren erabilera herritarra “kosmopolita” bihurtu zuen 36. artikulua horrek. Handik aurrera bizitza praktikoak agindu zuen (ez hainbeste Kuria latintzaleak), mundu osoko ekimen berriak bildu eta onartzen.

Zein izan zen, bada, Argaiaren jarrera Kontzilioan eguzkitarra atera zen eliz hizkuntzen arazoaren aurrean? Nola ikusi zuen Liturgiako hizkuntza-aldaketa posiblea? Argai euskalduna zen, Berako semea eta euskara bere ama-hizkuntza zuena, eta Galizian bizi zen, hango diozesi baten buru. Batean bezala besteetan, ondotxo ezagutzen zuen Estatuko hizkuntza ofizialak ez zuela agortzen herritarren bizitza.

Beste herrialdeetatik Kontziliara ekarritako erforma-idea eta gogoak ezin zitezkeen Argaiarentzat guttiz arrotzak suertatu. Bestalde, Frantziako Gotzainekin izango zituen harremanetan, Baionako Gouyon Apezpikua izan zuen hurbilenetakoa, eta hain zuzen, diozesi horretatik ere sortu zen Baionako elizbarrutiaren birmoldaketa egingarri batean hizkuntza ezberdinen presentzia goioan hartzeko eskea (12-13).

Harreman pertsonaletan, gaztelania zekiten atzeritarrekiko begiramen berezia erakusten du Argaiak bere iruzkinetan: Ate-nagoras Patriarkak Mexikon ikasita omen zekien gaztelania (472) eta König-ekin ere gaztelaniaz mintzatu ahal izan zen gure Gotzaina (590). Badirudi, bestalde, Maximos IV.aren Kontzi-

lioko hizkuntza-jokabidea ez zitziola sobera gustatu Argaiari (latina bazekien hark, baina beti eta ez gutxitan frantsesez bakarrik mintzatu zen, betiere Erromaren zentralismotik urrun samar). (78, 89, 91, 97, 117, 147, 268, 301, 309, 342, 350, 498).

Gotzain espainiarrek ez zuten Kontziliaora prestakuntza ongi landurik eraman, eta are gutxiago aurrez aurre espero ez zituzten erronkei erantzuteko (gogora, adibidez, askatasun erlijiosoa-ren arazoa, Espainiako Gobernu urduri jarri eta Gotzain espainiarrak jokozen kanpo aurkitu zituena). Europako beste zenbait Herrialdetatik hizkuntzena ere Liturgian beren esperientziak eginda zetozen bitartean, Espainian ez zegoen halakorik.

Interesgarria da hemen Liturgiako herri-hizkuntzekiko hauptapenean Donostiako Gotzainak zuen pentsamoldea gogoraztea. Font i Andreu Gotzaina katalana zen, eta katalanez bizi zuen bere familiarreko eguneroko bizitza; hala ere, Kontzilio-aurretik egindako inkestari erantzutean zera idatzi zuen (nirea da itzulpena)<sup>20</sup>:

*11. Ez dut onartzen, gainera, Mezako sakrifizioa ematean kristauek berori hobeki uler dezaten herri-hizkuntza erabiltzearen aldeko abalegina. Izan ere, jokaera horrek larriki kalte egingo lioke, bestalde, batasunari, herri-hizkuntzatan [gizartean] bitasuna indarrean dagoen lekue-tan, nabasketa, eztabaida eta zatiketarako arriskua izan daiteke. Neuk izandako eskarmentuak erakutsita jakinaren gainean hitz egiten dut honetaz.*

Italiako Gotzainak bereziki itxiak ageri ziren, nonbait, hizkuntza-aldakuntzen arloan<sup>21</sup>, eta Gotzain espainiarrek, oro har, latinari

<sup>20</sup> *Acta et documenta Concilio Oecumenico Vativano II apparando*. Erroma, 1960. Series I, vol II, 266-267. Ik., gainera, Basurko 2006: 44, 56.oh. Edizio-paratzaileak gogorarazi digunez, Donostiako Gotzain katalan honek etxeko hizkuntza arrunta katalanera zuen.

<sup>21</sup> *Diario* (1965-10-10): 468.). Aita Erreparadoreetako Gotzainek honela ikusi omen zituzten Gotzain italiarrak: "Miran a la Iglesia de Italia cerrada en sí misma y opuesta a que la liturgia se inculturice en los diferentes pueblos e idiomas del mundo".

eustea defendatu zuten Kontzilioan<sup>22</sup>. Horregatik ere, Kontzilioko egonaldia ongi etorri zitzaizen azken hauei, berrituz zetozen urak ezagutu, eta hizkuntza-erreformari bide emanez joateko. Atzerritarrei entzuteak eta garai bereko gogoeta-aldi batek lagundu zieten hauei ere, eta Espainiako Gotzaineriak 1964ko apirilaren 15ean Madrilen landu zuen liturgiaren erreformarako bere lehen proposamena, berehala Erromara bidali zuena<sup>23</sup>:

Se determina que las partes comunes de la misa y las lecturas bíblicas se lean en lengua vulgar, y lo mismo los ritos sacramentales.

Erromako Kurian, ordea, ez zen erreparorik falta izan, nonbait, Espainia sobera deslatinduko ote zen edo<sup>24</sup>. Alderantziz, badirudi, Espainiako Nuntzioak (Riberi-k), bihurgunea hartzen lagundu zuela. Hala nola, urte haietan eta beste eremu batean baina hizkuntzak ere aintzakotzat hartuz, Espainiako Gotzainak lekuz aldatzeko politikan egon zen arrazoi linguistikorik ere. Zera dio Argaiak, pasarte esanahitsu honetan<sup>25</sup>:

*Larga conversación con mons. Bascuñana (Solsona). Me refiere su traslado de la diócesis de Ciudad-Rodrigo a la actual. Ha partido de la iniciativa personal de mons Riberi. Como ha obedecido a la misma iniciativa, el traslado a Gerona de mons. Jubany, contra la voluntad del Gobierno, me dice. Se ve que la Santa Sede quiere que cada región lingüística en España, tenga obispos, natu et lingua, del país.*

Argaiak bere aldetik turismoaren mundua aipatu izan zuen, eta turismoarekin zetorren hainbat katolikoren hizkuntza ere pastoralean aintzakotzat hartu beharra azpimarratu<sup>26</sup>.

<sup>22</sup> LABOA, J. M. (2005): "Los obispos españoles defendieron unánimemente la permanencia del latín, aunque permitían variadas excepciones", in: LABOA, J. M. (2005): *Anuario de Historia de la Iglesia*. XIV, 2005, 35.

<sup>23</sup> *Diario*: 191.

<sup>24</sup> *Diario* : 194. "Me dicen que en la Curia romana temen que España se 'deslatínice' excesivamente en el culto".

<sup>25</sup> *Diario* (1964-11-07). 334.

<sup>26</sup> *Diario* (1965-10-09): 466.

Kontzilioko lehen aldiaren ondoren, saiatu ziren Espainiako Gotzainak bigarrenerako prestakuntza eta baliabide hobekak lantzen. Baina ez zen dena samurra gertatu, are gutxiago hizkuntzern honetan. Horregatik, aipatu dugun Gotzainen apirileko Bilera madildar haren inguruko iruzkina hau da<sup>27</sup>:

*Incidente delicado. Los catalanes quieren que por lenguas vernáculas se entiendan todas las que en España se hablan. La mayoría, a propuesta de mons. Olaechea (Valencia), acuerda que, a efectos litúrgicos, la lengua oficial de la nación sea el castellano; y, secundariamente, los idiomas o dialectos regionales. A algunos no ha gustado esa decisión. Deseaban que se aprobase la total igualdad del castellano con los demás idiomas o dialectos.*

Sei hilabete geroago, Gotzain espainiarrak Erroman bildu ziren berriro hizkuntzaren honi heltzeko, urriaren 15ean, Mezako testu itzuliak onartzeko. Herritarrentzat arriskugarri sentitzen zuten *Sacrosanctum Concilium* Liturgiaren Konstituzioa ezartzean hizkuntzen hautapenak eta trukaketak ekar zezaketen iraulketa (270)<sup>28</sup>.

Nabari dago liturgiako hizkuntzen berehalako iraulketa ez zutela egin beldurti eta tradiziozaleek, premia pastoral eta ikusmolde teologiko eta soziolinguistiko berriak zituztenek baizik. Alde horretatik, batez ere Erteuropak jarri zuen gogoeta teorikoak eta Kontzilio barruko ahots praktikoeke egin zuten hori, Misioetako Hierarkiaren parte on batek ere laster Mendebaldetik proposatutakoa onartu ondoren. Argaiak esaldi labur batean bildu zuen honetaz Kontzilioko Aretoan sumatu zuen sentiera: “El latín es lengua arcaica y muerta; por eso no se nos escucha”, dio (217-218). Hori gorabehera, bistan da Argaiarentzat ez dela hori Elizaren urruntasuna argitzeko arrazoi bakarra.

<sup>27</sup> *Diario*: 191.

<sup>28</sup> *Diario* (1964-10-15): 289. “Puede esto constituir una verdadera revolución litúrgica que perturbe las almas”.

Gotzain espainiarrek beren hizkuntza-politika orokorra definitzen zuten bitartean, katalanek lehen iradokizuna egin ondoren, Galizia eta Euskal Herriko galego eta euskararako irtenbideak ere azertu-nahia erakutsi zuten herri horietako Gotzainek. 1965eko urriaren 23an Erroman egin zuten beren bilera Gotzain galiziarrek, Argaia bera ere bertan zela, berrikitan dartzkien eske batzuei erantzun beharrean baitaude, ondoko pasarteetan Argaiaren lumatik ikusiko dugunaren arabera.

Bi une ezberdinetan mintzatzten da Argaia galego liturgikoa-ren arazoaz, eta bietan egoera bertsua deskribatzen digu. Lehen 1965eko udaberrikoa da, eta dominaren bi aurpegiak erakusten dizkigu (402-403):

*El día 1 de abril de 1965, volvemos a reunirnos los obispos de la provincia eclesiástica compostelana, presididos por el cardenal arzobispo Quiroga Palacios. [...] Nos ocupamos del idioma litúrgico. Es éste un difícil asunto. El clero parroquial gallego en su mayoría, casi totalidad, cree que no procede declarar el idioma gallego como lengua litúrgica; como tal, en Galicia debe ser considerada solamente la lengua castellana.*

*Pero frente a esta opinión clerical, se está agitando la opinión galleguista, sobre todo seglar, pidiendo que la liturgia en Galicia se desarrolle también en gallego, en paridad con el latín y el castellano. He recibido algunas peticiones en este sentido. El cardenal presidente nos dice que ha recibido unas 3.000 cartas de petición.*

*La Croix* egunkari frantses katolikoak Galiziako elizgizonen jarrera ezkorren berri eman zuen. Argaiak aipatzen du horren notizia, eta zera gehitzen du, egoeraren arrazoiak honela aurkeztuz (403):

La postura episcopal, que en modo alguno es definitiva, se basa en la opinión unánime de párrocos y arciprestes, y en el hecho histórico de que en la liturgia de Galicia nunca se reza públicamente, ni tampoco se predica, en idioma gallego.

Iritziak iritzi, Erromako bilera galiziar hark itzulpen galegoak egitea erabaki zuen behintzat (Mezakoak, Irakur-liburuak eta Sakramentu-liburuak) (403). Eztabaida eta egitekoa ozpinduz zihozten, eta 1965eko udazkenean ere bizirik zeuden, Gotzain galegoek Erroman egin ahal izan zuten honetaz hurrengo bileran (1965-10-23). Argaiak honela laburtzen du bere lekukotasuna, lehendik esandakoak ere errepikatuz (500):

*Me dice [Quiroga Santiagoko Artzapezpikuak] que, de paso, podremos hablar de la liturgia en lengua vernácula (el gallego). Los galleguistas, sobre todo los seglares, apremian para que se implante desde ahora el uso de las lecturas litúrgicas y de la predicación, en su idioma. Pero se da el caso de que los párrocos de mi diócesis, en su mayoría, no son de esta opinión. Se trata –dicen– de un problema pastoral del todo artificial, que va tomando un cariz político y agresivo.*

Argaia, ikusi dugunaren arabera, urte haietan Galizian bizi zen; hala ere, Gotzain euskalduna zenez, euskal mintzatzailea alegia, hemengo Gotzainek beraren iritzia ere bilatu zuten, Euskal Herrian egin beharko zen latin/euskara trukaketan argi egiten lagutzeko. *Diario*-ak ondoko hau jasotzen du 1964ko azaroaren 16ko datarekin (364):

*Me llama mons. Bereciartúa (San Sebastián), y conmigo a algún otro que conoce el vasco, para conferir acerca de la introducción de la lengua vernácula en Guipúzcoa. Se ha pensado que la homilía sea en castellano cuando la liturgia, a lo menos la epístola y el evangelio, se diga en el mismo idioma, pero ¿qué hacer cuando la liturgia es bilingüe? O ¿cuando la Epístola es en un idioma y el Evangelio en otro?*

Hasi da kasuistika, baina Argaiak ez digu bere idazki hone-tan erantzunik ematen. Batez ere, 1965ean agertu ziren, gero, Donostiako Buletin diozesitarrean, latinari lekuren bat gordez-teko erabakiak, eta euskara eta gaztelaniaren arteko erabilera eta oreka nola zainduko ziren esaten zuten arauak.

Horrek, beste gabe, arretaz egindako azterketa eskatzen du. Alde batetik, Kontzilio-ondoren Erromatik zabalduz joan diren

arauak daude, euskal diozesietan osatu/egokitu zirenak, eta, bestetik, ikustekoa da 1964tik hasitako ibilera praktikoa nolakoa izan den. Horrek guztiak urrunegi eramango lituzke orrialde hauek. Bego horretan, oraingoz gehiago gabe, Argaiaren *Diario*-tik jasotako albiste-multzo hau.

*Joseba Intxausti*  
2009-04-21

**LUIS BARAIAZARRA TXERTUDI  
IDAZLE JAKITUNA,  
EKINTZAILE AURRELARIA 45 URTEZ.**

**1.- LABURPENA, ABSTRACTA**

Luis Baraiazarra karmeldarra intelektual euskaltzalea da, jakintza eta ekintza era militantean josten jakin izan dauena. Eleiz ikasketetako, magisteritzako eta euskal filologiako titulu-duna izatean, batetik, pentsaera unibertsaleko ekarpena egin dau euskal letretan eta, bestetik, euskal kulturako ondarea landu dau, batez be hizkuntzalaritzan. Bestalde, herrigintzan jardunik, frankismoko azken hamarkadan Markina-Xemeineko berbizkunde kulturalako gidari eta erreferente nagusietarikoa da, bai ikastolaren sorreran, baita alfabetatzean, nahiz herri mogimenduetan zein karmeldarren ordenan barruan.

Liburugintzan dana ezin aitatu dogunez, *honeexek zerrendatuko dodaz*: *Adorez* hiztegietaiko ikerlan neurtezina -taldean-, *Jon Lopategi*, *bertsozko mezularia* biografia, Teresa Liesieux-ekoaren *Idazlan guztiak* -lankidetzan-, *Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoa*-ren itzulpen itzelezkoa eta Frai Bartolome Santa Teresaren *Idazlan Guztiak*-en edizino kritikoa, eta zelan ez, *Nire umetako Meñaka* autobiografikoa eta *Nire sasoiko Markina-Xemein* autobiografiko-entziklopedikoa.

Euskaltzaindian Hiztegi Batuko lantaldekoa da eta gramatika batzordeko kide ohia.



Baraiazarra, baina, beste guztiaren ganetik, idazleen itsasoko marinela da, euskalduntasunaren haizeak eta kristautasunaren iparrak nabigarazten dauena. Estilo zainduko eskritorea, erpak gordez xeratsu agertu daitekeena nahiz luma zorrotzez eztena sartzen lebilkeena; bizkaieran uger dakiana eta euskara batuan igeri egiten dauena. Horregatik eta linguistikako ezagutzakaitik dihardu eten barik, **Kili-kilin**, eleizako testuetan, hiztegigintzan, bertsolaritzako munduetan aholkuak, zuzenketak eta orrazketak gauzatzen.

## 2.- TXOSTENERAKO METODOLOGIA

Ez da zeregin xamurra tarte estuan inoren biografia era doitu eta goituan taiutzea. Halan be, guk ahalegin guztia egingo dogu Luis Baraiazarra adiskidearen goi-beheak tentuz eta ganoraz argitzeko. Izan be, Luis meñakarra ezagutu gura badogu, jakin baharko dogu bai eleiz ikasketak, euskal filologia eta magisteritza dituala eginak, baita, Aita Rafaeli likoregintzan lagundua dala be. Hainbat monasteriotan gizaldiz gizaldi gorde izan dan tradizioari eutsiz, baita –hau bere bai gero!- “*Begira, karmeldar bi izan ginan lehenengoetarikoak ikurrina baizetara ataratzen Bergarako plazan*”.

*Jon Lopategi bera ardatz moduan harturik, haren inguruko pertsonak, bertsolaritza, txapelketak, gizartea albait zehatzen agertzea zan helburua*, idatzi dau Luisek *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*, liburuan. Neuk be halantxe jokatuko dot, Luis Baraiazarra ardatz harturik, haren lanak, ekintzak, harremanak Luis bera gunean dala ondurik.

## 3.- NOR DA LUIS BARAIAZARRA TXERTUDI?

Luis Baraiazarra Txertudi 1940.urtean jaioa da, Pelé futbolaria –askorentzat XX. gizaldiko kirolaririk onena- jaiotako urte berean. Horregaitik edo da hain kirolari ona berau be: *Ikasle nintzala ondo moldatzen nintzan kirol guztietan: pilotan, futbolean, igerian... Horreek ziran gure kirolak. Ona nintzan, baina ez onena; beti agertzen zan gebiago zanen bat.*

*Hamar neba-arreba gara* -dino Luisek; *ni bederatzigarrena*. Kristau girorako zenbaki aproposa, eleizako aginduak zenbat, neba-arrebak hainbat, hatan be hamar.

Luisez ganera, Baraiazarratarren familian beste olerkigile bi be badira: Pilare Baraiazarra eta Josune Baraiazarra, Julen Urkizak *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografian* dakarskunez.

Gurasoen ganean esatekoa, Luisek eskaintzen deuten *Nire umetako Meñaka* liburutik hartua dakargu:

Isidro eta Benigna,  
zuentzat da hau, jakina!  
Bistatik joanak adina,  
bihotzean zagozenez,  
hemen nator esker onez.

Luisen aitak eta gureak Errekartean, Artzentalesen egin eben topo. 1936ko gerran, baserriko zabaletik ihesaren estura eta ihesaren estutik inoren eskura jausi ziranean. Patxo Goikoetxea sukaldari gertatu zan Isidro gailurrerantz etorrela:

*-Sagar berdeak bere gozo sasoi honetan Isidro!*

*-Bai, mutil, zorigogorreko gerra hau ganean eta familia ugaria etxean.*

*Lapikoetara hurreraturik, ederto baten jan genduan.* Halan kontatzen eban Patxok.

Horretariko gertaera asko galdu dira, zoritxarrez, ze gerratean bazan fusila, gerra ostean isila.

Pilare Baraiazarrak dinoanez, izakeran eta aurpegikeran Luis amarena da gehiago.

*Gaztetan sandaliekini ibiltzen zanean, pena ikaragarria emoten euskun eta etxean horren ganean egiten genduan berba, batez be elurte egunetan eta hotz egunetan.*

Jakin baeban Pilarek zertan ibiltzen zan mutil gaztea: *Bolibar, Etxebarria eta Berriatua bisitatzean, pilotan ekinaldi la-*



*tzak egin barik ez ginan etxeratzen –dino Luisek. Abitua ez genduan kentzen gauean lo egiteko izan ezik. Pelotan egiterakoan abituaren barrena gerrian bilduta, sandaliak erantzita ortozik gehienetan.*

#### **4.- IBILBIDE AKADEMIKOA ETA KULTURA GARAPENA. ALKARRIZKETA**

Lehenengo ikasketak Meñakan egin zituan. *Nire umetako Meñaka* antologietarako liburuan emoten deusku orduko barri.

Liburu horretan dauka irakurleak Luisen umezaroa, zein amaitzen dan, berak idatzi moduan: *Ni karmeldarretara joatean jausten da agertoki honetako oihala.*

Aitatukeran Luisi kirolari onaren ospea daukala, erantzun deusku:

*Ikasle nintzala ondo moldatzen nintzan kirol guztietan: pilotan, futbolean, igerian... Horreek ziran gure kirolak. Ona nintzan, baina ez onena; beti agertzen zan gehiago zanen bat.*

Patxi karmeldar adiskideak beste hau dino: *Futbolean oso ona zen. Pilotan eta Paletan ere oso ongi jokatzen zuen. Igeri ere oso ongi egiten du, gaur egun ere.*

Lortu dozula uste dozu fraile bizitzan, Jainkoarengan sinesten ez dauen ateoak, behintzat, zeugan sinestea?

*Era eta joera askotakoak sumatu ditut inguruan: gehienak zintzoak, leialak, erlijio gaietan agnostikoak edo sineste bakoak izan arren, sinestedunon koherentzia eta euskal kulturaren alde egin obi doguna benetan estimatzen eta eskertzen dabenak.*

*Badira bestelakoak be: ateo izatea gauza handitzat dabenak, harro agertzen diranak, fededunei eta batez be katolikoei burla egiteko aukera txikienik galtzen ez dabenak. Komunikabide eta tertulia batzuk holako jendez kutsatuta dagozala esango neuke.*

*Badakit guk geuk ingurura zabaltzen dogun gerizaren antzekoa izango dala handik jasoko doguna. Garraztasuna zabaltzen bada, hori biderkaturik etorriko jaku bueltan eta maitasuna eta errespetua zabaltzen baditugu, beste hainbeste eta gehiago jasoko ditugu. Honen antzeko pentsamendua San Joan Gurutzekok agertzen deusku: Maitasunik ez dan tokian ipini maitasuna eta maitasuna aterako dozu...*

Baserria Meñakan laga eta komentuko bizimodura aldatu arren, jagon izan dozu hartu emona etxeokakaz? Horretan komentuetako bizimodua aldatuz joan da, ez?

*Bai, leben ez zan oraingorik. Leben nekezago urten abal izaten genduan. Diziplina zorrotzagoa zan. Markina-Xemeingoa komunidadetxikia izanik, beti izaten dogu zer edo ba egiteko eta nabi baino gitxiago joaten naz Meñakara. Sentimenduz beti ditut gogoan etxeokak eta herritarrak. Gurasoak bizi ziranean, berariazko ahalegina egiten neban bara joateko. Honezkero 40 urtetik gora daroadaz Markina-Xemeinen eta herri biak ditut bihotzean: Meñaka eta Markina-Xemein.*

Karmeldarrok Zornotzan daukazuezan egoitzetan, zeinetan sartu zinan 12 urtegaz? Nortzuk joan ziran zeuri laguntzen? Gordetzen dozu orduko maletea?

*12 urte egiteko nengoan Zornotzako ikastetxean sartu nintzeanean. Zornotzako plaza gainean, Kalbario deritzon lekuan, dagoan ikastetxean sartu nintzan. Larrea gure sasoiari nobizio-etxea zan. Dana dala, gure aurretikoak, Santi Onaindia, Lino Akesolo eta abar, Larreako ikastetxe zaharrean hasten ziran. Larreatarren jauregia zan hori, gerra aurretik bota ebena. Hareek maite eben Larreako ikastetxe zaharra, kultura jarduera askoren lekua izanikoa. Aita Lon Arteaga Mañariako semeak sentimendu handia agertzen eban Larreako ikastetxe zaharraren gainean berba egitean eta behin baino sarriago seinalatu eustan haren bondakinez eta barriez eginiko etxea Zornotzan zein zan...*

*Umetan, etxetik urteteen, ama eta Josu nire anaia izan nintuan lagun, Nire Umetako Meñaka liburuaaren amaieran kontatzen dodanez. Gero, Meñakako kaminora heldu ginanean, taxia geunkan aginduta eta Josu etxera bihurtu zan. Ni amagaz joan nintzan automobileran, Santi Legarreta eta Magdalen honen amagaz eta Jose Luis Ureta eta Josepaz batera.*

*Lehenengo maleta ba, tamalez, galdu zan zirkuluren batek iruntsita. Barriagoren batek hartuko eban haren oinordetza eta honena besteren batek...*

Zenbat urte emon zenduzan Zornotzan eta zenbat Nafarroako Alesbesen? Zer dozu gogoan orduan ikasitakorik?

*Gure sasoiari urte bi egiten ziran Zornotzan eta beste hainbeste Alesbesen. Latin eta giza zientziak (humanidades) ziran ikastetxe bi horreetan ikasi beharrekoak, baina herri txikitako umeen prestaera eskasagaitik eta erdera be ez genkialako, batzuk urtebete gehiago egin behar Zornotzan eta ni horreen artekoa nintzan. Gero, Alesbesen bosgarren maila ipini eben. Beraz, hiru urte Alesbesen.*

*Alesbes eta inguru lehor hareek lehenengoz ikustea itzelezko kolpea izan zan hemengo umeontzat. Trenez Iruñetik aurrerantz ginoiazala, lurra baino ez zan ikusten; ez etxerik, ez berderik. Noizean behin herri koskorren bat, lurrak ia bereganaturik, lur kolorekoa dana... Alesbesko geltokira heldu baino lehentxiago*

*biburgune bat zan eta gure lagun batek esan eban: “Laster etorriko gara barriro bertotik etxerako bidean“. Han ez zala ekanduko uste eban; halako tristurak hartu eban...! Gero, gu apurka-apurka bertakotu eta Alesbesko alde onak probatzen hasi ginan: hango gauaro ederrak izarratuaz, igerilekuan eginiko igeriketak, hango paseoak Aragoi ibai ondora, futbol partidak “La Guindera” futbol-zelaian edota egun osoko paseoa Peñalen-i buelta emonez... Danna dala, gure lagunak ez zituan agortu Alesbesko urteak eta etxera joan zan; biburgune haretatik barriro!*

Gero, Alesbesetik Zornotzako Larreara etorri zinan nobiziatu. Zer zan nobiziatua?

*Gu ikasketa, olgeta eta errezu artean ia konturatu barik aurrera ginoiazan. Nobizio-urtea egitera Larreara etorri ginan. Aldaketa handia. Erlijioso-bizitzaren, ordukoaren, aurpegia eta barrua erakutsi euskuezan Larrean, prest egon ezkeroko profesagiteko edota bestela karmeldar bizitza bertan behera izteko. Gogorra zan biziera ha. Gauerdian jagiten ginan matutiak koruan errezatze, domeka eta jaietan izan ezik... Aszetikako praktikak, zilizioa, penitentziak, antzinatik indarrean egozan obitura ugari; domeka eta jaiegunetan izan ezik ez genduan berba egiteko baimenik; zer edo zer agertu behar zanean, mimikaz egin behar. Costumbres Santas izeneko liburua oso erabilia zan gure artean. Ordenako Erregela, Konstituzioak, Santa Teresa eta San Joan Gurutzekoaren bizitza eta doktrina azaltzen euskuezan, gregorianoa eta orduen liturgiako prestaketak egin eta liburu espiritualak irakurtzen genduzan. Mundutxu horretan bizi ginan nobizioen maisua gidari genduala. Domeketan aldatzen zan apur bat barruko giro hori: Mezetan euskerazko sermoiak entzuteko aukera izaten zan. Meza bat edo bi kantatuak izaten ziran; Perosiren mezak ia beti. Zornotzako kantoreak etortzen ziran. Batzuk bakarlari onak, abots onekoak eta pozik egoten ginan hareei entzuten. Nobedadetxua guretzat. Eguen arratsaldetako paseoak bai gustura hartzen zirala! Garaitondotik San Isidrorra, Lemoatx-era, Bizkargira. Orduerdi edo isilik egoten ginan mendian otoitz egiten.*



*Ni Bizkargitik Sollubepera begira egoten nintzan, Meñaka neu-re txoko maitea begiz bilatu nahirik... Gazteak ginan eta aire erromantiko erlijiosoak hartuak gengozan.*

Profesa Larrean egin ostean, Markina-Xemeinen zertan jardun zenduan?

***Nire Sasoiko Markina-Xemein*** liburuan agertzen dot hemengoa eta ez naz xehetasunetan sartuko. Hauxe esango neuke bakarrik: Profesadunen urtea gozoago egin jakula, Larreako proba gogorak igaro ostean. Leunagoa zan hemengo bizimodua eta hartu-emonak be gizatiarragoak. Eguenetako euskerazko eskolak eta arratsaldeetako paseoak oso gogoko nituan.

Gasteizen burutu zenduzan filosofiako hiru urteak, Lauaxeta -eta atxilo euki zituezan komentuan. Bazeunkan, orduan, Lauaxetarik izan zanik?

*Izena, beharbada, entzuna izango neban Markina-Xemeingo euskerazko eskoletan, baina ez nago ziur. Mogel, Kirikiño, Txomin Agirre eta orduan bizi ziran beste batzuen izenak aitatzen euskuezan. Orixe asko goratzen eben.*

*Gu Gasteizen gengozala, Aita Sabino (Eduardo Olalde) Na-farroako Leringo semea han bizi zan. Lauaxetaren aitor-entzulea zan karmeldar hau. Badakigu Lauaxeta oso erlijioso zala; karmeldar honek ia santutzat ei eukan. Ikasleen aurrean ez zan erabiltzen holako auturik. Nik geroago jakin neban gudarien kartzela izan zala. Ziur nago, gainera, filosofiako lehenengo urtean hareen kartzela izaniko aldean bizi ginala gu. Ikastetxeko alderik zaharrena eta txarrena zan; oso hotza be bai; "Siberia" esaten jakon, oso hotza zalako. Han kartzela izaniko lorratzak sumatzen ziran: lurrean tinta eta bestelako mantxak... Gaur dakidan beste jakin izan baneu...!*

Teologiako lau urteak Begoñako Karmelon egin zenduzan. Zenbat kurtsokide zinien? Euskaldunak danok?

*Hamaika. Filosofia basterakoan hamasei ginan, baina hiru arabar bidean geratu ziran eta beste bi Erromara joan Teresia-*



*num-en teologia egitera. Begoñan guztiak ginan euskaldunak; batzuk erdi euskaldunak. Kontua da profesu nagusiko zeremonian hitzaldia egiteko Aita Jose Luis Beobideri deitu geuntsala, euskera hutsean egiteko esanez. Bera harriturik geratu zan. Egia esan, gure arteko nafar batzuk ez ziran gai euskeraz berba egiteko, baina bai ulertzeko eta hareen gurasoak euskaldunak ziran.*

Apaiztu zinan eguneko zer giro dozu gogoan, nortzuk, zer sentipen?

*Paulo Gurrpide gotzainak sagaratu ginduzan. Ez zan abade eta erlijioso euskaldunen gogokoa, bestera baino; halan be, bainbat abaderi entzun izan deutset ordenazioetan aldatu egiten zala eta alai-alai eta egoki egiten zituala zeremoniak. Halan begitandu jatan niri. Oraindino latinez ziran zeremoniak. Une bi ditut batez be gomutan, berariazko zauskada eragin eustenak: bata, San Joanen ebanjelioko testu hau irakurtzean: Jam non dicam vos servos. Vos autem dixi amicos (Honezkeru, ez deusuet zuei morroi esango; zuei adiskide esango deusuet); eta bestea, guztia amaituta Karmeloko elizan zehar prozesioa egin genduanean Magnificat gregorianoz tonu solemnean kantatzen genduan bitartean. Hau benetan hunkigarria izan zan niretzat eta josita geratu jatan. Gero, familiagaz eta Jose Luis Ureta eta honen familiagaz batera Gorbea jate-txean izan genduan jaia be gozoa izan zan, baina beste ha espirituala eta sakonagoa.*

1966an apaiztu eta hiruren bat hilabete emon zenduzan Larran. Zertan zeniharduan?

*Aurrez Begoñatik joan obi nintzan Larreara; trenez joan eta trenez etorri. Liturgian eta hitzalditxuak egiten gu trebatzea zan gure nagusien gogoa eta, bide batez, beste komunidade batzuei domeka eta jaiegunetako elizkizunetan laguntzea. Ni euskalduna eta euskaltzalea nintzanez, Larreara bidaltzen ninduen. Pozik betetzen neban zeregin hori.*

*Udan, Begoñan teologiako ikasle barrientzat lekua egin behar zala eta, behin-behingoan Larreara bidali ninduen. Han, herri*

*txikietara joaten nintzan; sermoiak idatzi, buruan behin eta barriro ondo pasatu eta pulpitutik sermoia egin. Sasoi haretan bainbat bider izan nintzan herrietako jaietan sermolari. Handik laster, balio handikoak izan ezik, kendu zituen pulpituak eta holan amatatuz joan zan elizetako oratoria. Papera aurean dala bitzaldiak egiteko joera etorri zanean, asko arindu zan gure lana. Ez egoan sermoi erdian galtzeko arriskurik, ezta arduraz buruan behin eta barriro pasatzen jardun beharrik be. Nik uste dot bitzaldiak idatzi behar horrek emon deustala, neurri baten, idazteko erraztasuna. Sasoi horretan, zapatu iluntzeetan, Urkiolara joaten hasi nintzan. Ordubete edo ordu eta erdi jendea konfesatzen jarduten neban eta domeka goiz osoan beste borrenbeste. Nik uste dot hara asko joango ziralda udan eguna mendi aldean igarotzera eta kontzientzia garbitzera...*

1966ko abuztutik gora Markina-Xemeinen zara. Handik aurrera "Aitte Luis" izango zara herritarrentzat. Zer eukan orduko komentuak gaur ez daukanik, eraikuntzan, jendetzan?

*Eraikina bera orain eraberritua eta txukundua dago. Lehengo orturik ez dogu. Etxeak egin ziran, etxe bloke handi bi, bakoitza 12 etxebizitzakoa. Bloke bien erdian plaza zabala dauka: Frai Bartolome Plaza eta azpian garajeak. Alboan zelai ondo zaindua, inguruan zuhaitzak dituala. Horko diruaz eraberritu abal izan zan eraikina, hiru mende (1691) konponketa sakonik egin barik izan ondoren. Eraikinak, bestela, lehengo egitura bera dauka. Eliza be errestauratua dago. Balio handikoa da, Euskal Herriko karmeldarren elizetatik onena; batez be erretaula barrokoak dira ederrenak.*

*Komentuan gaur egun gitxi-gitxi gara; lau baino ez. Ni hona etorri nintzanean, komentu hau profesadunen ikastetxea zan. Orduan 11 edo 12 izango ginan mezako eta ez-mezako eta beste 12 bat ikasle profesadun. Guztiz 23 edo 24. Komunitade honetan pertsona gogoangarriak ezagutu ditut. Nire Sasoi Markina-Xemein liburuan idatzi ditut hareetariko batzuen biografia laburrak: A. Jose Domingo, A. Rafael, A. Hipoli-*



*to, A. Juantxu, A. Jenaro (Makarda) eta honen aita Joakim Makarda... gogo-gogoan geratu jatazan.*

1967an Madrilen igaro zenduan sei hilabeteko tartea. Zertan zenbiltzan espainolen hiriburuan? Ikusi ahal izan zenduan Franko jeneral asesinoa?

*Sasoi haretan, eliz ikasketen osagarri edo, pastoraltza nahiz espiritualidade ikastaroa egitera behartuak gengoan. Espiritualidadeko ikastaroa Erroman egiten zan eta pastoraltzakoa Madrilen eta lehenago Iruñean. Guk Madrilen, Jesulagunen Ikastetxean, egin genduan. Etxe edo leku horrek, handik urte batzuetara, oihartzun handia izan eban komunikabideetan, Carrero Blancoren aurkako atentatua hortxe Claudio Coëllo eta Maldonado bitartean izan zalako...*

*Sei hilabete laster igaro ziran. Nahiko lasaia eta konpromiso handi bakoa izan zan aldi ha. Madrillgo uri handian murgildurik, hango ispiluan, mundua apur bat gehiago ezagutzeko abagunea izan neban.*

*El Escorial, Valle de los Caídos eta Palacio de Oriente bisitatu genduzan, baina ez Pardon bizi zana...*

Maisua zara Luis eta titulua Valladoliden lortu zenduan. Zertatik edo norengandik etorri jatzun diploma hori eskuratzeko gogoia edo premina?

*Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa amaitu barri zan eta aldaketa handia sumatzen zan, bai erlijio giroan eta bai gizarte giroan. Nik horren aurrean neure burua jantzi barik ikusten neban, ia amildegi baten aurrean legez. Don Julian Olazabalaga Lanbide Ikastegiko (Eskola Laboraleko) zuzendaria zan eta Markina-Xemein eta inguruan bizi ginan abade eta erlijioso gazteak eskolak emotera gonbidatzen ginduzan, erlijio eta euskerazko eskolak emotera. Horretan, Julianek edo giroak berak eraginda, ikastolan be irakasle tituludunen beharra egoan eta, hasi ginan maisutza-ikasketak egin nabian. Zorionez, Salletarrak, eta honeen artean batez be Xabier Markiegi bilbotarra, konturatu ziran ikastoletan zan premina gorriaz eta asko erraztu euskuen bidea. Hau da, lehendik formazio ona genduanoi titulu hori ia esku-eskura jarri euskuen...*

Deustuko unibertsitatean euskal filologiako tituluagaz jabetu ziranean, euskal munduko nortzuk ebiltzan zure inguruan, han 1982an?

*Euskal Filologia sortu barri zala, Gotzon Garaterengana jo neban. Nire egoera ez zan ona une haretan Euskal Filologiako ikasketak egin abal izateko. Izan be, ni Bera Kruz ikastolako irakaslea nintzan orduan, egun osoz irakaskuntzari emona negoan; egunero sei ordu. Lan hori alde batera izterik ez neban pentsatzen, komunidadea pobrea izanik, diru-iturri haren beharra eban eta nik neuk be ez neban nahi. Arazo hori agertu neutsan Gotzon Garateri. Harek bietan aurrera egiteko gogoia berotu eustan eta baiezkoan geratu nintzan, baina ordurako matrikulak eginda egozan eta hurrengo urterako itzi genduan. Karrera horretako lehenengo promozioakoak Rosa Miren Pagola, Aitor Etxebarria lekeitiarra, Jon Aurre eta abar ziran eta gu bi-*

*garren promoziokoak. Taldean era askotakoak ginan, bai adinez eta bai izaeraz edo joeraz. Andoni Otazua arratzuarra zan zabarrena, Indautxuko Jesulagunen ikastetxean greko eta latinezko irakaslea; Gentza Belaustegigoitia Laudioko injinerua; Paskual Barturen Bakioko semea eta musikari pasiotarra; Pilare nire arreba eta ni ginan zabarrenak; Manu Etxebarria (Zeberio) gazteagoa, seminariotik urten barria; gainerakoak gazte-gazteak ziran, COU amaitu ondoren Deustura etorriak.*

*Gure taldeko batzuk euskal letretan izen handia lortu eben: Joanes Urkijo, Jokin de Pedro, Joseba Butron, Joseba Sarrionaindia, Manu Etxebarria bera, Xabier Monasterio, Felix Arkarazo aktorea... Joseba Sarrionaindia automobilean sarri ekartzen genduan Durangora; beste batzuetan Galdakaon jaisten zan. Kepa Urrutikoetxea be gure taldekoa zan. Bertozalea zan hau.*

*Irakasleen artean euskal mundukoak honeek ziran: Gotzon Garate, Patxi Altuna, Alfonso Irigoien, Mikel Zarate. Euskal testuak zan honen irakasgaia eta hil zanean zelan edo balan bete zan haren hutsunea: Jose Agustin Arrieta etortzen zan Donostiatik. Txillardegi be izan genduan urte baten; Fonetika eta Fonologia eta Dialektologia emoten euskuzan. Euskal mundukoak horreek ziran.*

*Maria Angeles Larreak Euskal Herriaren Historia emoten euskun, baina sarri bidaltzen zituan bere ordezekoak: Joseba Agirreazkuenaga, Rafa Mieza... Maria Angeles Larreak izen handiko historialariak be gonbidatzen zituan noizean behin bitzaldiak emotera, esaterako, Andres Eliseo Mañaricua, Julio Caro Baroja... Inigo Agirre elorriarra be izan genduan Geografiako irakasle.*

*Orduko jazoerarik sonatuena, ziur asko, Tejeroren Golpea izango zan. Gu laugarren urtean edo ginan; eskola batetik bestera hamar minutuko atsedena. Atsedenaldi baten etorri jakuzan abisua emotera, eskolak bertan behera izten ziralara, Madrilen militarrek parlamentua bartu ebela eta. Kanpora urten*

*eta automobiletako irratiak piztu eta albisteak entzuten egon ginan apur baten, baina laster alde egin genduan. Markina-Xemeinera heldu nintzaneko gauzak kontrolpean ei egozan.*

*Euskal Filologia egitea gogorra izan zan niretzat. Eskerrak gazte eta adoretsu nengoan! Bera Kruzen sei ordu umeekin egin ondoren, arratsaldeko sei eta erdietarako Deustun izaten nintzan; han hiru eskola edo lau, hiru ordutik gora, bidean joan-ertorrian beste ordu pare bat, Trabakuako luperi artean, neguan ia Markinatik urten orduko ilundurik egoten zan. Holan, bost urtean; jakina! nik maisutza plan zaharrekoa egin neban eta, “curso puente” dalakoaz be ezin baliatu izan nintzan...*

Hogei urtean izan zara OHOk irakasle, gelan jaunartzeko adineko umeak eukirik, sarri ernegazongo eutsuen ba? Komedía handi barik konpondu zinan eurakaz? Orain handi diranean eurak edo etxeakoak kontaktzen deustue pasadizoren bat irakasle zereginen ingurukoa?

*Hasieran 2. mailako txikiekin, baina gero 3.ekoekin egon nintzan luzaro. Azkenez, Erdiko Ziklo osoa (3., 4. eta 5.a) amaitu arte ume talde bera izaten neban.*

*Urte haretako gomuta gehienak onak dira; baina arazoak be sortzen ziran. Ume batzuk ez eben aurrera egiten eta kalifikazio edo informe txarrak gurasoei bidaltzean, uste dot nik neuk sufritzen nebala hareek baino gehiago. Nigana etortzen ziran amak nik danerako erremedioa izango nebalakoan. Baina ezin igarri umeen barruan zer pasatzen zan. Hareetarikoz batzuk, berez, buru argikoak ziran, testak kontuan hartu ezker, baina... Ondo ebilzan umeak poz-pozik ikusten nituan eta hareen gurasoak be pozik eta esker onez agertzen jatazan. Hori zan irakaskuntzako gauzarik atseginena niretzat.*

*Diziplina arazoak sortzen ziran batzuetan. Ia guztiak ume onak izan arren, ez zan harritzekoa izaten baten bat nabarmen agertu eta bazterrak nabasten hastea... Halakoetan irakasleak nortasuna eta patxada izan behar eta ez zan beti erraz izaten. Horrek guztiorrek halako mingostasun-sentimen-*

*dua izten dau barruan. Gainera, holakoak etortzen jatzuz gogora, urteetan egin dituzun gauza on guztien gainetik...*

Nor edo nortzuk hurreratu jatzuzan 1988an Adorez *hiztegiak* egitera profesionalki dedikatu zeintezan?

*Patxi Uribarren izan zan lehenengoz nigana hurreratu zana. Biok euskaltzaleak izanik, oporretan elkarrekin ibiltzen ginan. Halako baten esan eustala uste dot. Aurrez, “Bostak bat”eko lau kidek (Txomin Solabarrieta, Patxi Uribarren, Juan Luis Goikoetxea eta Gotzon Aurrekoetxea) Sinonimoen hiztegia argitaratu eben. Gero, lan handiagoa –definiziozko hiztegia– egiteko proiektuari heldu nahi eta, taldea handitzea komeni zala uste eben. Orduan, Ricardo Badiola eta nigana jo eben eta holan basi zan guretzat abentura kultural barri hori.*

*Euskararako Hiztegia izan zan “Bostak bat” taldeko seiok partaide ginala eginiko lehenengo liburua. Baina ni ez nengoan oraindino profesionalki hiztegegintzari emona. Bera Kruzko irakasle izaten jarraitzen neban. Sinonimoen hiztegia antonimoduna egiteko liberatu nintzan, 1988ko azaroaren 11n Bera Kruzen urtebeteko eszedentzia lortuz. Hurrengo urtean beste urtebeterako luzapena lorturik, gehiago ez nintzan itzuli profesionalki irakaskuntzara, baina taldetxu bati bertso-laritza emoten jarraitu neban Ikastolaren nahiari erantzunez.*

Zein ekarpen da zeure-zeurea Adorez bildumako hiztegi-gintzan?

*Uste dot ez nazala egokiena itaun horri erantzuteko. Hori taldekideak esan beharko leukie. Nemo iudex in propria causa... esan obi eben latindarrak. Dana dala, nik maitasunez eta abaleginez jardun dot beti hiztegegintzan: definizioak argi eta zebatz moldatzen abalegintzen nintzan, baita kulturaren ataltxuak, erara etorri ezkeru, sartzen be. Azkeneko liburuetan ez, baina aurreko batzuetan sarreraren eta epilogoaren egilea izan nintzan. Zuzenketak eta azken irakurketa egitea egokitu jat sarri... Dana dala, elkarlanean eginiko lanaren tolesturetan ezkututzen da bakoitzarena eta ez da erraz izaten norbe-*

*rarena zein dan ondo bereiztea; gainera, inorena geurengana-  
zteko arriskua be bada hor.*

1991n hiztegi batuko batzordera deitu zinduezan. Harrezke-  
ro, bizkaieraren homologatzerako eta euskera batuaren moder-  
nizatze lanetarako behar handia burutu dozu, baina konkretuki  
zer ekarpen eginik?

*Aurreko erantzunak, gitxi gorabehera, bonako be balio  
dau. Lan-talde hau nahiko orekatsua dala esango neuke: eus-  
kalkien lekukotasun ziur samarra emon leikienak, zientzia eta  
teknikako terminologia, literaturakoa ondo menderatzen dabe-  
nak, UZEIn urte askotako esperientzia dabenak, metodologia  
zehatz aplikatzen dakienak...*

*Ni aurreko faseetan ibili izan naz erosoan, hau da, hiztegi  
orokorreko lexikoa aztertu izan danean. Bizkaieraren lekuko-  
tasuna zehatz emoten ahalegindu izan naz, baina zama edo  
erantzukizun handiegia sumatzen neban neure gain; bizkaie-  
raren beste lekuko baten babesa asko estimatuko neban...*

1996an gramatika batzordera be sartzen zara, batetik, euskal-  
gintzan hainbeste zereginetan jardunik, bestetik, unibertsitateak  
Euskal Herrira ekarri dauen espezializazioaren giroan, zein arlotan  
egin izan dozu ekarpenik aberatsena, eta zeinetan ez zara sartu?

*Gramatika-batzordean emoniko urteak ez dira asko izan.  
Batzorde horretan be bizkaieraren lekukotasuna emotea izan-  
go zan nire ekarpenik onena. Arau-proposamenak eta txoste-  
nak be landu nituan, baina txostenak egiteko goi-mailetan  
irakasle izatea behar-beharrezkoa ez bada be, guztiz komeni-  
garria bai. Horregaitik, sekula be ez neban gustura jarduten  
batzar hareetan. Isil antzean egoten nintzan gebienetan eta  
sarri esaten neban neure kautan: “Zer egiten joat nik he-  
men...?” Bertako giroa be ez neban gogoko. Halako baten ur-  
ten neban eta ez dot damurik.*

Bizkaiko Bertsozale Elkarteko idazkari izan zara urte asko-  
tan. Epaila zereginetan be hainbat mailatan jardun izan dozu:





Eskolartekoan, Araba-Bizkaikoan, Bizkaikoan eta Euskal Herriko txapelketa nagusian bi bider, euskalgintzan ahozko berbe-teari jagokonean, ondoen jorratu dogun arloa da bertsolaritza?

*Ikasle nintzala, Euskal Herriko txapelketako saio bat jarraitu ahal izan neban irratiz; Ustapidek, Lazkao-Txikigaz burruka estuan, bigarren txapela lortu ebanekoa; Gasteizen nengoan, Filosofian. Arte horrek liluratu egin ninduan eta Begoñan nengoala, neure idatzizko saiotxuak egiten hasi nintzan. Hor hasi nintzan benetan bertsolaritza zaletzen. Markina-Xemeinen egun berezietarako bertso jarriak prestatzen nituan: umeen lehenengo jaunartzeetarako, Gabonetako jaialdietan umeak kantatzeko... Gero, ondo moldatzen nintzala eta, eskatu egiten eustezan holako edo halako ospakizunera-ko eta nik ezetz esaten ez nekian eta beti baietz!*

Bertsolaritzan, Luis, harrobiko lana be egin dozu neska-mutilak bertsoagaz zaletu daitezana. Zein emaitza lortu dozu adibideetan adierazteko moduan?

*Bai, harrobiko lana egin dot. Zaletasun hori barruan sartuta neukanez, neure taldeko umeentzat bertso jarriak idatziz gainera, bareei bertsoen teknika irakasten hasi nintzan. Hau Jon Lopategi liberatu moduan eskolarik eskola hasi aurretik izan zan. Laster hastekoa zan. Gogoan dot euskeraren eguna ospatu zala Markina-Xemeinen eta egun haretan, plazan, lehenegoz atera nituan umeak oboltza gainera. Egituraz bertsolari helduen moduko jaialdia geunkan prestatua: hasierako agurra, ofizioka, lau oinak emonda, puntua emonda,, ordu erdi inguruko saioa buruz ondo ikasita. Abel Muniategi eta Jon Lopategi han ziran entzuleen artean. Jakina, hau laster hasiko zan eskoletan bertsolaritzira irakasten eta umeak eginiko holako jaialdietara etortzen zan giro horretan sartuz joateko. Halako txalo-zaparradarik...!*

*Jon hasi zanean, irakasle eta andereño bertsozaleak hartu zituan lagun eta horreen artean ni. Epaille moduan be orduan hasi ginan, lehenengo eskolarteko txapelketan, Lea-Artibaiko txapelketa xeibre baten hurrengo, Bizkaia-Arabako txapelketan, Bizkaikoan eta azkenik Euskal Herrikoan. Mailaz maila gailurreraino igon genduan...*

*Umeekin bertso-kantari eskolarik eskola eginiko ibilaldiak ditut gogoan. Poz-pozik ibiltzen ginan. Prestatzea kostatzen jakun, guztia buruz ikasita eroaten eben eta. Autobusean joan eta Ondarroan ikastola bitan kantatu genduan eta Lekeitio beste bitan; Lekeitiotik Gernikara eta han hiru lekutan jardun genduan: Seber Altube eta San Fidel ikastoletan eta arratsaldean, bazkal ondoren, Mesedetako Ikastetxean. Bazkaria Gernikako jatetxe baten. Nik uste dot urteko egunik gozoenarikoa izango zala umeentzat. Saioak ez eutsen ardurarik sortzen, buruz ondo ikasita euken-eta, guk abade egin barri sermoiak ikasten genduzan moduan... Beste urte baten Gipuzkoa aldera joan ginan: Elgoibarko eta Eibarko ikastoletara eta, azkenik, Durangoko Kurutziaagara. Horreek izango ziran gure txikien balentriarik handienak.*

*Talde horretakoak nigaz eta Jon Lopategigaz ibili ziran, baina inork ez eban bide horretan aurrera egin. Aurreko urteetan*

*izan nituan taldeetatik Iratxe Ibarrek egin dau aurrera, oso gora gainera. Gorka Ostolaza be ibili zan nigaz apur baten, baina ez zan eskolako nire taldekoa. Ni hasi aurretik, “Buztarri” gaz ibilirikoak bertsotan ibili ziran urte batzuetan: Aitor Elexpuru, Juanjo Elordi (orain euskal zinemagintzan dibarduana) eta Iñigo Ibarra (oraingo “Ander Lipus” aktorea, Iratxe Ibarraren lebegusua)... Markina-Xemeinen tentaldi gogorra izaten eben mutikoak sasoi baretan, zesta puntak indar handia eukalako...*

Bertsoari artearen ikuspegitik begiraturik, zuk, jakitun moduan, zertan dirala desbardin esango zeunke hirurogeietan diran bertsolariak eta hogeita hamar berrogeietan diranak.

*Aldaketa handia sumatzen da. Bertso-eskolak eta bertsolari-tzako material pedagogikoak (Hiztegi errimatua...) eragin handia izan dabe. Bertsogintzarako trebetasun ikaragarria sumatzen da goi-goian dabiltzan bertsolari gazteen artean; alde horretatik ia ezinik ez dabela begitantzen jat. Baina, jakina, trebatze eta aurrera egitean, honetan edo horretan galdu be egiten da apur bat; ez da guztia irabaztea, esaterako, artifizioan, erraztasunean... ia muga bakoak dirudie, baina Lazkao-Txikiren jenialtasun, umore eta fintasuna, Azpillaga eta Lopategiren herriaren arazoetan sartzeko sentiberatasuna, Amurizaren maisutasuna mundu modernoan bertsolaritza sartzeko, orain erdi erretiroan dagozan askoren kantaera dotorea... Horretan apur bat galdu egin ete dan nago.*

Kili-kili aldizkariko euskeraren kalidadea zeuk jagon izan dozu, orrazketa eginik edo euskera batuan jarritz. Zenbat urteko lana sartu izan dozu horretan? Emon deusuegu kili-kilitarroi behar hainbateko esker ona?

*Jose Antonio Retolazak nigan konfiantza handia izan dau eta ni al bait ondoen erantzuten abalegindu naz; benetan poztan naz horretan lagundu dodanagaitik. Kili-kilik Euskal Herri osoan eginiko lana harrigarria izan da.*

*Gure erakunde publikoak ez deusie eskertu behar dan bestean Kili-kiliri egin dauan lana. Are gebiago, azken aldian baztertu*

*egin dabe. Jakina! Kili-kili ez zan isiltzen eta behin baino sarriago salatu zituan goikoak, euskera kontuan epelak izateagaitik...*

Testu zuzentzaile zeregina alde guztietatik egokitu izan jatzu, bai Karmelen, bai sariketetan, baita eleiz liburuetan nahiz hiztegi-gintzan. Euskerak zer egoera erakusten dau hainbesteko zuzen-keta lanak emoteko, hau da, zer zuzendu izan dozu, gehienbat?

*Normalizazioa guztiz lortu ez daben hizkuntzen zoria dala uste dot. Euskara batuan gauzak argiago dagoz, arauak nahiko zehatzak diralako; bizkaieraz idatzi nahi dogunean, hainbat zalantza sortzen jaku. Esaterako, Hiztegi Batuak “bakotx” e. “bakoitz” dakar eta “bidaldu” e. “bidali”; beste kasu askotan bizkaieran erabiltzen dan aldaera agertu be ez da egiten Hiztegi Batuan, esaterako, “batx”, “baretx”, “eleiza”, “antxina” eta abar; “haitz”, “haritz”, “eliza”, “antzina” eta abar bakarrik agertzen dira. Zer egin bizkaiera jantzian idatzi nahi bada? Nik Markina-Xemeingo liburuan bide-saria ordaintzea erabagi dot eta arauturiko formak sartu ditut, baina zalantzaz eta kezkaz geratu naz geure aldaera jatorrak alde batera itzi ditudalako...*

*Bestalde, testuak orraztean, –Kili-kiliko testuetan, esaterako– ez zan bilatzen testuak zuzenak izatea bakarrik, baita hareek hobetzea be ahal dala. Asterix, Mortadelo eta Filemon... pertsonaiak, euskerara itzulita ez eze, euskaldunduta agertu nahi izaten genduzan ume euskaldunen aurrean..*

Karmelen Idazle Kontseiluko zara. Dana dala, aldizkari horretan zer idatzi dozun baino zer idatzi ez dozun agertzea erosoago gerta daiteke. Karmelego alineazino finkoa nortzuk osotzen dozue aspaldiotan? Berba laburretan zer esango zeunke aldizkari horrek emoneko uztaz?

*Karmel aldizkariak, izan dituan gorabeherak izanda, hau da, diktaduraren sasoiko debekuak eta etenaldiak izanda, maila duin baten irauteaz asko egin dau. Erakunde bat (Ordena erlijioso bat) atzean eta horren barruan zuk dinozun*

*“alineazino finkoa” izateak asko esan nahi dau aldizkariak aurrera egin dagian. “Alineazino finkoak” eta, gainera, musutruke artikulua idazteko prest dagozan beste euskaltzale fin batzuk inguruan izateak.*

Zeruko Argian, Olertin, Garaian-eta idatzi dozun arren, fraile.-izerdia *Karmel* zeuen aldizkarian isuri izan dozu. Urte askotako beharrak eskaintzen deuskun ikuspegitik adituta, zer da *Karme*lek Euskal Herriari oparitu deusana?

*Euskal letren munduan urte askotako presentzia izan dau *Karme*lek. Gerra aurrean izan eban sorrera eta oraingoraino hortxe dirau tinko. Gerra aurrean eta gerra ostean, Lino Akesolok esan obi ebanez, hainbat gazteren luma zorrozteko eta “ofizio” horretan trebatzeko tresna egokia izan zan *Karmel*. Gaur egunean *Karme*leko idazleen artean oreka polita ikusten da. Balendin Aurre-Apr aiz, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Augustin Zubikarai, Jon Beiztegi, Sabin Muniategi, Angel Bidaguren eta abarren belaunaldia joan zan. Jende helduak eta gazteak osotzen dabe oraingo idazle-taldea. Aldizkariaren lemaizina, jakina, Ondarroakoa izan behar. Bada literaturaren atalaz eta idazle gazteak biltzeaz arduratzen dan pertsona bat, hau be Ondarroakoa eta, azkenik, aldizkariaren alde estetikoaz arduratzen dana, azkoitiarra eta Donostian bizi dana. Horregaitik esan dot aldizkaria orekatsu agertzen dala.*

*Aldizkariak era askotako lanak eskaintzen ditu. Beraz, edozein irakurlek aurkitu leike hor beretzat interesgarria dan lanen bat, sail baten ez bada, bestean, askotariko aldizkaria dalako.*

Olerkaria zara Luis, bai *Hitzezko txirlorak* argitaratu zendualako, baita zeure burua 80ko hamarkadan sariketetara aurkeztu ohi zendualako, eta inork ez dau plazara urtetan sagar ustelak erakusten. Zein sarik poztu zinduzan gehien?

*Ni ordurako *Karmelen* batez be, baina baita Zeruko Argian be neure lantxuak eginda nengoan, baina ia inork ez ninduan ezagutzen idazle moduan, hur-burrekoak izan ezik. Gaztea eta euskaltzalea izanik, neure burua apur bat agertu*

*gureak eragin eustan lehiaketetan parte hartzera: neu be norbait banintzala eta euskal letretan neure ekarpena egiteko gai nintzala erakutsi nahi neban. Azken baten bibotzak eta idealismoak eraginda sartu nintzan.*

Sari guztiak izan obi dira pozgarriak, baina Eusko Jaurlaritzak emoten eban “Lizardi Saria” izan zan niretzat pozgarriena. Gainera, data haretan Euskal Herriko Karmeldarrak Probintziako Kapituluuan bilduta egozan eta komunikabideetatik jakin ebeanean zoriontzeko telegramea bialdu eusten. Orduan izan zan **Nire Umetako Meñaka** liburuan kontatzen dodan anekdota polita be. 316. orrialdean dator eta ez dot hemen barriro idatziko... Nik, baina, guztiz interesgarria danez, ekarri egin deusat irakurleari ze, egon be liburu eder hori agortuta dago-eta.

Abadeak soloak bedeinkatzen zituan noizbehinka eta meza-laguntzaileak (akolitoak), bitartean, limosna eskatzen ibiltzen ziran aterik ate. “Gari-bedeinkatzen” esaten zan. Halako baten nenbilala hartu ninduan A. Luziok. Lagun bi etorri jatazan barri emotera: euren izena eta nirea be emon ebela Zornotzako ikastetxera joateko... Santiago Legarreta eta Jose Luis Ureta ziran nire lagunak. Hau be bada, ba! Neu aurrez aurre eta zuzenean, beharbada, ez nintzan ausartuko eta beste batzuk erraztu eusten bidea. Haretara jarri nintzan, bada, pozik eta era berean arduraz! A. Luziok gogo-gogoan izan zituan zertzelada guztiok. “Gari-bedeinkatzean” aurkituriko bokazioa nintzan ni eta sarri-sarri gogorarazten eustan.

Aldi haretan sermoiak egiten-edo egunetan izan zan Meñakan. Egin-eginean be asteko nintzan ni neure ofizioan, meza erasoten. Goizean goiz joan nintzanean, sakristian aurkitu neban errosarioak egiten. Ohi ebanez, irribarre kirrikatsuz eta bestetan baino be txeratsuago hartu ninduan. Nik –oraintxe be neure burua ikusten nagoala dirudi– barruan neukana, arduratzen ninduan bildurra agertu neutsan: zabarragoak edo ikastetxean lehendik egozanak esanda entzun izan nebala, ban liburu handiak eta asko ikasi behar ziralara. Ni ez nintzala gai



*izango eta ea zer egingo neban... Ez dakit zer erantzun eustan. Apurka-apurka dana egiten dala. Holako berba pozgarriak izango ziran. Asaskatu eta pozik geratu nintzan, behintzat. Hau be gogoan eukan. 1984an Eusko Jaurlaritzak antolatzen eban Lizardi Sarian, hau da, olerki sariketan irabazle izan nintzan. A. Luziok bertsotxu batzuk idatzi eustazan, zorionak emonez eta bide batez sakristiako pasadizo hori gogoraraziz.*

*Haren hileta-elizkizunean holan agurtu neban, neure eta lagunuen izenean hari esker ona agertuz:*

Jainkoak bialdua  
txikitxuengana,  
guri entzunaraziz  
haren deia zana;  
errosarioa ta  
estanpatxu bana,  
holan eroan ginduzun  
Karmengo Amagana.

Bizitzako goizean  
eta arratsean  
debozino berezi  
baten lorratzean:  
Teresa Lisieux-ko  
zeunkan bihotzean.  
Gure partez musu bat  
harekin batzean.  
Hodei ilunak dira  
jarri hor bitarte,  
eta joana zara  
gugandik aparte;  
Zeruko Karmel dozu  
orain senitarte.  
Agur, goiko etxean  
danok batu arte!



*Euskal Herriaren Historia I eta II* argitaraturik, zeure zeure jakintza arloko polifazetikotasuna erakutsi zenduan. Bertan, ikertze lanetan ez duzula jardun izan aitortzen dozun arren, bilketa, taxuketa eta egokitze lan itzela burutu zenduan. Orain 30 urteko liburua dan arren, ez dozu uste gaurko gazteriarentzat be apropos-aproposa dala?

*Sasoi baretan irakaskuntzako era guztietako materialak falta ziran. Gure historia aztertzen eben lanak lehenago be baziran, baina irakaskuntzan testu liburu antzera erabiltzeko modukorik ez. Are gitxiago euskerazkorik. Gaztelaniaz Federiko Zabalak, Karlos Caballerok Gasteizko Jesus Obrero Ikastetxerako eginiko material inprimatu bakoa, ziklostilez eginiko liburukote handia zan eta Martin Ugaldek eginiko Síntesis de la Historia de Euskal Herria... Horreek ziran gebienbat orduan eskura geunkazan materialak. Konturatzen ginan Euskal Herriaren historia euskera errazean irakaskuntzan sartzea oso garrantzitsua zala. Gure karmeldar adiskide batek, Antonio Unzueta aramaioarrak, Historiako eskolak emoten zituan sasoi baretan Zornotzako Ikastetxean BUPen. Eskolak gaztelaniaz ziran, baina historia unibertsalaren osagarri legez, Euskal Herriko historiaren eskolak be emoten zituan. Horretarako, berrogeita hamar bat folioko laburpena prestatu eban ez dakit zenbat kapitulutan sailkaturik; uste dot goian aitatu ditudan materialak erabili zituala laburpen ha moldatzeko. Nik, lehenengotan, folio hareek hartu, euskerara itzuli eta zerbait gehituta, haren antzera baina apur bat txukunago prestatu neban material txiki bat. Harrera ona izan eban eta ha izan zan liburutxu bi horreek egiteko abiapuntua. Historian aditua ez nintzan eta, ez neukan segurantzarik neure buruarengan, baina hutsune handia bete eban lan horrek ikastoletan. Orain dala bi edo hiru urte Euskadi Irratirako elkarrizketa egin eustan Tere Belokik eta ikastolan nire liburuok erabili zituala esan eustan eta gomuta ona itzi eutsien, kontizu...*

Bidegileak saileko liburuxketan agertzea ohore handia da euskaldunarentzat. Zuk, Luis, halako lau bidegileren biografia

idatzi dozu. Ondo baizen sakon ezagutu izan dozu euretariko baketxa. Halanda guzti, kontu asko lagako zenduan lekurik ezagaitik liburutik kanpo. Danean dala, zer izaten da halako biografiekin lortu gura izaten dana?

*Sail horretan biografia labur-laburrak izaten dira euskara batu erraz-errazean idatziak.*

*Gure gaztetxuak ereduak behar ditue, nor bere ogibidean euskerari eta euskal kulturari leku duina emon deuseen gizon eta emakumeak aurrean izatea. Holan konturatuko dira eurekin ez dala hasten mundua; lehenago be bazirala kultura arloan gauza interesgarriak egin eta ondorengoei bidea markatu deutenak. Eduki sakon eta luzeak egokiak izan leitekez beste batzuentzat, baina gaztetxuentzat jaki gozoak behar dira, betekada astunik ez eragiteko...*

Idatzi dozuzan liburuetariko bat da *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*, 2000. urtean. Harrigarri gertatzen da, eta nor zaran adierazgarri, Jon Lopategik, txapeldun handiak zuregana jotzea liburua idatzi deiozun. Zein metodoz atondua da liburu aberats hori?

*Lopategik berak ez eban nigana jo. Santi Jaka eta Joxean Agirre etorri jatazan. Baina badakit Jonek pozik hartu ebara bere biografia nik idaztea. Egia esan, egokiena berak idaztea izango zan, baina ez dot uste horretarako giro egokia ebanik. Eskolarik eskola ebilen eta orduan bertso-saioak be ugari izaten zituan. Sosegu pixka bat nabitaezkoa da holako liburu bat idazteko. Bestela, Jonek idazteko gaitasuna berez badau; liburuaren hasieran datozan auzoko pertsonaia batzuen kontuak, esaterako, berak idatzi zituan eta nik apur bat orraztu baino ez neban egin ataltxu hori.*

*Metodoa bidean moldatuz joan ginan. Lehenengo hainbat zinta bete nituan grabazioz eta gero material hori ordenatuz, landuz eta abalik ondoen idatziz joan nintzan. Sasoi haretan, gainera, astero etortzen zan Markina-Xemeingo eskoletara eta alkarregaz bazkaltzen genduan tabernan. Gauza batzuk sarri*

*errepikatzen zitudan, bai anekdotak, bai ideiak eta pentsaera gauza askori buruz. Nire abalegina Jon Lopategi bera ardatz moduan harturik, haren inguruko pertsonak, bertsolaritza, txapelketak, gizartea albait zebatzen agertzea zan. Liburu honegaz oso pozik geratu nintzan.*

Itzulpengintzan behar itzelak egin dozuz. Danen artean goia jo dauena *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*. Zer denpora eskaini zeuntsan piramide-lan erraldoi horri?

*Urtebetean amaitzekotan geratu ginan; ordaintzeko konpromisoa be urtebeteko lanarena zan, baina ia urte bi emon nituan horretan eta, ekonomia aldetik, tratu txarra egin genduan, azkenean pixka bat konpondu bagenduan be. Lan ikaragarria izan zan eta pozik geratu nintzan, euskeraren eta Elizaren alde holako lan ederra burutu abal izan nebalako. Ni sinisturik nago itzulpen handi hori egitean goiko laguntza izan nebala, bestela ez neban bain egoki burutu abal izango...*

Kontzilioko dokumentuak doi eta zehatz itzultzeko latinaz baliatu zara, Lisieux-eko Teresaren Eskuizkribuak itzultzeko frantsesaz; teologia eta filosofia ikasi zenduzan, magisteritza eta euskal filologia be bai. Ez jatzu inoz burutara hurreratu unibertsitateetako irakasle bilakatzeko gogoia, nahia?

*Ez, holakorik ez.*

## **5.- LUIS BARAIAZARAREN IKUSPEGI SINOPTIKOA**

Ekintza, lan eta sormenaren ganeko eretxia emoteko, beraren lerro idatzietako ildoari jarraitzea erabagi dogu ze, burutu dituan behar erraldoiak eurak dira, berez, gora mintzo. Ganera, Luisek berak eskaintzen deusku bizi izanekoaren lekukotasun idatzia.

Ekintza idatziak dira Luisenak, Luis euskal kulturako laboraria da, "Euscal-Errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba" dastatzeko astirik bakoa. Asko idatzi dau, luze eta zabal. Eskritorea da, berez baizen errez jasoko deusuna kutuna nahiz urruna.

Sinboloz baliaturik, esan daigun Baraiazarraren bizi-lana zubia dala, begi askoko zubia. Egituran, zutoin bat irakaskuntza da, hizkuntzalaritza bigarrena, hiztegi-gintza barruan dala, bertso-laritza hirugarrena, itzulpen-gintza laugarrena, herrigintza bosgarrena, idazletza seigarrena eta seigarren honetan oina harturik jartzen ditu zubi gainean dorre bi, ertz baten *Nire umetako Meñaka* dala eta bestean *Nire sasoko Markina-Xe-mein*, eta batetik besterako kable altzairuzkoak berrogeitak urteetako *Karmel* aldizkari-ko artikulua eta saioak. Goitik beherako egitura karmeldarra, zeinetan sartzen diran sermoigintza, eta, fraile bizitzako eginkizun jakinak.

### 5.1.- Liburugintza

Miguel de Unamuno gureak –inorena izatekotan gurea da -eta- ohe gainean etxunda idazten eban, urteen astunak zutunik ibiltzea galarazoten eutsanean, eta idatzi be lapitzez, lumak ez dau gora begira idazten-eta.

Nik neurez, ahozpe-ze baino aratinez irakurtzeko ohiturea izan dot gogoko, 14 urte-gaz Dostoievsky leidunten hasi nintza-netik gora, baina orain, okerra galanta hurreratu jat honeek Luis Baraiazarra eta karmeldarrak bizpahiru kiloko liburutzar-rak argitaratze-ari ekin deutseenetik gora, halan Frai Bartolome Santa Teresaren *Idazlan guztiak* 1556 orri-koa nola *Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoa* izenekoaren dokumentuak 1500 orri-ko. Halanda ze, orain ez dago aratinez irakurtzerik.

Hona hemen Luisen euskal letretako lanak:

**Karmel-sorta:** *Karmel* aldizkariak sortutako sorta honetan ageri dira Luisen lanik luzeenak eta sakonenak:

- *Elizaren Historia Euskal Herrian* (1995) Julen Urkizare-kin elkarlanean (bera da euskarako testua). Egin dauan lanik ederrenetarikoa eta garrantzirik handienetarikoa.
- *Frai Bartolome Santa Teresa, idazlan guztiak* (200) Ju-len Urkizarekin elkarlanean. Edizio kritikoa. Bizkaiko klasiko honi buruzko lanik sakonena.

“**Bostak bat**” taldeak “**Adorez**” hiztegien sortan argitaratu-tako lanetan honako liburu hauek ageri jakuz:

*Diccionario 3000 Hiztegia* (Eguneratua eta osatua) - “Adorez 7”, 2002an (+CD-ROM); *Eskola Hiztegia* (Oinarrizko hiztegia. Eguneratua, Berriztatua...) - “Adorez 5” 2005ean; Euskal aditza -Trinkoa - Bizkaiera - Zuberera -“Adorez 10“, 2006an.

- *Santa Teresa Lisieuxkoaren Idazlan Guztiak* (1996, elkarlanean)
- *Joan Gurutzeakoaren Erromantzeak* (1991)
- *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa (Konstituzioak, Dekretuak, Adierazpenak eta Dokumentu osagarriak)* (2003 Deustuko Unibertsitatea. 1.500 or.)
- “*Deus Caritas est*” (Benedikto XVI.a Aita Santuaren lehen Entziklika. 2006. Euskal Herriko Elizbarruti guztietara zabaltzeko asmoz Donostiako Elizbarrutiaren eskariz eginiko itzulpena)

#### LITERATURA ARLOKO ETA GAINERAKO LIBURUAK:

- Euskal Herriaren Historia (I, II): 1980an ikastoletarako materia eskaintzeko asmoz bi liburukietan, “Gero-Mensajero” argitaletxeak “Kimu” sailean argitaratuak
- Hitzezko txirlorak. Donostian “Elkar” argitaletxeak 1985ean argitaratua. Olerki-liburua, 1981ean hasita Euskal Herriko sariketetan lehenengo edo bigarren saria lortutako olerkien bilduma.
- Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertsogintzaren lekuko (1993, elkarlanean)
- Jon Lopategi, bertsozko mezularia “Bertsolari liburuak” 2000
- Frai Bartolome Santa Teresa, idazlan guztiak (2000, Julen Urkizarekin alkarlanean)
- Nire Umetako Meñaka (2005, Meñaka)

*Liburuxkak lankidetzan, “Bidegileak” sortan:*

- Santiago Onaindia (1998, Julen Urkizarekin elkarlanean)
- Augustin Zubikarai (1999, Julen Urkizarekin elkarlanean)
- Lino Akesolo (2002, Julen Urkizarekin elkarlanean)
- Hipolito Larrakoetxea (2005, Julen Urkizarekin elkarlanean)

## **5.2.- Hizkuntzalaria: lexikologian aditua**

Luis hizkuntzalari jantzia da. Euskal filologia egina, euskara batua be bere egiten dakiana, ikasiko estandarraz be artea sortuz diharduana. Bestalde, bizkaiera –euskalkiak- eta euskara batua maisutasunez bereizten eta osotzen ditu.

Arratiako Areatzan burutu ziranean Euskaltzaindiaren Jardunaldiak Añibarroren omenetan, hitzordua neukan eskatua Rudolf de Rijk holandar euskaldunari, tesiko gaien artean bizpahiru zulo baltz neukazalako. Nire itauna:

- Zelan bereiztu neikez, non da giltza euskara estandarren eta euskalkiaren arteko *munarria jartzeko? Bat-batean berak:*
- *Hori begenki hizkuntzaren korapiloa behin betiko askatuko geunke. Jakina kontua ez zan estadu edo botere batek euskalki ezagun bat hizkuntzatzat hartzen dauen edo ez.*

Luisek jakintza gai korapilatu horretan praktika era bat argia darabil. Erregistroetan, bestalde, Meñakako euskera, Markiñakoa edo aspaldikoa menperatzeaz ganera, klasikoen erabilera-rik jasoenak be eroso darabilz bere idazlanetan-eta: *Elkarrekin egoteko berbatu ginen ordua iritsi zenean. Ez zitzaidan zail begitandu. Nik ezin niezaioke hari jarraitu, utzi dituen oinatzetatik izan ezik. Inoiz tristurak jo banadi, tristurak eraso banadi. Ustez zure doinu gozoa oraindik badantzut.*

Hiztegi gintzan be une guztietan hartu behar izaten dira erabagiak, eta Luisek hartuak dira, esate baterako: Noiz itzuli *santu* eta noz *sakratu*; noz erabili *komunitate* eta noz *elkarte*; noz *ministerio* eta noz *zerbitzu*; noz *karitate* eta noz *maitasun* eta abar.

### 5.2.1.- Lexikologia arloan eginiko lana

*Luisek, nire ustetan, euskararen arloan burutu dauan lanik handienetarikoa lexikologia arloan egindakoa izan da. Bizkaian azken 20 urte hauetan inork egin izan dauan lanik oparoenetarikoa* –baieztatzen dau Patxi Uribarren euskaltzainak. Lan erraldoi hori bi bidetik burutu izan dau:

Luisek *ADOREZ* sortarako prestaturiko hainbat eta hainbat definizio aurki daitezke geroago etorri diren definiziozko hiztegi gietan, hitzez hitz kopiatuta edota orrazketa txiki batzuk eginik jasota. Hor ditugu bizkaieratik baturako bidean egindako ekarpen eder modura plazaratuta.

Patxi Uribarrenek holako balioa emoten deutso Luisek *Adorez* taldeko hiztegi gintzari: *Taldekide egin zenetik, bera izan da definiziozko hiztegien prestatzailea eta zuzentzailea. 3000 biztegi an prestatzailerik nagusia, eta zuzentzaile-bateratzailea ere bai. Eskola* Hiztegi an nabari da bere ekarpen nagusia. *Taldearekin 12 urte egin zituen liberatuta hiztegi gintzan lanean, gure biztegi an txukuntzen.*

Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordera berak eroanek dira termino asko.

### 5.3.- Itzultzailea eta estilo zuzentzailea

Teresa Lisieux-ekoaren eskuizkribuak eta *Olerki* itzuliak irakurrikeran konturatzen da norbera itzulpenaren zama zenbatekoa dan, zer neurritarainoko ekarpena egin behar dan hizkuntza handi batetik normalizazino bidean dan batera. Horregaitik da lorpen harrigarria pasarte jatorrizkotzat hartzeko bestean itzultzea. Hara:

“Bai gozoak izaten zirela begiralekuan izaten genituen solaldia! Begirada urrutian galdurik, ilargi zuria zuhaitzen atzetik emeki jaikiz ikusten genuen..., lotan zen izadiaren gainean isurtzen zituen zilarrezko printzak..., izar distiratsuak urdin sakonean ñirñirka..., arratseko aizetxoaren bafada arina elur-hodeiei kulunka eraginez”.

Luis itzulpenetan jostkilea da, ehuna erosi egiten dau, inorena da, baina josi, barrenak eta goiak hartu, euskeraren soinera egokitu berak egiten dau, lorturik ingeles: “This sute suits you”; buruturik, itzulpen mekanikoa baino pil-pilean egosiriko euskaldundua, amaieran gainbalioa ezarriz.

Askoz astunagoa da, ostera, Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa-ren itzulpena, 1500 orriko testukoa, autoreak *“lan luze eta nekagarri”* deitzen dauena. Holan idazten dau Luisek: *“Nondik datoz zailtasunak? Lexikotik baino gehiago, latinezko testu originalaren esaldi luze eta korapilatsuetatik”*.

Patxi Uribarren frailekide lagunak hauxe dinosku: *utzitako latina eguneratzea. Gero, erlijio-biztegiengan agertu ez, eta euskaraz lehen aldiz azaltzen ziren zenbait erlijio-kontzeptu euskara errazean adierazi beharra. Erronka handia izan arren, teologo gaituei beharrezko kontsultak eginez txukun gainditzea lortu zuen. Nik dakidala, oso lan handia eman zion liburuari ezarritako obarrak frantsesetik euskarara ekartzeak.*

Ez dogu hemen jardungo Kili-kilin, hiztegegintzan, Karmel aldizkarian-eta izan dauen testu-orrazketako zereginaz, berez dau arlo osoa merezidu-eta.

Uribarren idazleak, honetara kalifikatzen dau Luisen *Karmeleko* zeregina, orrazketa eta txukunketa lana: Berau izan dau *Karmel* aldizkariak azken urteotan euskararen zuzentzailea. Bertan argitaratutako hainbat lan txukunek, Luisen esku finari zor deutse hain apain eta dotore plazaratzeko azken orrazketa.



#### 5.4.- Luis Baraiazarra euskalduna

Gaur egun unibertsidadeko honenbeste forotan tesiak erdaretan eginik euskerara itzulzea jokabide aurrerakoitzat jotzen danean, ezin aproposago dator Luisen paragrafo hau: *Niretzat laguna ez eze, arnasa, bizia, da euskera. Biok estu-estu loturik bizi gara. Ez da gizartean komunikatzeko tresna soila; bizitza intelektual eta afektiboa moldatzen dauana be bada. Hau berez jatorri. Hartua da, ez lortua. Ez dot gogoan ezagutu nebaneko datarik. Betidanik dago nigan eta ez dogu sekula elkarrekin diferentziarik izan. Gaztetxutan, ikasketak edota debekuak zirala eta, pixka bat abaztua izan neban, baina gero ez neban onik izan barruan sumatzen neban hutsune ha bete arte. Peru Abarka, Abarrak, Ekin gerra aurreko aldizkaria izan nituan euskarri orduko giro txarrari aurre egin eta krisi antzekoa gainditzeko. Larreako nobizio-etxean deboziozko eskuliburu batzuk be eskura izan nituan, baina bareetatik erdia be ez neban ulertzen, euskera zabarrean idatzirik egozalako. Geroago, Kresala eta Garoa irakurri nituan. Pozik. Ia oharkabean euskera landuz ninoian. Ignazio Maria Manzisidor jesulagunaren erlijiozko liburu bi, bata Jesusen Bizitza eta bestea Gure Patroi Andia irakurtzean harri-dura eta poza. Gipuzkeraz egon arren, guztia ulertzen neballa ohartu nintzan.*

*Etenaldi eta debekuak gaindituz, Karmel aldizkaria agertzen basi zan. Guretzat, noiz edo bebin irakasleak harako gure lanen bat hautatzen ebanean, egundoko poza izaten zan, euskal eskolan eginiko abaleginen fruituak han argitaraturik ikustean.*

*Bestalde, atzera-aurrerak be bai, galerak, hots handiagoko bizkuntzak gurea geure herrian berton moteldu edota isilaraztea, kultura unibertsalagoaren bila joateko aitzakiaz etxe-koak bizkuntza nagusiei lebentasun osoa emotea... Berez jaso doguna ez dogu berez aurrera aterako, eginabalak eginda baino...*



### 5.5.- Idazlea

Luis Baraiazarra, danean eta danaren ganetik idazlea da, zaldunaren prosa darabilena, akademikoa, hainbeste orrialde-tan akatsik barik zaroazana, hitz lauzkotik neurtura, hizkera teknikitik prosa poetikora jauzika jardutea atsegin dauena.

### 5.6.- Olerkaria eta bertsolaria

Uribarren euskaltzainak dinoskunez, *“Arlo horretako bere lanik handienetarikoa 1994an hasi eban, Karmel aldizkarian “Txapelketa Nagusiaren ondoko gogoetak” lana argitaratu ebanean. Oihartzun zabala izan eban lan horrek bertsolarien eta bertozaleen artean. Eta txapelketetan epaimahaiko izateko eskatu eutsoen. Horrela obiko epaimahaiko izan da Eskolarteko, Bizkaiko eta Euskal Herriko Txapelketa Nagusian (bi aldiz epaile eta beste behin ordezko).*

## 5.7.- Biografiak eta autobiografia

Luis Baraiazarra Txertudik autobiografia ez eze heterobiografiak be idazten ditu. Pasarte batzuetan, oinutsik ezagutu dogun frailea arima biluzturik be agertzen da; harridura sortuz gure gizaldiko bidaiari sinesgogorraren aurrean horren sinesbera agerturik. Bere buruaz luze-zabal jardun eban *Nire Umetako Meñaka* liburu eredugarrian eta *Nire sasoiko Markina-Xe-meinen* be eten bako erreferentziak egiten ditu bere buruaz. Edozelan be, nekez topauko dogu frailetzerik hain tentu handiz, hain era gizatartuan narraturik, komunitatea baino pertsona bakoitza biografia bilakaturik.

## 5.8.- *Nire umetako Meñaka*

Liburu horren sarreran idatzi nebana dakart hona: *Zer asaskaldi irakurtzea “Nire umetako Meñaka” liburu mardo, ederraren ederrean beti urez handi geratzen jatzuna. Usteko do-*



*zunean, irakurle hori, paragrafo baten barrapatu dozula, mugatu dozula baren idazmoldea, eskribitzeko era, ezusteko lekutik urtengo deutsu, hamaika zulo dituan saguaren antzera, norbera katu eta miau lagata, beti eskapari.*

*“Pertsona baktxaren biografiak badira etnografiarako oinarri –Joxemartin Apalategi antropologoak dinoanez-, Luis Baraiazarraren saiakera literario hau urre gorritzko altxor biburtu leiteke”.*

Luisek biografien sailean maisutasunez kontaktzen ditu nahiz idazlan arranoak –Jon Lopategi Bertsozko mezularia lakoak-nahiz pasadizo txepetxak.

### **5.9.- Nire sasoiko Markina-Xemein**

Hizkuntza arruntean –ez literatur testuetan- istorioa kontaktzen dauenari kontalari deritxo. Luis *Nire sasoiko Markina-Xemeinen* etorri oparoko kontalaria da, gertaera, kronika, hausnarketa guztiak kontraera autobiografikoaren joskeraz lotzen dituana, kontaketa maila askotan antolaturiko testuan. Idazte modu horregaz, pertsonaien kontaketa nagusi baten barruan, Hipolito kontalari bilakatuz, kontaketa mailak ugarituz eta atzenean Luisek berak kontaktetari markoa ipinirik.

Irakurleari, kontraera polifoniko hori ugari baizen oparo gertatzen jako; oxigeno askoko uretan jardunik, azal nahiz sakon uger eginda irakurlea asaskatuz.

Testu hau eskeintzen deutso Xabier Kaltzakortak: “Biografiatik asko euki arren, ez da biografia hutsa. Markinako etxe, iturri, oroitari, pertsonaia eta abarren barri ere emoten dau gure idazleak. Markinan euskerearen irakaskuntzan ikastolen sorrera, eskola laboralaren bilakabidea, euskerearen inguruan izandako ekinbide, jaialdi, irakasbide eta abarren testigu eta eragile zuzena izan danaren testigantza zintzo eta zindoa. Eta nitasun batetik edo esperientzia pertsonaletik salto egiten dau herriko kale-etxeetako deskripzinora edo gure herrian izan di-

ren idazle eta kontularietara. Idazlearen askatasun osoa da, eta liburuia irakurgarriago eta atsegingarriago egiteko bidea, era berean. Idazleak luma bere gogo eta gurarien menpe darabil. Idazleak bere lumearen bidez gura dauan sailari ekiten deutsa. Harako Stendhal idazle ospetsu harek nobelaz idatzi ebana era -erara dator: *Le roman est un miroir que l'on promène le long d'un chemin*. Stendhal-ek nobelarako idatzi ebana balio dau honako ere: idazleak bere gogo-bihotzen espilua batetik bestera, hara eta hona, darabil. Espilua edo, beste era batera nahi bada, arreta edo begia. Aurretik han-hor-hemen egindako lanak ere baliatzen ditu liburuari osotasun eta gozotasun bat emoteko. Interesgarria danaren aurrean jartzen dau espilua idazleak. Lastoak eta urreak lehen begiradan dirdai antzekoa izan arren, urrea aukeratu eta eskeiniko deutsa irakurleari. Euskerea bere bizitzan ez eze, Markinako gau-eskola, ikastola eta abarren barri ikasiko dau liburu hau irakurtzen dauanak. Herri literatura, idazle zaharrak, historia-atalak josiko ditu euskera landu eta zuzen baten. Bere aukera pertsonal horrek jakituria, ardura eta behar handiaren fruitu dira, dudarik barik”.

## **5.10.- Karmel aldizkariko idazle lana**

Hainbat idazlan txukun idazteaz gainera, bera izan da azken hogeita bost urte hauetan zuzentzaile nagusia, Julen Urkizak alboan dauen langile leiala. Ganera, zenbait itzulpen edota moldaketa be bereak izan dira.

## **6.- GIDARI ETA BURRUKALARI MARKINA-XEMEINEKO BERBIZKUNDEAN**

### **6.1.- Ekintzetan**

Luis Baraiazarra frankismoko azken hamarkadako berbizkundan aurrelari agertzen da, berez, gazterik abiatuko bide-tik: *Begoñako Karmelon, euskarako alfabetatze-eskolak izatea lortu eben batzuen artean, eta GOGOZ karmeldar idazleen aldizkaria sortzea; hainbat lan idatzi zituen Luisek aldizkari horretarako.*

Ekintzaile jardunik, Karmeneko komentua horma bako bihurtzen dau, kanpoko barruko eginik, eta barruko kanpoko.

*Nik gure herri bonen 1966 ingurutik 2000. urtera arteko historia berariaz kontatzeari ekin barik, neuk gomutan gorde ditudanetik dihardut idazten, neure bizipenak gidari ditudala. Argibide historikoak sartzen baditut, harira datozelako da -idazten deusku.*

## 6.2.- Gizarteko zurrunbiloan

*“Zurrunbiloa” jarri dot, orain dala hogeita hamar edo berrogei urteko gure mundutxu hau irabio bizi-bizian egoalako. Aldaketak hemen, aldaketak han. Mundu zabarretik barrirako jauzi arriskutsu eta era berean itxaropentsua zan ordukoa. Guztiok ginan protagonista, baina ia obarkabean sorkari barria erditzen giharduan. Haizearen norabidea guztiz aldatu zan eta ez genkian ondo norantz eroango ginduzan zurrunbilo harek. “Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa” amaitu barri zan.*

*Aire barria sartu zedin eraikin zabarraren leihoak bakarrik ez, ateak be ireki ziran. Seminarioetan formazioa harturiko askok jo eben mundu zabalera, umetan eginiko bidearen itzulerakoa egin nahirik, hau da, barriro munduko bizitzaren abentura probatu nahirik. Jende hori guztia eta munduan geraturiko asko marxismoaren lilurak ikutu zituan. Marxen doktrinak baeban erakarpenik jantzi samarra zan gazteriarengan eta hain jantziak ez ziran gainerakoak hareei jarraitzen eutseen. Doktrina eta ideia horreek zerikusia izan eben arlo askotan.*

*Markina-Xemeinera etorrita, diktadorea hil ondoren trantsizioan bete-betean ginala, Gizarte Eskola sortu zan hemen A. Tomas Zugaza-Artazaren ekimenez. Orduan pil-pil egozan gaiak aztertzen ziran hor. Gebienbat gai bareetaz jantziak ziran eginiko bitzaldiak izaten ziran. Geroago, alderdi politikoetan, unibertsitateko irakaskuntzan nabiz administrazioan gailenduko ziran izen ugari igaro ziran hemendik...*

*Tomas Zugaza-Artazak eta biok bizi izan genduzan ameztez hainbat une pozgarri eta gauzak okertzen ziranean, biok sufritzen genduan. Tiki-taka umeentzako aldizkaria atera genduanean be alderdi biak ezagutu genduzan: atseginezkoa eta atsekabezkoa. Zerutxu Elkartearen babespean atera genduan aldizkari polita zan Tiki-taka, jaio barri Guardia zibilen eskuetan betiko galdu zana.*

*Behin borraino heldu ezkerro, tentsio handia sumatzen zan herrian nabiz komentuan. Kanpotik eginiko presioen aurrean batez be, Probintzialak Tomas Zugaza-Artaza Perura bidaltzeko erabagia hartu eban eta halako baten agur egin eutsen Markina-Xemeini, Amalloa auzoari eta bere taldeko gazte maiteei.*

*Kultura eta politikaren inguruan, gaur eguneko jokabideari kritika zorrotza egiteko balioko testua*

*Gizartea bizi-bizi sumatzen genduan, bai kulturaren eta bai politikaren inguruan. Trantsizio aurretik, batez be aberztaleen artean, batasuna zan aurrera egiteko eta etorkizuneko Euskal Herria eregiteko tresna nagusia. Alderdi politikoak plazaratu barik ziranean, batzen ginduzana hartzen zan kontuan eta ez hainbeste diferentziak.*

*Kultura aldetik, jaialdiak sarri eratzen ziran han eta hemen. Orduko jaialdiak bereziak izaten ziran: errepresio gogorraren al-dian euskaldunak arnasa hartzeko eta elkarrekin batzeko berebizikoak. 1971eko San Joan eguneko jaialdi bat dot gogoan. Arrasaten izan zan. Arrasaten, jaialdi aurretik, Jose Maria Arizmendi-arrieta bizi zan etxera eroan ninduan. Han ziran Don Jose Maria bera, Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga eta Don Jose Mariaren Barinagako lobak-eta. Niri gogoan geratu jatan, Jose Maria Arizmendi-arrietarekin eta Augustin Zubikarai eta Eusebio Erkiaga idazleekin han elkartzeak ikututxua egin eustalako.*

### **6.3.- Alfabetatze kanpainetan**

*Rikardo Arregi eta Juan San Martin etorri ziran bona, behin bata eta behin bestea, alfabetatzea zein beharrezkoa*

*zan euskaldun herritarrei buruan sartu nahirik. Rikardo Arregik hitzaldi bizia egin eban Xemeingo Lanbide Ikastegiko aretoan eta amaieran, hau idazten dauanari, irakaste-agiria emon eutsan, Manuel Lekuona Euskaltzainburuak sinaturik.*

#### **6.4.- Irakaskuntzan: OHO-ean eta batxilerrean**

*Mesedetako ikastetxean euskera emoten nenbilen. Halako baten Ikastetxeko zuzendaria bera, Dolores García, etorri zan nire euskerazko eskolara. Hain ikasle gitxi ikusirik, pixka bat barritu zan eta uste dot kargu hartu eutsela izena emon eta konpromisoa bete ez eben neskatilei.*

*Notarik ez genduan emoten eta gela barruan diziplina mantentzea kostatzen zan... Orduan ikasle izanikoren batek urte hareek gogoraratzean, lotsari antzekoa sentitu obi dot,*

#### **6.5.- LANBIDE IKASTEGIAN –aldi baten Eskola laborala deituan–**

Antolaketa, berbaldiak, irakaskuntza euskeraz eroan daiten eta ez erderaz Julianen jokararen arabera, Luis Baraiazarra eta Juan Bizente Gallastegi euskaltzale tinko agiri dira:

*Horretan oso sentibera ginan gu, baina Julian Olazabalaga ez. Harek eragingarri izatea bilatzen eban edozein sentimenduren gainetik. Halan zirudian behintzat.*

*Benito Ansola, zinema gaietan gure inguruan aditurik bandiena danak, Barinagan parroko zala bango eliz lokaletan hasiriko zinema-eskolak eta zineforumak Eskola Laboralean izan eben jarraipena. Han emon ziran, ez zinemazaleentzat bakarrik, baiita etnografia eta gure herriaren historia maitte ebenentzat be, “Navarra, Las Cuatro Estaciones”. Han emon zan sasoi haretan karmeldar kidea genduan Karmelo Garmendiak prestatu eta nik neuk euskerara egokitu neban argi eta doinuuzko lan erlijjiosoa.*



## 6.6.- Zerutxu kultur Elkartean

*Bitartean Zerutxu Kultura Elkartea sortzeko baimena eskatu zan. Ikastola lehenengo-lehenengotik bere sortzaileak, A. Migel Mariak, eroan eban amak umea eskutik legez. Gurasoen eta beste pertsona eta erakunde batzuen erabateko laguntza izan eban, baina Ikastola pertsona baten eskizian egotea ez zala ona uste eban haren buruak. Izan be, erlijiosoen artean obi danez, A. Migel Maria beste komenturen baterako izendatua izan eitekean. Horregaitik erabagi eban Zerutxu Elkartea sortzea. 1966ko azaroaren 15eko dataz onartu eban Madrilan.*

Zerutxu elkarteak ikastolaren alde egin zituan ekintzen artean, jardueren artean aitatzen deusku Luisek zelan ...

*Iparraldera eginiko joan-etorri bakanetan isilpean igarotzen genduzan diskoak eta beste hainbat gauza... Labegerieren Gu gira Euskadiko gaztedi berria orduko gazteok geure-geure kantatzat genduan. Nafarra, oi Nafarra, Euskadi lehena zan barruraino sartzen zan beste kanta bat. Bakearen usoa... Hegoaldean Ez Dok Amairu eta gainerakoak hasi ziraneko, giroa nahiko prest egoan eta sekulako gogoia kanta barria entzuteko. Gauza artistikoaren gainetik beste zerbait bilatzen zala esango neuke.*

## 6.7.- Euskaran egile eta eragile

Luis Baraiazarra eredu da Markina-Xemeinen, harengana jotzen da unerik adierazgarrietan eretxi bila, ideia bila.

*Egun gogoangarria Markina-Xemeinen 2005eko maiatzaren 6koa. 650 urte betetzen ziran Markina hiribildua sortu zala (1355-05-06). Merindadeko ordezkariak batzen ei ziran Sagastiguren izeneko lekuan merioa buru zala, guztien artean hainbat arazo konpontzeko eta argitzeko. Markina-Xemein gaineko muino baten dago leku hori. Arazorik behinenak jabetza eta muga kontuak ei ziran. Hiribilduaren sorrerako 650 urte betetzean, barriro batu ziran, egun bat beranduago, maiatzaren 7an zapatuan, batzarretako mabaiaren barri zaharra berres-*

*kuraturik. Horko harizpean aulkia eukenen ondorengoak izan ziran leku horretan, lehenagoko erara kapa baltzez jantzirik. Eta herritarrak bertan zirala, euskeraren alde egiteko eta honen transmisioa ziurtatzeko berbea emon eben. Lau ordezkarien artean handikiro irakurri eben hau idazten dibarduanak egun borretarako beren-beregi idatziriko mezua; euskera eta euskera-ren transmisioa gaitzat zituan mezua.*

## **6.8.- Karmengo komentua eta eleizako aretoak**

Erakunde erlijiosoak eta eskolak babesia emon ohi eben gauza asko egin ahal izateko.

Akorduan daukat, han 1973an –neure gertaerea da oraingo hau- Bizkaiko herrietan Alfabetatze Kanpainetako arduraduna nintzala -1973an- Xabier Lete ekarri nebala Zornotzako karmeldarretara, herrian bertan dan eraikuntzara, Kalbario deritxanera, ez Larreara eta ezaguturik aldi haretan Xabierrek erabilen kantagintza-poemagintza, saioaren aurretik beragaz geratu nintzala eta azaldu zelan frailen egoitzan gengoan eta euren lokalak izanik, neurtzeko apurren bat erlijioaren gaineko iruzkinak. Esan baneutsan esan neutsan: handienak bota zituan. Agur gure lokalak! Ez dakit orduko fraile arduraduna bizi dan Euskal Harrietan ala Jainkoaren glorietan. Gu orduan gazte. Ez genkian, zoritxarrez, orain legez, Karmeldarren eta gerrateko errepresioaren berririk, Luisek A. Rafaelen kronikak euskerara itzuliz emoten deuskuna lakorik: *“Maiatzaren 18an sartu ziran nazionalak komentuan eta dorrean euren bandera gorri eta horia ezarri eben. Biharamunean, eguerdi alderantz, A. Roman Urriaga atxilotu eben Etxanoko abadetxean eta erreketen pikete batek fusilatu eban Larreako komentuko ortuko borma ondoan”*.

*Esan leiteke, beraz, Eskola Laborala ia ezinbesteko bihurtu zala Markina-Xemein eta inguruko kultura-bizitzarako. Jakina, diktadura garaian, beste zirrikiturik ez, eta Elizaren babespera jotzen eben kultura- eta gizarte-eragile askok; haren*

*lokaletan prestatzen eta oretzen ziran herri zabar bonen hainbat egitasmo eder.*

Zerutxu Ikastolaren lehenengo ikasturtea 1964-1965ekoa izan zan. Honi be, Karmengo Komentuko gela baten emon jakon hasiera.

“Gazte Alaiak” Elkarteak be, Eskola Laboraleko lokal baten eukan bere egoitza.

Konturatu gaitezen orduko egoera sozio-politikoaz, Ikastolaren sorrerako kronikatxu antzeko paperean albiste hau dator: *1962-1963ko urtean edo zan eta Justo Arrietak, Ondarroako alkatearekin batera dirudienez, euskerazko idatz lehiaketa antolatu eban umeentzat. Orduko egunkarietan behin eta barrero iragarri arren, lehiaketa hau ezerezean geratu zan, Markina-Xemeingo umeen artean euskal gramatikaz ezer ekianik ez zalako. Hau da, proba bat jarri euskeraren egoera umeen artean neurtzeko eta egoera benetan iluna zala egiaztatu zan.*

*Ikastola Euskaltzaindiaren gerizapean eta Udalaren babespean ezarriko zan. Era berean, Karmeldarren gidaritza kultural eta erlijiosoa izango eban.*

*Inspektoreak begiz jota eukan Zerutxu eta txitean-pitean agertzen zan han, ustekabean agertu be. Ordurako A. Migel Maria ez zan hemen eta Lauren Aretxabaletak eta andereñoak eurak aurpegi emon behar izaten eben. Benetako jazarpena.*

*Halako pertsonaia ondolik uxatzeko zer edo zer egin behar zala-eta, herriko abade-taldeko buruagana, Don Benito Anso-lagana, jo eben. Holan erabagi zan ikastolako sarreran euskeraz eta gaztelaniaz idazkun hau ezartzea: CATEQUESIS PARROQUIAL / KRISTAU-IKASBIDEA. Bake santua! Harrezkero ez zituen nekarazi inspektoreen ustekabeko bisitak.*

Luisek paragrafo luzeak idazten ditu orduko andereñoen lan eta ahalegin miresgarria goratuz.

Markina-Xemeingo Karmeldarren komentua euskal kultura-ko gunea da, bai aspaldiko urteetan, baita gaur be.

*Hainbat eta hainbat izenen artean bat aitatzekotan, Mogel eta Añibarrarekin batera bizkaiera klasikoaren sortzaileetarikoa izan zana aitatu behar dogu, ezinbestean, Frai Bartolome Santa Teresarena. Hau ez zan sortu, baina, ezerezetik. Bazan hemen girorik.*

Karmel *aldizkariak*, Karmel Sorta *liburuak* eta Karmel Lekuok *eurak* be, Markina-Xemeingo Karmeldarren komentu honetan dabe egoitza azken 16 urteotan. Karmel *aldizkaria* da guretzat *esanahirik handienekoa*.

*Santi Onaindia zuzendari zan bitartean, Karmelek baeukan beste ume edo kimu bat, literaturzalea, olerkizalea: Oleri. Hau, tamalez, nabiko gazterik hil zan, baina emaitza eder jorriak emonda gero.*

*Aldizkari honen aldirik onena, nire iritziz, azken urteotakoa da, Julen Urkiza zuzendari dauanekoa.*

## **6.9.- Karmeldarretako bertsolari-egunen gomutak**

*1963ko urriaren 12a. Espainiar sinboloak, handi-mandien joerak edonondik Inperioaren agergarri. Espainiar banderak etxe publiko eta kuarteletan. Espainiar arrazaren jaia indarrean jarria zan. Kuarteletako berdeak jai handia dabe...*

*Markina-Xemeinen, kuarteletik 50 metrora, Karmeldarretan, bestelako jaia ospatzen da: Euskal Herriko bertsolarien eguna. Jai bataren eta bestearen kontrastea ageri-agerikoa da.*

### **6.9.1.- Bazkalondoko saioak eta Gabriel Aresti**

*Elizan, hildako bertsolarien aldeko mezan be, hiru unetan edo kantatzen ziran bertsoak: sarreran, Herriaren otoitzean eta azkenean. Baina bazkalondoko saio luze eta ederren gomuta bizi-bizi daukat oraindino.*

*Izan zan une latzik be. Holako baten lekuko neu ez nintzan izan, baina bebin eta barrero entzuna dot: Gabriel Arestik sorturiko zirriparra. 1967an zan. Bertsolari multzo handia batu zan; bareen artean zan Basarri. Ustekabean G. Aresti jauna agertu zan batzarrean. Harritzekoa balako heterodoxo bat komentuan agertzea...! Itxura danez, Markina-Xemeingo Karmeldarretako bertsolari egun hau zapuztera, desegitera, etorri zan beste zeregin barik. Basarrik eta beste batzuk, bertsotan eta bizlaur, aurre egin eutsien ekaitzari. Dana dala, hainbat bertsolari garraztu zituan horrek eta Basarri ez zan harrezkero etorri jai honetara. Bere lan ugariak zirala eta, aitzakiaren bat atera obi eban beti, baina bilbotar poetak sortu eban borroka-suaren ostean guztiz minbera geratu zala dirudi. Izan be, Basarri tradizioan oso errotua zan, eta G. Arestiren berbak bestelako hotsa euken. Bazterrak nabastera baletor legez hartu eben...*

*Handik egun gitxira Arestik idazlan bat argitaratu eban Bilboko egunkari baten, arratsaldeko Hierro egunkarian. Markina-Xemeinen ospatzen zan bertsolari-jaiia zala eta bereak eta bost idatzi zituan han. Bertsolaritzak okerreko bidea hartu ebala inoan. Txirrita bizi izan balitz, ez eukeala holakorik egingo. Ha ez zala komentura joango, sagardotegira baino...*

## **6.10.- Inguruko pertsonaiak**

Luisek gure pertsonaiak amorez eta umorez deskribatzen deuskuz.

Luisen baserria frailetzan komentua da, komunitatean egiten dau errezua zein armozua eta giro horretan barru sakonean ezagutzen ditu fraile aititak zein anaiak zein gazteak.

Artezean eta agirian erakusten deusku Baraiazarrak umorea, lurpeko errekena tarikoa, banakusu ez nakusu dabilena, harik eta ezustean Tatio-ko geisserren indarrez aireratzen dan arte

*Nik neure burua zoriontsutzat dot, hemen Zapolapean batez be, hainbat euskaldun eta karmeldar goresgarriren artean*

*bizi izatea egokitu jatalako. Honezkero nire bizitzaren zati dira eta barneratua dot joan ziran hareetariko askoren zertxobait: esaerak, pasadizoak, debozioa, musika...*

*Gure pertsonaiei begiratzean, herritik komentura nator. Herrian, jakina, banaka batzuei bakarrik erreparatu deutset; komentuan be ez guztiei. Berrogei urtean asko ezagutu nituan karmeldarren artean eta gutxi batzuk hautatu ditut orrialde honeetarako. Hareei nahiz honeei zerbait berezia ikusi deutesdako agertzen ditut hemen, baina besterik be izango da horrenbeste merezimendu dabenik... Herrikoen artean, ipuin-kontalariei erreparatu deutset batez be.*

### **Libe Altuna**

*Libe Altuna bilbotarra, Joseba Altuna euskal idazle eta itzul-tzailearen alaba. Markina-Xemeinera etorri aurretik, oso ezaguna zan Bilboko euskaldun eta abertzaleen artean, batez be irakaskuntza eta ikastola giroan. Bera Kruzen zuzendari izan zan, urteen pisuz eta gaixoz erretiroa hartu eban arte. Irakasle eta andereñoentzat ezin bobea zan. Txeratsua eta bibotz onekoa. Andereñoekin "laztana" hitza erabiltzen eban txitean-pitean. Berez-berez agertzen eban barrukoa. Arazoren bat sortzen zanean, inondik ahal izan ezkerro behintzat, beti andereño-irakasleen alde egingo eban. Ni, karmeldarra nintzalako edo, estimu handitan ninduan. Konfiantzaz berba egiten eustan eta batzuetan bere gauzatxuak kontatuz asaskatzen zan. Esaterako, Mesedetako Kongregazioan sartu baino lehen abertzaleen mitinetan izaten zala hizlari; bera neska ederra eta gustagarria zala gaztetan eta amak kontu handia izaten ebala mitinetatik bueltan, gaua bazan batez be, errespetu handiko pertsonak lagun zituala etxeratu zedin...*

### **Tomas Gerrikagoitia (Tomas Bezi)**

*Arantza eta larrosa izeneko liburu interesgarria idatzi eban Tomas Gerrikagoitiak. 2000. urtean argitaratu zan Auspoa*

*sailean. Egileak, bizi zala, ez eban argitaratuta ikusteko zoririk izan.*

### **Juan Ibarzabal (“Buztarri”)**

*Juan Ibarzabalek Nire aztarrenak izeneko liburu polita eskaini euskun 1998an. Nik ia jaioten ikusi dodala esan neike.*

*“Auspoa” saileko Txirritaren liburu batek Ustu ezin zan ganbara dau izenburua. Gure “Buztarri”k be badakigu ganbara betea izango dauana, baina harrokeriarik bako jende apalak ez dau uste izaten bere bizitzak ezer kontatzeorik dauanik; ezer jakingarri edo interesgarririk dauanik. Bere gauzak beretzat eta hurrekoentzat bakarrik dirala uste izaten dabe. Ezinbestean eta albotik asko zirikatuta obartzten dira hori guztiori herriaren kulturaren zati bat dala eta herriari itzuli behar jakola.*

### **Aita Jose Domingo**

*Aita Donostiak esaten ei eutsan geroago: “Pena da zure ikasketak Parisen edo Vienan eginiko got-teknikako ikastaroe-kin osotu ez izatea”.*

*Hainbat urte lehenago erakutsi ahal izan eban A. Jose Domingok zuzenduriko koruak gregoriano kantatzeko egokitasuna maisu handien aurrean. Izan be, 1928ko azaroan Musika Sakratuaren IV. Kongresua egin zan Gasteizen. Kongresu horretan A. Jose Domingo batzorde exekutiboko kidea zan eta, musikari ospetsuak ezagutu zituan, baita bareen adiskide egin be, esaterako, Resurrección Maria Azkue eta A. Jose Antonio Donostiaren adiskide min.*

*Begoñako Karmelon kantatzen zan gregorianoak be ospe handia izan behar eban Bilbon eta inguruetan. Lino Akesolok gregorianoa entzutearren beren-beregi Karmelora joaten ziran lau gizon ezagun aitatzen deuskuz: Migel Unamuno eta honen adiskide Ramiro Pinedo bilbotarrak, Nikolas Hormaetxea “Orixe” euskal olerkaria Bilbon bizi zanean eta Andres Isasi musi-*

*karia. Hau domekero joaten ei zan Algortatik Begoñako Karmelora ban kantatzen zan gregorianoa entzutera.*

## **Aita Hipolito**

*Haren bizitzari eta itxi eban lorratz sendoari begira jarri gara. Izan be, noizbehinka baino izaten ez diran horreetariko dogu A. Hipolito; zeruak Euskal Herriari eta Karmeldarren Ordenari eginiko opari aparta.*

*1916tik 1917ra bitartean aleman hizkuntza ikasteari ekin eutsan. Gramatika eta alemanez irakurten behingoan ikasi ei eban eta nabiko aurreratua eta hizkuntzan sartu-sartua ikusi ebanean, Grimm Anaien Ipuinak Espainiako erderara itzultzeko egitekoa ezarri eutsan. Geroago, berak beratar, euskerara itzuli zituan ipuinok eta Bilbon Alvarez Anaien moldiztegian argitaratu, Kontxita Gangoiti andra abertzaleak ordainduta.*

*Gorago aitatu dogunez, 1924ko udagoiengan Erromako "Angelicum" deritxon unibertsitatean sartu zan zuzenbide kanonikoa sakontzeko. Urte biren buruan amaitu zituan ikasketak eta doktore titulua lortu (Doctor Iuris). Holako titulua hartzea debekatua zan artean karmeldarren legeetan, baina orduan tituludunen beharra egoan eta A. Hipolito izan zan doktore titulua lortu eban lehenengoa. 1926an izan zan hori.*

*Altzon egoala, Nafarroako San Joakim Probintziako kapitulu egin zan eta A. Hipolito Probintzial hautatua izan zan. Nafarroako San Joakim Probintzia oso zabala zan; Euskal Herriko Hegoalde osoan, oraingo Kantabria eta Errioxan, Portugalen, Txilen, Perun, Kolonbian, Guatemalan, Panaman, Indian... zehar zabalduta egoan. Probintzia osoa bisitatu nabi eban, etxerik etxe banan-banan, bakoitzaren egoera berberratik ezagutuz. Baina Francoren gobernuak begi-bistan izan nabi eban eta debekatu egin eutsan Espainiako Estatuaren mugetatik urtetea. Debeku horri zor eutsala bizia esan obi eban. Izan be, Ameriketako komentua bisitatzeko Lisboan*



*hartu behar eban begazkina suak hartu eban, Brasilen gai-nean begaz joiala, eta guztiak hil ziran.*

*Aldi baretan, lege gaietan, hiru euskal izen entzuten ziran Erroman hots handiz: Larraona, Larakoetxea eta Etxegoien. Larraona geroago kardinal izendatua izan zan.*

*Azken aldian ia ez eban ikusten eta lupa baten laguntzaz jarduten eban orduen liturgia errezatzen eta baita Karmeldar Teresiarren paperak aztertzen be.*

### **Aita Emiliano, Julian Barandiaran Kortazar**

Aita Emilianok eragin handia erakusten dau Baraiazarrarengan:

*Jolasaldietan ikasleok hirunaka ibili obi ginan. Berba egiteko gai modurik ez genduan izaten; gai akademiko eta komunitadeko gauzatxoak izan ezik, ia ezer be ez. Gazteok geure artean konpontzen eta asaskatzen ginan, gai arinak erabiliz nahiz edozertaz berba eginez. Behintzat ez ginan isilik egoten. Hiruko horreek txandaka aldatzen ziran, guztiak guztiekin ibili abal izateko. A. Emiliano bera be egokitzen jakon hirukoan izaten zan. Ikasleak, orduan, pixka bat lotsatiago, jakina! Hari errespetua geuntsan eta, bestalde, bera nahiko isila zan eta isilune luzeak izan behar noizbehinka. Barruak ez euskun izten haren aurrean barriketa ganorabakoetan jarduten.*

### **Aita Leon**

*Haren baritono ahotsaren soinu betea etorriko jake batzuei gogora; harengandik harturiko latinezko eskolak beste batzuei; edota eguen arratsaldeetako hainbat ibilalditan mendian gora ia ezinean mina aterata erabiltzen ginduzanekoa... Niri, barriz, biok Markina-Xemeingo komunitadeko kide ginala, indiziorako xiringa eta orratza pol-pol egosten ziran bitartean, esaten eustazan kontuak.*

## Aita Nikolas

1940an kartzelatik urten ostean, Kantabriako Soto-Iruzen bizi izan zan. Preso egonikoei, kartzelako egotaldia laburtu bai, baina kanpoan bete eragiten eutsen falta zana eta Bizkaitik eta Gipuzkoatik aldendurik, Kantabriako, Errioxako edo Nafarroako komenturen baten bizi beharra izaten eben. Gerroago, Aita Batizek bere gaztetako Amerika eban bibotzean eta, harantz abiatu zan itsasoz.

Umorea aitatu dogu. Carmona-ko kartzelatik urten barri, Bilboko Atxuri aldera heldu zan eta han elizan sartu. Dominogotarren eliza aitatzan ebala uste dot...

Aitorlekura hurreratu eta hasi da pekatuak konfesatzen. Lebenengo berbatik erlijiosoa zala esaten deutsa aitor-entzuleari. Erderaz, jakina, hau erdelduna zan-eta.

– *¿De qué Orden religiosa? – aitor-entzuleak.*

– *Eso a usted no le importa – A. Batizek.*

– *Sí me importa y si no me dice, no le absuelvo – besteak zorrotz.*

– *¡No se ponga así! Soy Pasionista...*

Gure karmeldarrak hau pentsatu eban bere kolkorako: “Honezkero sufrimendu edo pasino gogorak igarota nator kartzelatik eta ez dago txarto Pasionista nazala esatea...!”

## Aita Juantxu

Santa Teresaren jai bezperan, 2004ko urriaren 14an, joan jakun A. Juantxu, 94 urte bete barik. Gaueko hamaikak hamar gitxiago ziran.

Mungiako (Bizkaia) Atxuri auzoan jaio zan 1910eko urriaren 20an.

Mungiatik, astotxua baserriko gauzaz kargaturik, behin baino gehiagotan joan izan ziran oinez Bilboko merkatura ama eta biak.

*Pulpituan itxura onekoak eta gizon handiak estimatzen ziran orduan. A. Juantxuk baritono-abots sendoaz beteten eban butsune hori eta, aukera izan ezker, oin azpian altxagarria jarrita be bai...*

*Zerutxuko dantza-taldekoak ez eze, beste batzuk be etortzen ziran: Zesta puntan ikasten ziharduen ume eta gaztetxuak. Horreen gurasoen artean bazan bat, esker onez, A. Juantxuri hileru eskupekoa emoten eutsana. Zezilio Urizar. Berak ez eban esaten eskupekoa zanik, hileroko zerga baino. Izan be, Karmengo pilotalekua, trinkete antzekoa, berebizikoa zan erreflexuetan trebatzeko...*

## **7.- AMAIERAKO IRAKASPENA**

Aiko hemen Luis Baraiazarra Txertudik gazteriarri eskaintzen deusn hausnarketea.

*“Oroipen ezin hobea itzi dau nigan, pertsona banakak bakarrik itzi obi daben erakoa –dino Luisek Aita Jose Domingo gaitik. Ni orduan gaztea nintzan eta, Kontzilio osteko aldaketa giroan, zabarrei ez neutsen hainbeste erreparatzen. Orain damu dot haren esanetara adiago egon ez izana”.*

## **8.- BIBLIOGRAFIA**

BARAIAZARRA, L. (2005): *Nire umetako Meñaka*, Meñakako udala.

BARAIAZARRA, L. (2009): *Nire sasoiko Markina-Xemein*. Markinako udala.

BARAIAZARRA, I. (2000): *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*. Andoain.

BARAIAZARRA, L. (1977): *Euskal Herriaren historia I eta II*. Gero.

ELEIZA (2003): *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa*. Deustuko Unibertsitatea.

EUSKALTZAINDIA (2008): *Literatura terminoen hiztegia*. Bilbo.

KARMEL aldizkariak.

TERESA LISIEUXKOA (1996): *Eskuizkribu autobiografikoak*. Karmel sorta, Markina-Xemein.

TERESA LISIEUX-KOA. (1996) *Idazlan guztiak*. Karmel sorta, Markina-Xemein.

URKIZA, J. (1999): *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkarien bibliografia*. Karmel sorta, Markina-Xemein.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta.*

*2009-05-09.*

**KRISTAUFOBIA**

Kristaufobiaren bolada bildurgarrian sartuta bizi garala, bistan dago. Epidemia gogorra eta zitala, dirudi. Hitlerren garaiko antisemitismoaren antzekoa. Batez ere Europan zehar. Eta zer esanik ez, gure lurraldeetan. Kristau balioen aurka edozer esateko, beti gertu ditugu gure komunikabideak. Hori bai!, arazo batzutan, bata bestea baino amorratuago dihardue.

Aita Santuaren edo gotzainen ahotik ezer urten orduko, jo eta ke euron kontra ari dira. Txarrena, gauzak goitik behera okertuta aldarrikatzea izaten da. Gai batzutan, ez dago gure artean inongo adierazpen askatasunik. Guztiz aldrebestuta emoten dabezalako notiziak. Euroi komeni ez jakezanak, ostera, isildu. Tautik ere ez. Esaterako, Euskal Herriko gotzainen aurtengo Garizumko karta pastoral ederra aipatu ere ez. Komeni jakenean, gezurraren gezurrez, errukigabeko egurra emon.

Adibidez, bizpahiru kasu besterik ez. Bata, Aita Santuari, Afrikara abioian doala, periodistak ainbat galdera egin eutsoezan. Baina hemengo komunikabideak bakarrik ihes edo sidari buruz esandakoa oihukatuko dabe gau eta egun, han eta hemen. Eta horretaz, zenbat barriketa eta esames eta astakeria gure arteko komunikabideetan. Gainera, Aita Santuak diñoana haxe izan da: “Ihesari aurre egiteko, preserbatiboa ez dala soluzio onena. Beharrezkoa dala pertsonen arteko sexu-hartue-monak beste modu batera ulertu eta baloratzea”. Alderantziz,

Aita Santuak Afrikan zehar esandako egia biribilak europatarren lapurketei eta expoliazio negagarriei buruz, hitzik ere ez. Holakoxe komunkabideak ditugu gure Euskal Herri maitean!

Bestea, eusko legebiltzarreko lehendakari barriak ados datorrela Aita santuaren irakatsiekin autortu dauanean, zelako kritikak jaso dituan. Kritika penagarriena eta lotsagarriena, gure politiko ohia eta badaezpadako abokatu batena izan da: “Holan pentsetan dauan pertsona bat ez dala duin, eusko legebiltzarreko buru izateko”. Eta atea edo agnostikoa edo musulmana edo judutarra edo budista edo hindua edo espiritista bada... orduan, zer?

Kristauon kontra esaten diranak esango balebez, ateoan edo agnostikoen edo beste erlejinokoen kontra... Hemen, bi-ziaren alde jokatzera edo heriotzaren kulturari aurre egitea, txarto ikusita dago, egon ere.

## **Gaurko eskribak**

Urte guztian zehar, baina kristau jai nagusienetan baliatuten dira, gehienbat, egurra emoteko. Batez ere, Gabonetan eta Aste Santuan. Da Vinciren Kodea edo Chicagoko apaiz batzuen pederastea edo ez dakit Ameriketako edo Alemaniako “jakitun” baten Jesukristori buruz edo Ebanjelioei buruz egindako azkenengo deskubrimetua edo... Besterik ez badago, betiko soinutxua atarako dabe, hau da: inkisizioa edo Galileoren kasua edo gurutzadak... Baina kristauen aurka esan leikezan astakeria handienak asmatuta dagoz. “Nihil novum sub sole”

Aurtengo Aste Santuan be ez dira egon mantso. Oraingoan Elizaren trapu zaharrak atera dabezanak 300 bat eliztar izan dira. Eta horretarako dokumentu bat kaleratu dabe. Eguen santuan gainera, Bilboko periodiku baten. Etaa gero beste hainbat komunikabidetan ere bai. Ni neu ez noa dokumentu hori aztertzeraz. Aspaldian, gure arteko antierrromatarismoz beteriko klitxez eta topikoz eta harrokeria eriola dagoanez, ez dau merzei horretan denborarik galtzea.

Nahi dodana da bakarrik pare bat xehetasun emotea. Komentarista batzuk, dokumentu hau goraiatzeko edo, agiria sinatu daben izen batzuk aipatu ditue “teologo” izena jarritz. Ni neu ez nago konforme. Ezin deikeogu teologo izen eder hori edozeini jarri. “Elizaren egiazko teologoak santuak dira”, idazten dau Hans Urs von Balthasarrek. Hau da, kristau sinismena eta bizitza, teoria eta praktika uztarturik barne-barnetik esperimendau dituenak dira. Besteak eskriba edo idazlari batzuk besterik ez ditugu. Batzuk izango dira puntako eskribak eta besteak eskasagoak. Dokumentu honen sinatzaileak behe-mailakoak ditugula, bistan dago.

Baita kontuan artzekoa da Bernanosen intuizio argia ere. “Los grandes cementerios bajo la luna” deritxon nobela sonatuan, santuak jarriko ditu Elizaren eta erdipurdiko gizartearen egiazko gidari bezela. Batez ere, Frantzisko Asiskoa eta Teresa Lisieuxkoa. Euroi eskeintzen deutseez bereziki nobelari frantsesak Jesusen berba honeek “Zuek zaree munduarentzat gatz... Zuek zaree munduarentzat argia”.

Elizari gaitzak santu urritasunetik datorkioz. Eta ez Erromako kuriatik. Zoritxarrez, gure elizbarrutian ere eskriba lartxo eta santu gitxitxo gara.

*A. Olea*

**MILLOITIK MUNDURA  
(HAUSNARKETA BAT)**

Pasatu da zalaparta, urrunduz doa zarata. Aurkezpen ekitaldien inguruan sortzen dan giro hori hurretik ezagutzeko aukera izan dot. Sentimendu kontrajarriak izan dodaz txandaka: alde batetik poza, etxeko euskararen oihartzun bizia jaso uste dodalako; beste alde batetik lotsa bikoitza. Jende aurrean biluzteak emoten daben antzekoa, bata, eta lan arinegia, sakondu bakoa eta hari mehez lotutakoa egin dodalako ustea, bestea. Irakurgai erreza egitea neban asmoa eta ez nintzan iruntsi ezinezko bilduma egiten hasiko. Erabili dodan euskarak berak dauka hor pisurik handiena eta pasarte arin eta barregarriak besterako aitzakia baino ez dira. Liburua hor dago; bitarteko gazi-gozaok ordaindu beharreko sari izan dira. Nik neuk, aukeran, nahiago ondorengo bake hau.

Ez dot damurik, baina. Ez pentsatu hori danik. Etxean, familian, eskolako eta auzoko lagunartean jasotako historia eta istorioek neure baitan hazurmaminduta neukazan eta ez neukan neuretzako edo etxerako bakarrik gordeteko eskubiderik. Pasadizo eta ia berba bakotxaren atzean munduak somatzen ditut, sentimenduz eta ilusioz betetako mundu asko, pertsona beste mundu, sasoi hartako orekaren ardatzean. Gure aurretik familia eta bizimodua ataraten ibili ziranei ezin deutsegu hutsik egin. Egoera barrietan orduango indarrez eta maitasunez jokatzen jakin behar dogu, hurrengoek be, saltsa ederreko lapikotan, egosi doguna dastatzeko aukera euki dagien.




Angel Ugarteburu

# MILLOITIK MUNDURA

## UME-DENPORAKO OIHARTZUNAK

**Sarrera:**

Juan Luis Goikoetxea



SUTONDOAN SORTA  
LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Pare bat kritika irakurriak ditut. Bietan goraipatzen da kon-takizunen grazia eta irakurtzeko erreztasuna. Horrexen bila ibi-li nintzen eta badirudi asmatu dudala. Seme-alabentzat pentsa-tua zan hasierako idazlana eta ez neban nahi filosofatzen has-terik. Nahiago errez eta arinetik ibili, gatz eta piper pixka bat bota eta sasoi hartako bizimoduaren alderdi ilunagoak irakur-leak berak irudika egiazala lerro tartean.

*Lepoan hartu eta segi aurrera*, kantuan esaten den moduan. Nahigabeak bizkarrera eta baikortasunez bizitzari so. Umore onak jarri nahi nebazan lanean, anekdotario baten inguruan. Irribarre xumeak edo barre algarek lortzen dabe saminez, tris-turaz, lorpen txikiz eta maitasun handiz bizitzako sutan lapi-koan egosten dana gozagarri izan dadin. Geure mugak onartu, zauriak errukiz estali eta bizitzaz gozatzea aukera ez ezik bete-beharra be badala aldarrikatu. Atzera begiratu, akatsez ohartu, graziaz betetako pasadizo eta bizipenak gozatu eta, zergatik ez, inozentziaren sasoi jarra eta jokaera xaloak be iruzu-riak barik, ispilu gardenean islatu. Norbere buruaren kontura barre egiten ez dakianaren errukarria!

Umetako berbak, entzuten nebazan esaldiak, berben soinua bera, sentimenduen oihartzuna jaso nahi neban, gaur eguneko pertsonen buru-bihotzetara heltzeko. Hizkuntza musika da, izan be eta haren doinuaren hegoetan doa pertsonaren izate osoa, poz, atsekabe, itxaropen, beldur eta guzti. Errez jasotzen dan mezua da bihotzetik bihotzera doan hori. Munduaren aldaketa-rik handienak be ez dau gure sentipenezko izakera irauliko.

Bizipenak aldean daroaguz eta ahotan erabilten doguza-nean azaltzen dira, baina hortxe dagoz geure baitan eta soi-nean, aurpegiko zimurretan eta gorputzeko orbanetan zizelka-tuta. Horregatik, denborak ez du hainbesteko garrantzirik. Orainaldian kontatzen danak beste indar bat dauka eta horre-tan ahalegindu naz. Gertaerak hortxe dagoz, hur-hurrean, gure gomuta ahulean erdi ezabatuak geratu direnean be. Pertsonen jokoan be 1. eta 2. pertsonen lekukotasunak bizitasun aparta emoten deuta kontaktari.

Alkarregaz lotutako hiru ardatzetan gauzatzen da liburuaren haria:

Gerra eta soldadutzako kontuak dira ardatzetako bat. Ezin alde batera laga ni jaio aurretxoan Euskal Herriak bizi eta jasandakoa. Gure memorian jasotako kantu, bertso eta koplek emon eustien zati hori harilkatzeko ardatza. Horrela, familiaren historian txertatzen da neu nazan pertsona bakanarena.

Baserrian, eskolan eta irtenaldietan nik neuk bizitakoak dira bigarren ardatz. Horixe da alderdi pertsonalena, ezinbestean. Bada hor be, euskararentzat antzu izan zan gerra osteko gizarte eta bizimoduaren arrastoa. Honeek idazten hasi nintzanean, garrantzi bako kontuak begitandu jatazan, baina gero, irakurri dabenei entzunda, konturatu naz gaurko gazteentzat ez eze, heldutxoagoentzat be ia prehistoria dela XX. mendearen erdialdeko bizimodu hori.

Beste biak batzen eta indartzen dabezan ardatz nagusia baserria bera da: lanak, animaliak, landareak, sineskerak. Naturagaz, abereekaz, erleekaz, hegaztiekaz, basoko arbola, zelaietako bedar, mailuki, lore, xomorro...hainbat eta hainbat bizidunekaz gendukan harreman orekatua da koadro honi guzti honi habitata emoten dautsana. Baserritik alde egitea ez da izan handik herrira dagozan kilometro batzuen kontu hutsa. Gizaldi askotako pausoa egin da epe motzean. Etxez aldatu beharrean aurkitu dogu geure burua eta etxe aldaketa horretan prisaz ibili gara eta, seguru nago, ez ditugu jaso beharreko altxor eder asko aldean hartu. Lurrikara handia izan da. Globalizazioak iruntsi egingo gaituela dirudi. Arrotz jakuzan mundu ikuskerak, hizkuntzak gainezari deuskuez, gure Herriak gizaldi askotan hazurmamindu dituen ekanduen gainetik. Denboraren eta geure ahaleginaren kontua izango da, astinduaren ondorioz aidean geratzeko zorian diren ohitura, jarrera eta balio bakoitzak pausatu eta bere leku egokia hartzea.

*Angel Ugarteburu  
2008ko abendua*

## ABORTUAZ

Lehenbizi azterketaren abiapuntua zehaztu behar da. Gizon-zko bat (aita) eta andrazko bat (ama) elkartu ziren eta andrazko-a haurdun geratu zen, haur bat dauka sabelean. Beraz, abortuan hiru gizaki daude jokoan: ama, aita eta sortu den haurra.

Ekintza gogorretan gogorra denez, ez ditugu saihestuko arazoari dagokien hitz gogorrak, gizaki bakar bat epaitzeko ez garela nor aitortuz ere. Gizaki partaide bakoitzetik arazoari begiratuz egingo dugu gure hausnarketa.

### **I.- Andrearen ikuspuntutik**

2008ko irailean Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek 'Gizon-duz' programa aurkeztu zuten. Umearen haste-heziketari buruzko erantzukizunaren elkartasuna (andrazkoaren eta gizon-zkoaren arteko zereginen banaketa egokia) irudikatzen duen motxila aitari ematea izan zen ekintzaren sinboloa. Nire ustez, bai ekintzaren helburua eta baita ere sinboloa oso egokiak dira haurraren heziketari buruzko aita eta amaren batera arduratu beharra adierazteko. Aita ere arduradun.

Motxilaren sinboloa onartuz gero, logika apurtxo batek zera eskatzen du: andrazkoa haurdun egonik, abortatu (haurra erail) ala bizitzara bideratu aukeratzeko unean, berehala aitari motxila ematea.

Baita ere, andrazkoak haurdun dagoela jakin eta berehala, haurraren aitari motxila hori ematea, eginkizunetan partaide izan dadin.

Areago, haurgintzan (narrutan) egiten hasi baino lehenago, andrazkoak harrarazi beharko lioke ginezkoari motxila sinboliko hori, etor daitezkeen ekintzaren ondoren guztietan erantzule-kide izan dadin.

Abortuaren arazoaz arduratan dabilen andrazkoak zera onetsi behar du lehenbizi eta bere buruari maitasunez aitortu: haurdun dagoela, *haur* – dun, *gizaki* - dun dagoela gizona batekin edukitako ekintzaren ondorioz.

Jolas, atsegin, harreman goxo guztien muinean, sexu elkar-keta benetan gizatiarrak zera suposatzen du: haurgintzan has-teko, andrazko batek eta gizona batek elkarri motxila ematen diotela eta biek bereganatzen dutela egitera doazenaren ondorio guztiak. Bi gizakiren elkarri betiko 'BAI' esanez motxila eman eta gero hasten direla haurgintzan.

Andrazko maitarien artean, beren sexu zoragarria pozik onartzen dutenen artean (gehi gehienak), horrenbeste feminista zentzudun borrokalarien artean azaltzen dira gutxi batzuk, zoritxarrez, beren andrazko izanarekin pozik ez, eta sexu desberdintasuna onartzea nahi ez dutenak. Bere sabeleko haurragan aitak zer eginik, zer ikusirik, inongo eskubiderik/ardurarik hartu beharrik ez daukala baiesten dutenak. Andrazko eta gizona arteko elkarren solidaritate oinarritzkoari uko egiten dietenak.

Abortua berak bakar bakarrik bere kabuz erabaki behar duen arazoa dela esaten ari den andrazkoak honela dihardu:

*“hau nire arazoa da, nire gorputzeko arazoa da. Haur bonen aitak ez du inolako ez jakiterik ez esku hartzerik haur bonen izan ala ez izan erabakian.”,*

Horrelako baie Espen matxista gezurtiei jarraituz, gutxi batzuek andrazko bakarraren aukeran utzi nahi dute (aitari jakinarazi gabe ere) haurra jaio ala ez jaio erabakitzea. Hitz batez,

aita eta amaren eginez sortutako haurra, andrazkoaren jabetza pribatua dela esan eta egitea. Hori “*motxilarik ez!!!*” oihua ozen egitea da.

Baiespen gezurtia dela esan dugu, arrazoiz. “*Gure arazoa*” –haurraren, amaren, aitaren- arazoa izanik, gezurretan “*nire arazoa da*” aldarrikatuz dihardutelako. Eta “*gure gorputzen (nigan dagoen haurraren eta nirearen) arazoa da*” aitortu ordez, “*nire gorputzaren arazoa da*” esatean egia ezkututzen ari direlako.

‘Motxila’ sinboloa modu koherentean onartzeak zera eskatzen du: haurraren jaiotza elkarri betiko hitza emandako andrazkoaren eta gizonezkoaren maita/elkartzean sortu behar dela, lehenik; eta berdin gero jaio eta bizi, gizaki bete heldu arte. Elkarri betiko hitza (motxila) ematea familia sortzea denez, haurra familian jaio behar dela.

## II.- Gizonaren ikuspuntutik

Sexua ez da une bakar baten bi gorputzen atseginerako naruru jotzen (haurgintzan) egiteko tresna; bi gizakiren (bi soinezko maitagogoren) betiko elkartze bidea eta ekintza hasteko baizik. Bi gizakiren elkarri betiko ‘BAI’ esatea baizik.

Naruru jotzen jardun, laguna haurdun geratuko edo geratu ote den arduratu gabe, eta haurdun geratu dela jakinez gero hor konpon esatea/egitea/onartzea, matxismo bikoitza praktikatea da: norberak matxista arduragabe gisa jardun; eta andra-kide maitagarria matxismopeko egoerara uztea/zapuztea. Gizonezkoaren benetako gizatasuna, hasieratik andrazkoari betiko kide izateko hitza benetan ematea da. Eta hitz hori andrazkoak gogo betez onarraraztea.

## III.- Haurraren ikuspuntutik

Abortuaren arazoan partaide nagusia haurra da, haurdun dagoen andrazkoaren sabelean jaio gogo den gizakia. Eta

abortua, ama haurduna haur-gabe bihurtzea da. Haur bat desgerraraztea, erailtea,

Gizakiari buruzko hausnarketan hasiko bagina haur sortua datorkigun une edo egoerari begira, guraso edo ondorengoen beharrak eta nahiak atsegin huts bila aztertzen, etika lurpera botako genuke. Gizakia ez da bide edo tarteko inorentzat. Gizartean eta kosmos osoan gizaki gainean ez dago ezer. Gaina, beti eta denean, gizakia da.

Abortua, alderdi guztietatik begiratuta, andrazkoak, gizonetzkoak, gizarte osoak, gizakiari –haur sortuari- behar dion onepen koherentea ukatzea da. Etika oinarritik ezabatzea da. Hasierako sinbolora itzuliz, zera errepikatu behar dugu: “*motxila*” bai, hasi baino lehenagotik, azkeneraino.

*Jenaro Garate*

## HISTORIAREN FILOSOFIA 2

Platonek Heraklitoren eragin handiegia zuen, eta errealitate materiala ikasi zuen zela igarotze etengabe bat nondik ezinezkoa zen zientziarik egin, den dena mutazio bezala definitua izan baitzitekeen. Eta mutazio etengabe horrekin ez zuen ikasten modurik mundu materiala definitzeko, ezta mundu horretako objektuak ere, zeintzuetatik bere dialogoetan sekula ez den iristen definizio *universaletara*, ikertzen badu ere objektu partikularretatik, hau da, *induktivoki*. Mundu materialean nonbait han objektu horiek ez ziren libratzen igarotze hartatik eta asmatu behar izan zuen objektu inmutableen mundu bat, formen mundua, non jada bada posible definizio *universal* objektu partikularren. Eta egia da, indukzioa perfektua da mundua matematiko parmenideoa delarik, eta *universal* bihurtzen ahal da, hau da, definizio *universal* egitea badago hor, eta horrekin batera zientzia egiteko posibilitatea, Aristotelesekin konprenitzen zuen moduan (kausa formala), irekita dago, naiz eta zientzia hura ez zen izango materiala, eta bai formala (ideala, idea grekeraz forma baita). Ostean, hau da, mundu material hutsean, ezinezkoa da hori dirudenez, eta hortik bere Akademia berriaren azken filosofoen *escepticismoa*. Zeina bat datorren filosofo nagusi hauen azken ondorioekin, materiazkoa inintelijible egiten baitzitzaien denei.

Ni, nire aldetik, kosmos materiala ilunpe horietatik jasotzearen aldekoa naiz. Ez da egia *escepticismo* etsiak ondorioztatua.



Zeren materiazkoa inintelijiblea baldin bada orduan ibili gaitetzen begiak tapatuta... baina absurdoan erreduzitzen da teoria hori, komentzimendu hori, eta denok dakigu hobe dela, estropuzurik ez egiteko begiak ondo zabalik ibiltzea. Beraz, materiazkoa, mundu materiala, bada intelijiblea.

Piska bat aristotelismotik abiatuz (haren lunatismoa alde bat lagaz jakina, astronomia, kausa formalaren auzia...) afirma daiteke mundu material formal batean bizi garela ezinbestez. Eta materia forma ezberdinetan ageri zaigu, igarotzean, bai, baina formak dira gure begiak ikusten dituztenak, eta forma horiek ez dira inmutableak eta bai materialak, herakliteoak. Baina igarokorrak badira ere igarotze hori, normalean, ez da isuri etengabe inintelijible batean gertatzen. Astia badugu forma material horiek definitzeko, eta izendatzeko, Hasierako liburuan esaten den moduan: euren genero eta espezetan sailkatuz.

Ez da beraz derrigorrezkoa zientzia soilik formala izatea, zientzia material formala izatea daiteke irtenbidea. Eta definizioetan, zientzia material formala aurrera badoa, aurreratu daiteke subdefinizioak eta hola eginez, arbola batean adartzeak mugagabe zabaltzen diren moduan, infinituraino ere. Eta hor jada badituguke hiztegi bat gero eta konpletuagoa, ugariagoa, infinituan osatzen dena, mundu materialaren estudioan deskripzioak egiteko, gero eta zehatzagoak. Eta deskripzio material formala da zientzia historiakoaren funtsa, eta baita zientzia ororen oinarria ere. Eta nola formalizatzea lortu dugun, jada posible da operatzea formulekin, zeintzuek analisis logikorik zehatzenak pasatu behar dituzten argumentazio egiazkoak bezala onartuak izan daitezten. Eta modu honetan herakliteismoaren egiak ez du tratatzen aurrerapena zientzia materialean, zeinean baden posible zientzia egitea. Infinituan ikasten badugu ere zientzia horren azken helburua, zeina litzatekeen kosmos materialaren ezagutza *universal*a. Baina *escepticismoa* gainditua dugu, eta zientzia materialista formala egiten ahal dugu, jakinik beti definizioak hazten ahal direla arbola baten

adarrak bezala. Eta horregatik beti da posible zientzia hoberik, izanik helburua lortuezina mundu material honetan.

Eta deskripzio sinpleak ere balio du. Eta hori izango litzateke historiaren zientzia molde sinplean kontatua. Eta herakliteismoak planteatzen zuen problema hura nonbait han beste modu batean, beste perspektiba batetik, konpondu egin dugu, eta materialista formalak gara. Eta zientzia materiala egiten dugu.

*Roman Garmendia*

### *KONTU KONTARI*

#### **KUKUAK KANTATZEN DUENEAN...**

Kukuak kantatzen duenean, udaberria gure artean dugunaren seinale izaten da. Orduantxe esnatzen da lozorroan egon den natura, kolore biziz janzteko...

Haritzak hosto gazte berde eta argiz janzten dira, eta hainbat haritz-adarretan, intsektuen eraginez, sagar antzeko koskor biribildu txiki batzuk sortzen dira. Halakoei kuku-sagarrak deitzen zaie, garai horretan kukuak kantatzen hasten delako.

Hori, gutxi gorabehera, Andre Maria martxokoan izaten da. Kukuak une horretan agertu eta San Pedroak arte egoten da gure artean. Bada, esaera zahar batzuek ere hala diote:

«Kukuak Andre Maria martxokoak argitu, kantua eman eta San Pedrok isildu eta moteldu».

«Kukuak Andre Mari martxokoan kuku, San Pedroetan mutu».

Behin batean, kukuak berak esan ei zuen, «Santa Maria martxokoz ez bazetorren, bere ondraz egiteko». Eta beste egun batean «Ama Birjina martxokotik zortzigarrenean ageri ez bada, idiekin eta gurdiekin bere bila joateko».

Maiatzerako lorez estaltzen dira baso eta zelaiak, eta Bizkaian horregatik deitzen zaio Loraila hilabete horri. Badago landara bat, dotore eta ikusgarria oso, purpura kolorezko lo-

reak ematen dituen, latinez *Digitalis purpurea* deitzen dena, eta guk kuku-praka deritzoguna. Bi urteko bizitza duen landara horrek bigarren urtean bakarrik ematen ditu loreak, baina lore horietatik datorkio izena; izan ere, lore horiek kukuarentzat neurrian egindako praken itxura dute, eta ugari ateratzen omen dira kuku-tokietan.

Lehen, udaberria heldu orduko, jende asko joaten zen kuku-tokietara, haren kantua entzutera. Egin-eginean ere, herri-jakiturian ondo sustraituta dagoen ohitura baten arabera, urtero, kukuaren hotsa estreinakoz entzuten denean, sakelan edo patrikeran dirua duenak urte guztian izango du. Bestalde, kuku-hotsa entzun duenak badaki urte horretan ez dena hilko. Antzina, lan faltarik ezaren seinale ere izaten zen askorentzat, kukurik kukura kontratua egiten baitzen ugazaben eta zerbitzarien artean. Labur-zurrean esanda, «kukuaren soinua entzunez gero, poza».

Maitasunaz ere dezente daki. Berezko abilezia du horretan ere, nahiz eta batzuek esan «zazpi urtean eskolan ibili zela eta ku-ku baino besterik ez zuela ikasi». Alferra edo nagia dela diote beste batzuek, arrautzak jartzeko habiarik egin ez eta txantxangorriaren habia baliatzen duelako, eta txantxangorriak hazten dizkiolako kumeak.

Ninfengandik ikasi ei zituen maitasunaren inguruko gorabehera guztiak. Lur-azpian nahiz haitzuloetan bizi dira ninfak, baina ilargi beteko gauetan, kuku-prakadun baso-zelaietara irreten dira, dantzan egitera. Zelai horien eta, azken batean, natura osoaren espirituak diren heinean, emankortasunaren nahiz graziaren irudi dira, pertsonifikazioa alegia. Eskuarki, naturako beste espiritu batzuekin maitemintzen dira. Aitzitik, zenbaitean, gizaki gazteekin maitemindu eta gazteok behin betiko bahitzen dituzte.

Diotenez, antzinatan, Zeus ere kuku bihurtu zen, hegazti triste eta hozkilarren itxura eginez Herarengana hurreratu ahal izateko. Herak, ikusi orduko, penaren penaz, gorputzaren be-

rotasunera ekarri zuen. Modu horretara lortu omen zituen Zeus-ek haren musu eta laztanak.

Asko dira uste dutenak kukua maitasun-kontuen iragarle ere badela. Horrenbestez, maitemindu batzuk kuku-prakez beteriko zelaien bila ibiltzen dira, halakoak kuku-toki izanik, badakitelako bertan kukua entzun dezaketela.

Txoria kantatzen hasi eta bigarren kantua abestu ondoren, maiteminduek, eurek asmatutako hitz neurtuak erabiliz, ozen galdetzen diote ea zenbat hilabete barru lortuko duten maitearen baiezkoa.

Hitz neurtuak entzun eta gero, txoria kantatzen hasten bada, maiteminduek «ku-ku» segida bakoitzeko silabak zenbatzen dituzte, eta errepikatutako silaba-kopuruak ematen die erantzun zehatza. Baina txoriak ezer erantzuten ez badu, maiteminduek badakite beste maite baten bila hasi behar dutena.

*F. Javier Arrieta Idiakez*

## DONIBANE GAUA ETA UDAKO SOLSTIZIOA

### 1.- Urtearen banaketa eta udako solstizioa

Gure arbaso zaharren kosmogonian urtea bitan banatzen zuten, alde batetik uda eta bestaldetik negua. Urtea bere ize-nak esaten digun bezala (ur + te) ur edo eurien kopura eta maiztasuna banatzeko denboraldi luze eta errepikakorra zen, hau da, eurien zikloa.

Uda eta neguaren arteko banatzaileak solstizioak eta ekino-zioak ziren. Abenduaren 21-22an, neguko solstizioarekin batera, negua hasten da eta martxoaren 21ean, udaberriko ekinozioarekin, bukatzen da. Neguko solstiziotik udaberriko ekinoziora doan denboraldiari euskaldunok negua, inauteria edo hartzaroa<sup>1</sup> deitu diogu, garai horretan amalurra lotan baitago, eta gure mendietako hartza neguloan edo hibernazioan, baina udaberriko ekinoziora iristean, hartzarekin batera, amalurra esnatuko da, indarrak gabe izen den Eki edo Eguzki (euskaldunontzat bizitzaren jainkosa) berpiztuko da, uztak azalduko dira eta gizakiaren bizimodua lur azalean izanen da, aisagoa, errazagoa, neguko leize-zuloen babes, behin behinekoz baztertuta.

Udaberriko ekinoziora den martxoaren 21etik neguko solstizioa den abenduaren 21a arte uda izanen da. Halaber, uda edo udara hiru zatitan banatzen da: udaberria, udagoiena eta udaz-

<sup>1</sup> Hartzaro: Lapurdiko Uztaritzen inauteriari ematen dioten izena.

kena. Udaberriko ekinozioa den martxoaren 21etik udako solstizioa den ekaineko 21a arte udaberria daukagu, ekainaren 21etik udazkeneko ekinozioa den irailaren 22a arte udagoiena, eta irailaren 22tik neguko solstizioa den abenduaren 21a arte udazkena. Abenduaren 21ean uda bukatzen da gure arbasoen kosmogonia zaharrean eta berriro, negua hasten da; eta horrela betidanik eta betirako etengabeko ziklo natural batean sarturik.

San Joanetan, udako solstizioaren banatzailean gaude bete-betean. 21-22an betetzen bada ere, europar tradizio zaharrak 23ko gauarekin, hau da, Donibane gauarekin, lotu du oso garai zaharretatik. Euskal tradizio zaharretan esaten denez, San Joanetan edo Donibaneetan, eguzkiak ortziko edo zeruko goia jotzen omen du, edo beste modu batean esanda, euskaldunontzat bizitzaren jainkosa den Ekik osotasuna sinbolizatzen duen Ortzi dibinitatearen teilatu gaina ukitzen du. Zenbait adituren ustez, ekaina hilabetearen izenak horren berri garbia emanen liguke: Ekaina = Eki + gaina, hau da, Ekik zeruko gaina ukitzen duen momentu edo tenorea.

## 2.- Donibane gaueko sua

Euskaldunon kosmogonia zaharrean beste kosmogonia naturalista-animistetan gertatu den bezalaxe, oinarrizko lau elementuak diren ura, sua, lurra eta haizearen berri ematen diren sinbologiak eremu handia hartu du.

Oroit dezagun urtea bitan banatzen dela: negua eta uda. Negua hotzarekin, ilunarekin, loarekin eta euskaldunontzat heriotzaren jainkosa zen Ilargi edo Ilazkirekin lotua zen; eta uda berri, beroarekin, argiarekin, uztekin, ernaltzearekin eta euskaldunontzat bizitzaren jainkosa zen Eki edo Eguzkirekin lotuta.

Solstizioetan eta ekinozioetan, hau da, sasoi batetik bestera pasatzeko egunetan, gure arbasoek oinarrizko sinbologian azaltzen diren lau elementu horietaz baliatzen ziren, uraz eta suaz, gehienbat, zenbait errito magikoren bidez sasoi batetik besterako bideak bedeinkatzeko eta errazteko. Donibane ingu-

ruko egunek udaberritik udagoienerako<sup>2</sup> pausoa ahalbideratzen dute,edo beste modu batean esanda, Eguzki-begi gorenaren garaira doan bidea prestatzen digute. Normala da, beraz, suaz baliatzea biziaren momenturik gorienak adierazteko. Baina ez dezagun ahantz, negua Olentzeroren inguruan, hau da, neguko solstizioaren inguruan, Olentzero enborra piztuz hasten zela Euskal Herriko bazter aunitzetan. Sua erabiltzen da neguko solstiziorako eta baita udako solstiziorako ere.

Sua garbitzailea da, eta horixe da bere esanahirik zabaldua. Suak amaiera ematen dio garai bati eta hasiera beste berri bati, eta horretarako aurreko garaian eduki ditugun oztupoak, ezbeharrak, etsaiak eta abar errez, errazago eginen zaigu garai berri zoriontsuago batera igarotzea. Gogora ekar dezagun horretarako herri askotan erabiltzen den azti-hitz jokoak:

“San Joan, nik ez daukat  
 besterik gogoan,  
 bi arraultza kolkoan,  
 beste bi gehiago altzoan.  
 Artoak eta gariak gorde, gorde!  
 Sorginak eta aztiak  
 gure artean beude!  
 Sugeak eta apoak erre, erre!

### 3.- Donibane gauarekin lotutako zenbait kontu

Gipuzkoako Anoeta herrian, San Joan hirugarrenean, hau da, ekainaren 23an, arratsaldeko laurak aldera, oilasko jokoak izaten zen herriko plazan. Jokoaren ondoren aureskua dantzatzen zuten.

Donostian, Gipuzkoako herri gehienetan bezala, herriko plazan lizar handi bat jartzen dute eta San Joan gauean, herriko agintariak aureskua dantzatzen dute zuhaitzaren aurrean.

<sup>2</sup> Udagoien: Uda.



Ondoren, belarrez eta zuhaitz-adaxkez egindako metari su ematen diote, eta plazan bildutakoek dantza egiten dute su-metaren inguruan hasieran eta gero jauzika aritzen dira suaren gainetik.

Nafarroako Arraiotzen, San Joan bezperan, elorri zuriaren adarrak mozten dira eta San Joan-lore<sup>3</sup>, intxaur hosto eta iratzezko sorta bat osatu. Festa eguneko mezan bedeinkatzen dira sorta horiek eta ganbaran lehortu. Ekaitza lehertzean, sorta horietako lore eskukada batzuk botatzen dira sutara, eta kandela bat pizten, eguraldia hobetu arte horrela edukitzen dena.

Gipuzkoako Elduaian herrian, oraindik bizirik da oso goiz irteteko ohitura San Joan goizean lizar edo gorosti bila, etxe atariko bi aldeetan jartzeko. Euskal Herriko bazter askotan errepikatzen da errito hau. Egun batzuen buruan, eta lehorrak daudenean, adarrak kentzen dira. Horrela etxea babesturik dago ekaitzetatik.

Gipuzkoako Oiartzunen Euskal Herriko edozein herritan bezalaxe, San Joan Gauaren indar magikoaz sinisten dute. Horrela frogatzen du lasto sortak erretzeko duten ohiturak. Horrek soroetako etsaien erreketa eragingo zuela espero baitzuten. *“Gure soloan lapurrik ez. Badaude, erre bitez. Apoak, sugeak erre eta peste txarrak erre, erre!”*

Lapurdiko Sara herrian, bidegurutze batean egiten dute sua bezperan. Suaren inguruan ibiltzen dira bertakoak arrosarioa errezatzen, eta horrekin eguzkiari bere urteroko ibilbidean laguntzen diotela uste dute.

Azkaine herrian, gauerdia iristean, sua pizten da herriko plazan eta herriko dantzariak mutxikoak dantzatzen dituzte bere inguruan. Ondoren, bilduta dauden guztiak soka-dantzan ibiltzen dira suaren inguruan jira-biraka, eta geroxeago jauzika suaren gainetik su-meta itzali arte.

---

<sup>3</sup> San Joan-lore: Udaberrian loratzen den lehena. Pazko-lorea ere deitua.

Lapurdikoko Uztaritzen eta Nafarroako Beintza-Labaienen, herriko gazteak su-metaren inguruan dantzan eta jauzika ibiltzen dira. Esaten dutenez, suak gaitz guztiak garbitzen omen ditu, baita larruko sarna ere. Hori dela eta, Uztaritzen *Xarnafera!* oihukatzen dute, behin eta berriro, eta Beintza-Labaienen honako hau:

“Sarna fuera,  
gaixtuk kanpora!  
Onak barrenera!

Zuberoan, mendietan piztutako su-meten inguruan biltzen dira, eta gau-pasa ederra egiten dute dantzan, kantan eta jauzika. Azkeneko urteetan, Mixel Etxekoparrek sortutako dantza egiteari ekiten diote. Jondane Johane<sup>4</sup> Dantza izena du eta hauxe dio:

- 1.- Urteak jin<sup>5</sup> eta bihikatzen bata  
bestearen ordari,  
ihautez piztirik sü berria eki begia  
beilari.
- 2.- Izarren hautsa zü Amalürra gaudenen  
bizi-emaile.  
Argizagia<sup>6</sup> eta ekia zure bi haürren  
sortzaile.
- 3.- Goren-gorenik gure izarra xuri gorri  
argizale.  
Ekia gaü egünen egile zü denboraren  
jakile.
- 4.- Beherapenaren aldia da gora dagon  
güziari.  
Üngürü-üngürü urtaroak egünak sor dü  
gaüari.

<sup>4</sup> Jondane Johane: San Joan zubereraz.

<sup>5</sup> Jin: Etorri.

<sup>6</sup> Argizagi: Ilargia.

Eta lau koblen artean, behin eta berriro, errepikatzen duten leloa:

Ezker negüa, esküin argia,  
jaüzi aitzina dantzari.  
Doblez ützüli esküak ützi,  
pikaz üngürü süari.

Adibide hauetan garbi ikusten den bezala, antzeko erritua-  
lak dira gure geografiaren luze-zabalean, hau da, gure zazpi  
herrialdeetan, errepikatzen direnak.

#### 4.- Donibane gauean egin beharrekoak

San Joan edo Donibane gauean, onena da gure etxetik hur-  
bilen pizten den su-metara hurbiltzea, eta ahal izanez gero, be-  
re inguruan, bertan bilduta dauden beste guztiekin batera dan-  
tzatzea, eta ausartuz gero, jauziren bat egitea suaren gainetik,  
suak eraman ditzan berekin, urtean gertatu zaizkigun gauza  
txar guztiak eta gure etsaiengandik libra gaitzan.

To sua,  
zaharra eramantzan  
eta berria ekartzan!

Bestalde, ez dugu ahantzi behar gure ateburuetan edota ate  
nagusiaren bi aldeetan, lizar aldaxka bana jartzen, euskaldu-  
non zuhaitz magikoak gure etxea eta bertan bizi garen guztiok  
babes gaitzan. Izan bedi ekibegia<sup>7</sup> gurekin Donibane gau ma-  
gikoan, euskaldunon akelarre handian!

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*

---

<sup>7</sup> Ekibegi: Eguzkiaren begia.

**OLERKIAK**

**BIHOZKADAK**

**HAZI**

Aldenduz alderatu nahi dut  
urrun  
zerk lotzen nauen ahazteko

**HEZI**

Ez dut nahi, ama,  
iririk ez duen barbarik  
dantzatu ezin den urratsik  
usaindu ezin den arrosarik  
Ez dut nahi, ama,  
belar horitutako zelairik  
lurrina galdu duen hats hotzik  
bustitzen ez duen euririk  
Ez dut nahi, ama,  
egun gris ilunik  
izarrik bako gaberik  
ametsik bako arratsik  
Hazi egin nahi dut, ama,  
baina ez zahartzerik.

**BIZI**

Korrikalari nekaezina  
bakardadea:  
beti atzetik, gertu, hurran

**IHESI**

Bare dago, beldur noa  
oinek hondarra galduko ote duten  
Bare dago, beldur noa  
arrainak hozka hasiko ote diren  
Bare dago, beldur noa  
hodei ertzean inor ba ote den  
Bare dago, beldur noa  
itzultzerik ez ote dagoen

*Jolanda Arrieta*

**ORHIKO XORIA OTE IZANA?****Gauaren udazkena**

Sasiz inguratutako larrosa  
 ez da bakarra,  
 arrosa kolorekoak gutxi,  
 zuriak, ordea, gehienak.  
 Eguzki zaio lagun lehenari,  
 Gau, berriz, Gauekori.  
 Iluntasun aldi honetan,  
 itxaropen galdu ugari.  
 Gure larrosak, pentsalari,  
 ahantzi omen du  
 bere arantza gerlari.  
 Gauekoren hatzaparra aurkari,  
 piztutako sua, berriz,  
 ez du inork itzali.  
 Ilargi, Eguzki bihurtu bitarte  
 kemena dugu gidari.

**Negu gorri**

Gogoa ahanzten, noraezean,  
 dabilkigu gorputza.  
 Arima goibeltzen hasia,  
 haritzek, baina, badute segida,  
 ezkurak diren heinean.  
 Basoetako erein berriak,  
 ez hartu gauzak lasai,  
 arbasoen Hitza eror ez dakigun.  
 Oihanean, ordea,  
 badira zuhaitz erori asko,  
 kontu dezagun bada,  
 gurea eror ez dakigun;  
 lore aldiak iritsi arte  
 eutsiko ote diogu?  
 Lore aldiak iritsi arte  
 Hitza gorde dezagun!

**Udaberri, zerumuga**

Ortzi artetik lehen izpiak  
zaizkigu ageri.  
Gaueko, berriz, ez dakusagu;  
ez da haren berri,  
Xoriaren baitan Hitza nagusi,  
lau haizeetan ibiliz.  
Xirula entzun,  
oihartzuna lagun,  
arranoak dira haritzen ezagun;  
entzun beza  
beren ahotsa,  
Hitza baitute gorputz.  
Orhipean ez da beldurrik  
Sasirengan salbu.

**Uda; argiaren dantza**

Izana gaur izan bekio  
askatasunari.  
Oihartzunak, lagun, kanta biezaio,  
bakardadeari.  
Lau haizeek oroit bezate  
aintza zahar hori,  
ur-jauzia aurrean  
eta gaua gainean  
jar ez dakizkigun.  
Ahantzi itxaropen galdua,  
atxiki itxaropen ahaztua.  
Dagigun.  
Berriro izan gaitezen  
Orhiko Xoria.

Kantauri orpoan, argitzean,  
azalduko den lauburua,  
isil beza gaueko haizea!

geldi beza ur-jauzia!  
 erakuts biezaie Ortziren izatea!  
 bizirik dirauen Eguzkia.  
 Indar beza gure elea!  
 gogo, bide batez, euts dezagun!

Orhipeko mundua.  
 Ortzian Eguzki eta Ilargi, argiz dantzan,  
 mendipea argitzeko asmotan,  
 egia bidean.  
 Lainok egiak ditu estali Gaua ekarriz,  
 tontorra da argitan soilik,  
 Xoriak dakusa, beraz, bakarrik.  
 Honek, galde, eska...  
 ez da inor ageri!  
 Bere xirulak balioko al du  
 galestar dragoia edo hiriburu bretoia,  
 bakardade itsura erakartzeko?  
 egia, berriro ere, kantatzeko?

*Etxahun Aurkenerena*  
 (Urruña)